

Ilunetik argira

Elbira Zipitria



Resu ABASOLO GALLASTEGI

Aretxabaletarra. Irakaslea, ikasketaz eta lanbidez. Eskoriatzako Irakasle Eskolan Irakasletza ikasketak egin zituen, eta Bergarako UNEDen Hezkuntza Zientzietan, Ikastetxeen Zuzendaritzan eta Kudeaketan espezializatu zen. Egun, Aretxabaletako Kurtzebarri BHIIn dihardu irakasle eta zuzendari gisa.



Juana LOPEZ DE MUNAIN

Arabarra. Irakaslea, ikasketaz eta lanbidez. Deustuko eta Salamankako Unibertsitateetan Filosofia eta Letrak ikasi zituen. Egun, Hezkuntzako ikuskaria da Araban, lurraldeburua.



Arantxa URBE IRAZUSTA

HIK HASIko kidea. Zotzekin ikasi zuen irakurtzen, eta potokekin matematika Orereta ikastolan. Egun, Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolako irakaslea da.

hik hasi

Argitaratzailea: **XANGORIN**. Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA. Tf: 943 371 408 Fax: 943 372 154; www.hikhasi.com;
hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: D-1220/04 ; ISBN: 84-934 097-0-7

Azala eta Diseinua: Julian Tokero. **Maketazioa:** hik hasi. **Inprimategia:** ANtza S.A.L.

Koordinazioa: hik hasi. Sustapena, ikerketa eta lan pedagogikoa: Resu Abasolo eta Juana Lopez de Munain.
Testuen egilea: Arantxa Urbe.

Liburu honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du.

Data: 2004-X-19.

Kopurua: 2.500 ale

*Txori bakoitzak bere abestia,
Herri bakoitzak bere hizkera:
Euskaldunok euskera!
Guk ahal ditugun
hizkuntza gehienak
ikasiko ditugu:
buruan hiru...edo,
baina bihotzean bakarra:
gurea!*

Elbira Zipitria

Aurkibidea

Hitzaurrea	6
Beretzat gorderik zituenak	9
Ihesa	12
Gogoa urrun	14
Eman gabeko besarkadaren mina	15
Erbesteko urteak	17
Marseillan barrena	18
Bi zipitriar aurrez aurre	21
Nebaren bisita	23
Orixerekin Saran	25
Gerra galdua	28
Garai ilunak	29
Itxaropena, azkenean	34
Lehenengo ikaslea	36
Ateak zabalik dituen eskola	38
Ezusteakoa	41
Garai berriak	44
Guztia goitik behera dator	46
Atsedean egin diezaio argiak	49
Elbira eta euskara	53
Elbira eta politika	60
Jardun pedagogikoaz	65
Ikasle bikaina	68
Ikastolaren lehen hazia	68
Frankismoaren urte ilunak	69
Isilpeko ikastola	70
Andereñoen andereñoa	75
Orixe ikastola	77

Hezkuntza ekimena	79
Iturri pedagogikoak	80
Eskola berria	83
Eskola bizia	85
Hezkuntza ekimenaren ezaugarri nagusiak	89
Baliabide eskasiaren aurrean, irudimena	96
Zotzak irakurtzen eta idazten ikasteko	97
Euskal kultura ikasleen eskura	104
Eskola bizitzara irekia	108
Begiratu bat ebaluazio gisa	110
Atzehitzak	115
Geno Alkain	116
Luis Mari Bereziartua	116
Mari Karmen Mitxelena	118
Marta Mata	119
Xabier Garagorri	122
Pilar Etxaniz	124
Nerea Alzola	125
Anjeles Iztueta	127
Genealogia	129
Kronologia	130
Bibliografia	138
Eskerrak	139



Hitzaurrea

Zaila da, inondik ere, zuzenean eta gertutik ezagutu ez den pertsona bati buruz tamaina honetako lana burutzea. Halaber, Elbira Zipitriak bere lanari buruz ezer idatzi ez izanak, ez ditu lanak erraztu.

Hala ere, zailtasunak erronka omen dakar berarekin, eta zailtasunez hainbeste jakin zuen Elbira Zipitria argira ekartzeko erronkari heltzea erabaki dugu. Horren emaitza duzu jarraian aurkezten dizugun liburua.

Lan hau bost urteko ikerketaren ondorioa da. Horretarako, Elbira ezagutu eta berarekin lan egin zuten hamaika lagunen testigantza bildu dugu, eta, gainera, ikastola hartan berarekin ibilitako hainbat ikasleren 61 blok aztertu ditugu.

Liburuaren lehen atalean, Elbira nor zen eta nolakoa zen erakutsi nahi izan dizugu. Hori dela eta, hari askotatik tira egin dugu, baina gehienak berehala eten zaizkigu; inon sustraitu ez zen jendea izan zen seinale.

Atal horretan aurkituko duzun gehiena, testigantza eta agirietatik jaso dugu, zehatz mehatz. Gainerakoa, kontakizuna laguntzeko paratu dugu.

Bigarren atalean berriz, Elbiraren jardun pedagogikoan murgildu nahi izan dugu. Hor aurkituko dituzunak, aztertutako bloketatik eta lanean ezagutu zutenen lekukotasunetatik ondorioztatu ditugu. Bide batez, gure ustez, Elbirak euskal irakaskuntzari egindako ekarria jaso dugu ere.

Hurrengo atalean, hainbat pertsonak Elbirari eta haren lanari buruz liburu honetarako espresuki prestatutako idatziak aurkituko dituzu.

Eta azkenik, lana hobeto kokatzen eta ulertzen lagunduko dizuten hainbat testu dituzu.

Irakurtzerakoan kontuan izan ezazu, batez ere, Elbiraganako eta haren lanarekiko begirada ezin dela gaur eguneko begiz egin. Ez ahaztu duela 60

urte baino gehiago eginiko lana eta pertsona aurkezten ari gatzaizkizula. Garai hartan dena egiteko eta eraikitzeko zegoen, arlo guztietan. Ezin, beraz, egungo parametroetan neurtu; horrek erakusten du benetan izan zuen merezimendua, hain zuzen.

Funtsean, poliedroak adina alde dituen emakume euskalduna aurkezten dizugu. Askotan garatu zituen ideien eta egin zuen praxiaren arteko kontraesanek markatu zuten haren bizia, hein handian.

Urte ilun haietan jorratu zituen arloak muturreraino eramane zituen. Hala, abertzaletasuna, euskara, Euskara Batuaren aurkako gurutzada, ikastola... bere bizitzako zio bihurtu zituen.

Idea iraultzaileak izan zituen, eta klase kontzientzia handikoa zen: langileen aldekoa eta burgesiaren kontrakoa zen, feminista, erlijioa bere erara interpretatu zuen, bizitzeko behar zuena soilik zuen, diskrezioa gorai patzen zuen... balio erabat iraultzaileak garai hartarako.

Asko gustatzen zitzaion munduari begiratzea, interes handia zuen, baina etorkizunari begiak eta bihotza itxi zizkion; ez zuen jakin berak hainbeste borrokatu eta defendatu zituen ildo berri haietan joaten. Bere ideietan itxi eta

itsutu zen. Jarrera horrek sentimendu kontrajarririak piztu zituen bere ingurukoengan, jokera itxi haiek kontrako jarrera eta sentimendu asko sorrarazi zituzte-larik.



Hala ere, ezagutu zuten askok maitatu zuten. Eta ezagutu zuten guztiek Elbirari asko zor diotela diote, Euskal Herriak asko zor diola.



A hand-drawn illustration of a village scene. The drawing is done in a simple, sketchy style with black lines on a light background. It depicts a central area with several buildings and trees. People are shown in various activities: some are standing, some are sitting on the ground, and one person appears to be working with a tool. The scene is framed by a wavy line on the left side, suggesting a path or a boundary. The overall style is reminiscent of a child's drawing or a folk-art illustration.

Beretzat gorderik zituenak

GV GAZTELVAN
GAZTAÑAN BILTZEN.

“Etorriko dira, etorriko dira...”, pentsatzen zuen berekiko horrelakoetan. Baina, benetan, berriro etortzen ote dira joaten direnak?

Donostiako kaitik barrena doa, pentsakizun horiek buruan. Ikastolatik atera berria da, minduta dago. Arratsaldeko bilerak odola irakiten jarri dio. Ezin du ulertu, ezin du eraman, gaitza hain hurbil izatea eta ez ikustea. Nola liteke?

Urte luzeak daramatza borrokan; bizitza osoa, egia esateko. Atsekabeturik ikusi behar izan du nola Euskara Jatorra baztertu, eta asmakeria hutsa den Euskara Batua zabaltzen ari den ahoz aho; eta hori gutxi ez balitz, orain ikastolak legeztatzeke sukar ero hori! Ez al dira konturatzen etsaiak ez duela besterik nahi?

Lagun asko ikusi ditu joaten. Garai berriei erantzun behar zitzaaien aitzakian, aberriarekiko zintzotasuna eta euskararekiko maitasuna erakusten duen bidea utzi eta normalizazioaren bidezidorretatik gora joan dira. Eta orain lankideak, hainbeste urtean taxutu duen eta bere-berea sentitzen duen ikastola kinka larrian jartzen... Horiek denak etorriko ote dira, inoiz?

Haserrean murgildurik, oharkabean, arrantzontzi gorri baten parera iritsi da. Oroimenaren sakontasunetik oroitzapen bat azaleratu zaio. Dagoen leku hartan bertan izan zen, 35 urte lehenago. Orduan, bera izan zen joan behar izan zuena. Kartoizko maleta marroia eskuan, txanelera igo eta arrantzontzi gorrian joan zen, beste hainbat lagunekin.

Maleta hartan zeramatzan itxaropenak, etortzen zenerako ongi gordeak. Zer aurkitu zuen, ordea, etorri zenean? Izua, debekua, ukapena... Maletan gorderik zituen asmoak ez zituen alferrik galtzen utzi, hala ere. Izan zuen indarra eta adorea sortu zuen guztia aurrera ateratzeko; aurrera beti, horra hor euskaldunen patua.

Baina 35 urte beranduago zer geratzen zaio? Laster beteko ditu 65 urte, bide luzea egin du, jada. Nekaturik dago. Berriro joango da, baina oraingoan ez da egundo itzuliko. Hori da geratzen zaion bakarra: hil arte bizi.

Ihesa

“Izeba!”, entzun du ilunaren erdian. Beretzat zela jakin arren, ez du atzera begiratu. Ez du agurrik nahi. Urduri, kartoizko maleta marroia tinko estutu du magalean.

Txanela arrantzontzi gorrira heltzen ari da, han doazen beste hiru lagunak nasara begira ari dira, ilunak ia irentsi dituen irudi haien artean maitearena bereizi nahian. Ordurako, izua eta samina masailetan behera bide egin duten malko bilakatu dira.

Elbira, ordea, aurrera begira doa. Horregatik, arrantzaleak luzatu duen eskua hartzen lehenengoa izan da. Ez da malkorik isuri bere begietatik.

Ostirala da. Atzo arratsaldean, Ikatz kalean gora etxera zihoala, Alderdi kide batekin egin zuen topo, zain zuela iruditu zitzaion.

Elbira —esan zion—, entzun al ditun azken berriak? Nazionalak Donostiatik hurbil ditun. Bihar ez bada etzi hemen izango ditun. Arriskuan hago, alde egin behar dun. Bihar goizaldean, nasan, arrantzontzi gorri bat izango dun zain. Hoa azkar!

Ezer esateko astirik eman gabe, kalean barrena galdu zen. Elbirak, pausoa azkartu eta handik etxerako bidea inoiz baino azkarrago egin zuen.

Sukaldean topatu zuen Gregorio lehengusua. Kalean jazotakoa azaldu zion, eta hark ere lehenbailehen alde egiteko esan zion.

Oso aztoratua zegoen, ordurako beldurra bere barruan libre zebilen. Ez zekien zer egin; alde batetik ez zituen ikastola eta etxea utzi nahi; beste alde batetik, bera ere ohartzen zen Alderdian egindako lanari eta euskara arloan eginikoari esker, zegoeneko oso ezaguna zela Donostian. Ezkutuan egin zuten azken bileran argi agertu zuten nazionalak sartu ziren herrietan zer egin zuten abertzaleekin; burutik beherako hotzikara sentitu zuen. Alde egin behar zuen.

Gelan sartu zen, presaka. Beti atea ixten zuen arren, arratsalde hartan erdi itxirik utzi zuen, eta ez zen ohartu ere egin Geno atearen zirriztutik begira zuela.

Armairitutik kartoizko maleta marroia atera, eta zenbait jantzi eta oinetako sartu zituen bertan. Diru pixka bat ere bai. Ondoren, liburuak zituen apalera begira geratu zen, zer hartu jakingo ez balu bezala. Jada maleta nahikoa beteta zegoen; gainera, ez zen komeni pisu handirik eramatea. Ez zen erraza zer eraman eta zer utzi erabakitzea. Eskerrak gauza askorik ez zuen!

Eskua luzatu eta apaletik *Xabiartxo* hartu zuen. “Hau nirekin eraman behar dut”, pentsatu zuen berekiko. Ondoren, maleta itxi eta ohe gainean utzi zuen.

Afari legea egin zuten elkarrekin. Agian hura izango zen elkarrekin izango ziren azken aldia. Haurrei ez zieten ezer esan, baina Genok kairaino lagunduko zuela adostu zuten.

“Ordua da, goazen”, esan dio Genori. Ez da aparteko agurrik izan, Gregoriok eman dion besarkada izan ezik; “Jainkoak lagun zaitzala”, esan dio, azkenik.



Azkar doa kalean. Saiatzen den arren, zapata takoidunek zarata egiten dute lurreko harlauzak zanpatzean. Urratsak nabaritzen ditu bere atzean, bere pausoa jarraitu nahi baina ezin balute bezala; Geno izango da.

Kaiko nasara heldu direnean, etxeetako arkupeetan jende gehiago dagoela antzeman du. Itzal artean ezagutu ezin baditu ere, Alderdiak gorde nahi dituenak izango dira, berekin egin duen gisan. Ikaragarritzko isiltasuna dago han, noiz edo behin negar-zotinen batek hausten duena, soilik.

Arrantzontziak Santa Klara uharte pareta igarota du, jada. Arrantzaleak arrantzarako tresnak atontzen ari dira bizkarrean. Ohiko itsasoratzea izango litzateke, sare artean eta arrain-kaxen artean ihesean doazen euskaldunak eramango ez balituzte. Iheslariak hamarren bat lagun dira, emakumeak eta gizonezkoak.

Egoera ez da batere erraza. Guztiek dakite harrapatzen badituzte hil egingo dituztela. Hori, susmagarriak iruditu, eta lurretik erasoren bat jasotzen ez badute. Arrantzontziak Donibane Lohizuneko portura eramango ditu; han, bakoitzak bere bidea bilatu beharko du, eta, segurtasun neurriak direla medio, bakoitzak bere aldetik, gainera.

Bizitza zero puntura iritsia dela dirudi; ordu arte izandakoa, eta ordutik aurrera izango dena. Badakite zero puntua Donibane Lohizunen dagoela, baina zer izango ote da ordutik aurrera izango dena?

Elbiraren buruan ez dira luzaroan pausatu kezka horiek. Ez da Hegoaldetik ihesean atera behar izan duen lehen abertzalea, eta badaki, ez dela azkena izango ere. Aurretik, Alderdiko kide askok eginga dute erbesteko bide hura bera, eta ziur dago aurkituko duela aterperik ordutik aurrera. Orain artekoarekin lotzen duen maleta marroia bularraren kontra estutu du, haren gainean burua ipini eta loaren zain geratu da, bart gauean iritsi ez zen loaren zain.

Gogoa urrun

Iluna nagusitu da. Ilargiaren argitan doi-doi ikusten du Lapurdiko itsasertza. Bidarteko labar argitsuak ikusi ditu ezkerretara. Eskuinerago, hondartza bateko hareak muga egiten du itsasoaren eta mendixken artean. Han, hondartzaren oinetara, etxeak diruditen forma txuri batzuk antzeman ditzake. Horien atzean, gotorleku gisa, Larrun mendia. Zein desberdina den Euskal Herriak eskaintzen duen ikusmira itsasotik begiratuta edo lurretik begiratuta!

Eguna amaitzen ari den heinean, kresala jasotzen ari da. Sakon arnastu du, usain hura bere barruaz jabetzen utzi du. Baina usain harekin batera, gogorapenak datozkio nahasian, urrunetik. Laino artean bezala datozkio, ezingo luke garbi esan irudiak diren ala sentsazioak.

Zumaia datorkio gogora, hainbestetan usaindutako kresalak bazter guztiak harrapatu ditu. Gogoan du, Zumaian bizi zela, maiz ikusi zuela hori, udaberrian batik bat. Itsasoak oraindik neguko hotzak astindu ez, eta eguzkiak lurra berotzen duenean, olatuen laztan hotzek kresala harroarazten diote lurrari, eta hotzikara bailitzan kosta guztian zehar barreiatzen da, laztanaren adierazgarri.

Halaxe gertatu omen zen bera sortu zen egunean ere. Edo horrela gogoratzen omen zuen, behintzat, bere amak. Udaberria zen, 1906. urtekoa, kresal usaina zerion eta maiatzak 28 egun zituen. Gurasoek Elvira Justa jarri zioten izena.

Gurasoak ez ziren zumaiarrak; aita, Jacinto Zipitria Arregi Villabona-Amasakoa zen, eta ama, berriz, Maria Irastortza Tapia, lazkaotarra. Garai hartan, aita hargin gisa aritzen zen lanean, eta arrazoi hori zela eta inguratu omen ziren Zumaiara.

Ondo gogoan zuen Elbirak bere lehen bizitokia. Zumaia Debarantz irten eta hiru bat kilometrora zegoen bere jaiotetxea, Narrondo auzoan, hain zuzen. Zumaiarrek zioten Zumaia Txikiardiko bidegurutzean amaitzen zela; alta, Narrondo auzoa, harantzago zegoen, eta Zumaia zen.

Bidaren bazter batean, Narrondo errekaaren alboan zegoen Torre etxea, bere jaiotetxea. Bi familia bizi ziren han, zipitriarrak haietako baten apopiloak izaki.

Narrondo oso auzo txikia zen. Hala ere, bi zementu ola zituen, eta haietako batean lan egiten zuen aitak, Sansinenearen olan. Ez zegoen elizarik, ezta eskolarik ere; eskolara Zumaiaraino joan behar izaten zuten. Auzoak bazuen, halaber, errekaaren urarekin mugitzen zen errota bat, eta kamineroen etxea.

Etxearen ezkerretara zegoen mendia arbelezko lubeta batean amaitzen zen; naturak sortutako frontoia zirudien. Han ibiltzen ziren pilotan.

Torre baserrian ahate asko zituzten; etxe atarian edo erreka urretan ibiltzen ziren igerian, noiznahi. Gazte zumaiarrak ahateen arrautzak lapurtzera joaten ziren maiz. Estimatu handikoak izaki Torreko ahateen arrautzak! Behin etxeko leihotik ikusi zituen eskolatik ezagutzen zituen Akilino eta Joxe anaiak, belar artean zerbaiten bila... pare bat arrautza hartu eta han joan ziren ziztu bizian korrika!

Itsasoa etxetik urrun bazegoen ere, Narrondo bukaeran zegoen zementu olako adreiluzko tximinia luzeraino heltzen zen ur gazia, itsasoko ura. Zenbat aingira ez

ote zituzten harrapatu ur haietan! Naturarekiko zuen maitasuna inguru haietan sortua izango zuen, zalantzarik gabe.

Haatik, uda partean amarekin egiten zituzten arratsalde-pasak ziren oroitzapen samurrenetakoak. Zementu ola txikiaren atzetik iragaten zen Donostiatik Bilbora zihoan trenbidea zeharkatu, eta Ezakaizto mendian gora abiatzen ziren ama, ahizpa, neba eta laurak. Galtzadatik joaten ziren, pendizetik gora, zuhaitz artean. Han goian, San Lorenteren baseliza zegoen. Inguruko zelaietan hamaika jolas egindakoak dira!

Leku hartatik, behealdean, Beduako auzoa ikus zitekeen. Bedua alboan, Urola ibai zabala itsasorako bidean, bere patua ezagutu eta hura saihestu nahiko balu bezala, ezker-eskuin uzkuratuz. Ibaiaren bihurtuneak jarraituz, Zumaia ikus zitekeen, San Telmoko labarrek itsasoaren enbatetatik babestua. Ederra zen benetan gain hartatik ikusten zutena.

Baina Zumaiaiko lehen urte haiei amaiera iritsi zitzairen. Aitaren lanak bizilekuz aldarazi zituen berriro. Lazkaoko Senpere auzora eraman zituen lan berriak. Han, itsasoaren ordeztua mendia aurkitu, eta berriro hasi behar izan zuen: eskola berria, beste lagun batzuk... azkar egokitu zen egoera berrira familia.

Senperen bizitu zen hamasei urte bete arte. Ondoren, Donostiara joan zen, Alde Zaharrera. Ez zuen sekula ahaztuko egun hura, Beasainen Norteko trenea hartu eta Donostiara arteko bidea egin zueneko. Atotxako geltokian jaitsi, eta Urumea gaineko zubia gurutzatu zuenean atentzioa eman zioten harrizko etxe eder haiek, kale zabalak, jendearen janzkera dotoreak... zerikusi gutxi zuten ordu arte bizitako tokiekin.

Eman gabeko besarkadaren mina

Alde Zaharreko Fermin Kalbeton kalean zegoen bere etxea, Alde Zaharraren bihotzean. Arrantzale auzoa zen, itsasoaren gorabeherak agintzen zuten han. Ahal zuen guztietan kairaino joaten zen, itsasontzietatik harrapatutako arrainak jaisten ikustera, edo emakumeak kale bazterretan gizonak harrapatutako arrantza saltzen ikustera. Hango algarek eta hango iskanbilerik festa bilakatzen zituzten bazterrak. Oso maitea zuen, baita ere, Urgull mendian gora abiatzea, han goitik hiria eta badia ikusteko.

Gurasoekin bizi zen Fermin Kalbetoneko etxean. Handik hurbil, Konstituzio plazan izeba bizi zen Gregorio Alkain semearekin, lehengusu maitearekin. Donostian ikasteari ekin zion, garbi zuen irakasle izan nahi zuela, eta gogor borrokatu zen hori lortzeko. Diru-laguntza bati esker lortu zuen ikasketa horiek amaitzea. Harrotasunez gogoratzen zituen urte haiek; ez zen gutxiagorako, eginiko ahaleginak saria izan baitzuen. Banan-banan etorri zitzaizkion ikaskideen aurpegiak gogora: Carmen Molina, M^a Luisa Arrillaga, Esperanza Ormazabal, Rosario Mintegi, Maria Zapiain, Carmen Goikoetxea, Ines Aranzadi eta Josefa

Aseginolaza. Guztiak, berarekin batera, Barnetegiko irakasle-ikasketak amaitu zituzten lehen ikasle ofizialak izan ziren. Hori, 1926. urtean gertatu zen.

Urte hark, 1926koak, berrikuntza handiak ekarri zizkion bere bizitzari. Baltimoren bizi zen Vicente lehengusua, Gregorioren anaia, alargundu egin zen. Hiru seme-alaba zituen: Generosa 4 urteko alaba eta 3 urteko Tony eta Franky bi seme bikiak. Hirurak amonarenera ekarri zituen bizitzera, Konstituzio plazara.

Elbirak beregain hartu zuen Ameriketatik etorritako hiru txiki haien hezkuntzaren ardura; lehenik eta behin, euskaraz ikasi behar zuten.

Gainera, urte hartan bertan hasi zen lanean irakaskuntzan, muñoatarren ikastolan, Alde Zaharrean. Hara eramán zituen bere lehengusuaren hiru seme-alaba txikiak, euskara ikasi eta oinarritzko hezkuntza jaso zezaten.

Urte neketsuak izan ziren haiek, bai, baina ilusioz beteak. Pozik aritu zen urte haietan, hainbeste maite zuen euskara haurtxoei irakasten.

Baina zoritxarrak etxeko eta bihotzeko ateak jo zituen 1930eko udazkenean. Gau hura gogoratzeak hotzikara sortarazten dio oraindik. Urriaren 2ko hura udazken egun sargoria izan zen. Amak eguna buruko min handiz igaro zuen. Lanetik itzuli zenean, berandu ohi zuenez, patal samar aurkitu zuen. Ez zion garrantzi handirik eman, beroari egotzi zion amaren ondoeza. Gainera, bazuen berak nahikoa buruhauste Alderdiaren barruan gertatzen ari zirenekin, igande hartan bertan mitina ematekoa zen, eta, egia esan, horrek bai aztoratzen ziola barrua!

Bihozkada batek esnatu zuen. Goizaldeko ordu bata zen. Amari deitu zion, baina ez zuen erantzunik jaso. Jaiki eta bere gelan sartu zen, lotarako bitxia iruditu zitzaion jarreran aurkitu zuen, begirada ezerezera zuzendua. Ez zuen arnas hotsik entzun, ezer ezer. Iluna zen nagusi, eta eman gabeko besarkadaren mina sumatu zuen. Amak agurtzeko astirik ere eman gabe alde egina zion.

Goizean goiz Alde Zaharreko San Bizente parrokiako bikarioarengana jo zuen, aspaldiko laguna zuen. Hark lagundu zion hil hurreneko paperak eta hiletak antolatzen. Amak ez zuen testamenturik utzi, garai hartako ohituraren kontra. Horrek ez zuen harritu, zer utzi behar du, bada, ezer ez duenak?

Amaren heriotzaren ondoren bakarrik geratu zen etxean. Ikastolako lanari etxekoa gehitu zitzaion, eta lan hori ez zuen inoiz gogokoa izan.

Garai hartan Gregorio soldadutzan zen. Amarekin eta hiru ilobekin joan zitzaion bere etxean bizitzeko eskaria eginez, beren etxea baino handiagoa izaki. Gogo onez onartu zuen lehengusuak egin zion eskaera. Hala, etxeko lanen arduraz ahaztu ahal izan zuen, eta bere mundua osatzen zuten gaiei eskaini zen oso-osorik.

Espainiako gerrak ipini zion amaiera hari guztiari; hari eta beste gauza askori.


Erbesteko urteak

Zer den bizitza! Ilunabarretan gustukoa du Sara inguruko muinoren batera igotzea. Handik eguzkiaren sarrera ikusten du; Larrun mendiaren atzealdean ezkutatzan da: “Etxean”, pentsatzen du Elbirak, eta jada bere begi aurretik desagertu den eguzkia Igeldo gainean irudikatzen du, urre koloreko uhara marratzuz Kontxako badian. Eta Larrun eta Bera eta Etxalar aldeko mendiak euskaldunak banatzeko eraiki dituzten horma erraldoi gisa irudikatzen ditu. Herri bakarra bitan banatua! Bi aldetako euskaldunek “beste aldea” asmatu behar izan dute, mendiaren iparraldearen eta hegoaldearen antzera.

Bitartean, eguzkiaren azken printzen argitan are eta ederragoak eta baketsuagoak iruditu zaizkio Sara eta bere inguruak. Harmonia dario bazter guztietatik. Zertan ote dira beste aldean?

Prefetenean duen irratia jakinarazten dizkion berriak ez dira oso lasaigarriak. Gerra gero eta gordinago bilakatzen ari da. Gernika eta Durango bonbapean kiskali dituzte, eta ehundaka dira hildakoak. Gudariak gogor eusten ahalegintzen ari dira, baina Francoren indarrak, alemaniarren eta italiarren laguntzaz, geroz eta hiri gehiagoz jabetzen ari dira. Sarraskia bazter guztietan.

Beldurrak ekarri zuen erbestera. Muñoatarren ikastolan egindako lanaren berri berehala zabaldu zen Donostian barrena. Abertzale sentitzen zuen bere barrua, muineraino, eta euskarazko irakaskuntzak euskararen aldeko hainbat ekimen egitera eraman zuen. Ondoren etorri ziren politika arloan egindako lehen sarraldiak, beranduago mitinak... abertzaletasuna eta euskara sutuki defendatu zituen. Gerra hasieratik, abertzaleei larrutik ordainarazi zizkieten beren ideiak, eta horrek guztiak



Elbira Labaiendarren etxean, Saran.

beldurra eragin zion. Lehen aldiz arriskuan ikusi zuen bere burua, beste askok egindako bideari jarraitzea erabaki zuen. Donibane Lohizuneko portura heldu ondoren, Azkainera joan zen lehenik. Ondoren, Ziburura joan zen. Bazen hilabete batzuk Saran bizi zela, Antonio Maria Labaienekin eta Pilar Sansinenearekin eta haien semeekin, Prefetenean. Ihesean zebiltzan beste hainbat laguneren atarpe zen, gainera.

Irratiak eta ihesean Prefetenean datozen lagunek ekartzen dituzten albisteak ez dira batere itxaropentsuak. Mina egiten diote, min etsia du bihotzean. Orduak pasa ditu gaur ere leihotik Larrun aldera begira, begiak malkotan, beste aldean gertatzen denak tristuraz betetzen duelarik. Hori ekiditeko, buru-belarri murgildu da lanean; Prefetenean dituen Ramon eta Matxin Labaien txikiei eskolak ematen ari da, Muñotarrenean egiten zuen lanari jarraipena emanez nolabait, bitarteko baliatu ditu, ikasteko liburu bilakatu, etxe inguruko mendiak, basoak, loreak, arrainak eta tximeletak; Sarako neska gazteekin abesbatza eta dantza taldea sortu ditu; lehendik ondo ezagutzen zuen frantsesaren ezagutzan sakontzen ari da. Horretarako Frantziako egunkariak irakurtzen ditu egunero; italieraz irakurtzen du baita ere; Frantzian pedagogiak bizi duen aurrerakada ezagutu nahi du, argitalpen ugari ditu eskura berrikuntza horiei buruz; irakurri eta guztiak koadernatzen ari da. Frantziako filosofoak irakurtzen ari da, Jacques Maritain batez ere; hurbil sentitzen du honen kristau nortasuna bat datorrelako bere pentsaerarekin. Politika arloan jarraitzen du. Parisera bidaiatzeko parada eskaintzen dio, eta, bide batez, hango zenbait eskola ezagutzeko aukera du, eta, batez ere, On Joxemiel Barandiaran gertu duela baliatuz, euskara eta euskal nortasunaren inguruan dituen ezagutzak sakonduko ditu. Hainbeste du oraindik ikasteko! Honen etxera maiz biltzen dira erbesteratuta dauden beste euskal idazle asko: Koldo Mitxelena, Ander Arzelus *Luzear*, Nemesio Etxaniz, Nikolas Ormaetxea *Orixe...* benetako plazera da haiekin ordurik gabe hizketan aritzea euskal literaturaz eta euskal gaiez.

Marseillan barrena

Trenak aurrera darrai bere bidean. Badira hiru ordu Marseillako geltokitik abiatu dela. Udazkena da, hego haizeak are gorriago margotu du Mediterraneoko ilunabarra. Laster ilunak dena estaliko du.

Bagoi hondoan bi emakume doaz; elkarren ondoan, baina gogoia elkarrengandik oso urrun. Bakoitza bere pentsakizunetan murgildurik doa. Pilarrek lehen bidaia du. Nekeak jota dago, baina azken egunetako zirrarek gogoia aztalkatzen diote, eta loaren beso epeletan kulunkatzea eragozten diote.

Gauza gehiegi darabiltza buruan, eta bihotzean. Azken egunetako gertakizunek gainditu egin dute. Badaki helmuga bitarterako bidea luzea dela, eta hobeto daki

loak hartu ezean are eta luzeagoa izango dela. Bihotzetik bururako bidean jira-biraka dituenak oroimenean txukun gordetzeari ekingo dio.

Irrika eta erreparoa nahasi zitzaizkion aste batzuk lehenago, osaba Joxemiel Barandiaranen hitzak entzun zituenean. Espainiako gerratik ihesi Sarako Bidartea etxean aurkitu zuten babesak. Han, beheko suaren ingurura, euskaldun asko biltzen ziren, beren modura ihesi zebiltzanak. Hamaika kontu entzunak zituen Pilarrek su haren bueltan!

Etxe aurretik igarotzen zen bidearen beste aldean, osaba Joxemielek eraiki zuen kapela txikiaren behealdean, Prefetenea etxea zegoen. Han, Hegoaldeko zenbait jende bizi zen, Tolosatik etorritako Labaiendarrekin. Haietako bat zen Elbira Zipitria. Maiz izaten ziren elkarrekin, Elbirak oso gogoko baitzuen osabarekin orduak ematea hitz-aspertuan, haren jakin-mina aseezina zen. Arratsalde hartan ere Bidartenera etorria zen Elbira. Hala ere, egun hartan, Elbiraren aurpegiera ez zela besteetan bezalakoa iruditu zitzaion Pilarri, urduri zirudien.

Oso gogoan zituen osabari esan zizkion hitzak:

—On Joxemiel, ahizpa moja ikustera joan behar dut Marseillara. Egun batzuetan kanpoan izango naiz— Elbirak, beti bezain zuzen.

—Eta norekin joan behar dun, Elbira? Bazterrak nahastuta zabiltzan, eta ez zaidan iruditzen egokia hain bidaiia luzea bakarrik egitea.

—Bakarrik noa. Ongi dakit frantsesa, eta erraz egingo dut hango bidea. Heldu den igandean irtengo naiz Donibane Lohizunerantz eta bertan Marseillara doan tren hartuko dut.

Kezka ikusi zuen berehala Pilarrek osabaren begitarrean. Eta, luze iraun zuen isilune baten ondoren, zorrotz esan zuen osabak.

—Pilar, orain arte ez dun sekula bidaiatzerik izan. Ataungo eta Sarako bazterrak besterik ez ditun ezagutu. Elbirarekin joango haiz Marseillara. Bide luzeegia da bakarrik egiteko, eta, gainera, hik Mediterraneo itsasoa ikusteko aukera izango dun. Zoazte, beraz, elkarrekin.

Ez zen nahi ordu iritsi igandea. Arropa batzuk eta janari pixka bat hartu fardelean eta Prefetenearentz abiatu zen. Bidea gurutzatu zuenean atzera begiratu eta osaba ikusi zuen etxeko atarian. Eskuarekin agurtu zuen.

Maldaburutik Prefeteneako sarrera ikusi zuen, hantxe zegoen Elbira bere zain. Txikia zen Elbira, argala. Zenbaitetan itxura hauskorra bazuen ere, bere begi argietan indar menperaezina islatzen zen. Dotore zegoen jantzita, ohi zuen bezala. Egun hartan, laino artean ezkutatuta zegoen eguzkiaren argitan, sekula baino politagoa iruditu zitzaion. Elkar agurtu, eta estratan behera jarraitu zuten. Aurrera begiratu zuen. Ederra zen ingurua; ezkerrera, Larrun mendia; eskuinera, muino batean, Sarako elizako kanpandorrea leiho gorridun etxetxo zuriz inguratua; begien aurrean, biak elkartzuz, zelai lau eta zabalak, berde kolore biziz margotuak.

Konturatu orduko Kapelagorrieneko kapelaren ertzera iritsi ziren. Han, eskuinera, galtzada zihoan, Sarako plazaraino. Harantz hartu zuten. Ez zen erraza Elbiraren pauso bizia jarraitzea, baina Sarako inguru ederretatik egindako txango luzeei esker hartua zion tamaina.

Larre berdea erdibitzen zuen galtzadan barrera zihoazen. Bat-batean galtzadak goraka egiten zuen arku bakarreko erromatar zubi bilakatuz errekatxo aigaro ahal izateko. Zubiaren ezkerreko alboan Lehenbizkaiko kapela ikusi zuen, eta Elbirak, ohi zuen bezala, une batez geratu, eta aitaren egin zuen. Sinesmen handikoa zen Elbira. Abiatu ziren berriro ere, aldapan gora, galtzadak gora egiten baitzuen, besoa gorantz luzatuz Sarako plaza harrapatu nahirik.

Sara utzi zutenetik aurreragoko oroitzapenak bata bestearen atzean nahasten zaizkio. Amaigabea iruditu zitzaion bidaiaren ondoren heldu ziren azkenik Marseillara. Hara eta hona zebilen jendez gainezka ageri zen geltokia; denak presaka eta algaraka. Une batez begiak itxi eta Sarako isilunera eta lasaitasunera itzuli nahi izan zuen, baina ez zuen atzerabiderik. Osabak emandako mandatua betetzera etorri zen, eta halaxe egingo zuen.

Elbiraren ondotik ez banantzen ahalegindu zen; ez zen lan erraza, jendeak airean ibiltzen baitzuen hara eta hona. Bitartean, Elbirak, urrats sendoz jarraitzen zuen aurrera. Begi-bistakoa zen ohituta zegoela jendartean, eta hiri handi haien eromenean.

Halako batean lortu zuten geltokitik irtetea. Haize leun batek aurpegia ferekatu zion, eta sakon arnastu zuen. Ezaguna egin zitzaion hatsa; Mediterraneo ez zen Kantauri itsasoaren hain desberdina, akaso.

Elbirak aurrera jarraitu zuen pauso ziurrez. Atentzioa eman dio beti Elbirak, bere txikian, islatzen duen adoreagatik eta ziurtasunagatik. Antza, zalantzek ez dute lekurik Elbiraren buru argian.

Ez luke esango zenbat denboran ibili ziren, luze. Zelaiak eta landak zeharkatu zituzten. Batzuetan ibaiaren ezkerretik, eta harrizko zubi ikusgarriak zeharkatu ondoren eskuinetik, bestetan. Zuhaitz lerdenen errenka amaigabeak zituzten bidelagun. Aspaldi atzean utzia zuten hiria. Noizean behin basetxeren bat ageri zen. Aziendak larrean ari ziren bazkan, lasai.

Oinak jada minberatzen hasiak zeuzkan, baina Elbiraren irmotasunak aurrera jarraitzeko indarrak ematen zizkion. Elbira hizketan ari zitzaion etengabe.

Bihurgune baten atzean, urrutian, harrizko etxe handi bat begiztatu zuten. —Horixe izango da — esan zuen, azkenik, Elbirak.

Bi zipitriar aurrez aurre

Komentuaren barruan korridoreak amaigabeak ziren, eta ilunak. Gela txiki batera eraman zituzten biak. Jakin-minak barrua jaten zion; nolakoa ote zen Elbiraren ahizpa?

Denbora luzea zeramaten zain. Halako batean, atea zabaldu zen. Lehenik adineko moja bat agertu zen. Biei begira Elbira nor zen galdetu zuen.

Antza, komentuko mojen burua zen. Elbirari adierazi zion elkarrizketa gaztelaniaz egin behar zutela, eta gaztelaniaz zekien moja bat izango zela aurrean.

Elbirak bekokia zimurtu zuen, ez zuen oso gogo onez hartu mojen buruak agindutakoa, ezagututa bere erantzunaren beldur zen. Baina ez zegoen beste erremediorik, ez ziren alferrik joan haraino! Azkenik, Elbirak buruarekin baieztoko keinua egin zion zain zuen mojari.

Ate handia itxi zuen berak alde egin ondoren; baina, luze gabe, zabaldu zen berriro. Beste bi moja agertu ziren. Bietan zaharrenak gaztelaniaz egin zien diosal, hotz. Bestea hurreratu egin zitzaien. Hark behar zuen Elbiraren ahizpa!

Bi ahizpak aurrez aurre ikusi zituen. Biak txikiak ziren, antzekoak. Elbira baino zaharragoa iruditu zitzaion. Elbirak ahizpari buruz esandakoak oroimenetik ekartzen saiatu zen; ez zitzaion ezer etortzen. Eta bat-batean ohartu zen, elkarrekin hamaika ordu egin bazituzten ere, zein gutxi zekien Elbira eta bere munduari buruz...

Beste mota bateko elkartzea irudikatu zuen. Han ez zen besarkadarik izan, ezta une hunkigarrikerik ere. Jada ohartua zen zein hotza zen Elbira sentimenduak egoeraz jabetzen zirenean. Baina Elbirak bere barne munduaren inguruan hain trebeki eraikitzen zekien harresi lodia inoiz baino sendoagoa iruditu zitzaion, zirrikiturik gabea. Elbirak edonor beti pixka bat gehiago txunditzeko dohaina zuen, dudarik gabe.

Han zeuzkan bi ahizpak bere aurrean; ezagutu berriak zirela pentsa zitekeen, bien begietan tximistaren ziztuan iragan zen samurtasun keinua ikusi izan ez balu, Elbirak haraino iristeko nolako ahalegina egin behar izan zuen jakin izan ez balu... Horrelakoa zen Elbira, zorrotza, gogorra; kontraesankorra.

Deseroso sumatu zuen bere burua egoera hartan. Gaztelaniaz zekien moja haiekin zen, elkarrizketaren nondik norakoak jarraitzen, zelatan. Biek bakarrik hitz egiten zuten. Ahizpa Elbira bezain hiztuna zen. Gauza arruntez ari ziren, egunerokoez. Elbirak Frantziako hezkuntza sistemari buruz jakin nahi zuen, eskoletan nola irakasten zieten haurrei, galdera batek besteari jarraitzen zion, arrapaladan. Ahizpak astiro erantzuten zuen, hark ere ezagutzen zuen arlo hori, behar bereziak zituzten haurren eskola batean egiten baitzuen lan. Elbiraren jakinmina aseko ez zuen kezka edo, ahizpak hezkuntzari buruz, eta pedagogiari buruz jardun zuen batik bat, bere inguruan zituen liburuak bidaltzekotan geratu zen, Elbiraren pozerako.

Ahizpak, berriz, Euskal Herriari buruz jakin nahi zuen, gerraren inguruko gorabeheretz. Harrigarria zen hura guztia, hamaika kontuz ari ziren, baina ez zen aspaldian ikusi gabeko bi ahizpen arteko berak imajina zezakeen jarduna. Ahalegindu zen, ahal zuen neurrian, bi zipitriar haien arteko harremanetik urruntzen, geroz eta deserosoagoa sentitzen baitzen. Gainera, bazen nahigabetzen zuen beste alderdi bat: zein arrotz ematen zuten Elbiraren ahoan ezpainetatik irteten ziren gaztelerazko hitz haiek.

Jasanezina bihurtzen ari zitzaion egoera, alde egin nahi zuen. Ihes egin nahi hartan, zelatan ari zen mojarengan pausatu zituen begiak. Aurpegi serioa zuen, elkarrizketari erne zegoela zirudien arren, gogoa urruti zuela iruditu zitzaion. Zer pentsatzen ari ote zen?, zer eragiten ote zion bi ahizpa haien arteko jardun arrotz hark?

Ate handia zabaldu zen berriz ere; lehenago agertu zen moja adinduna zen. Ahots sendoarekin denbora amaitu zela iragarri zuen. Beste moja ere zutitu egin zen. Elkar agurtzeko esan zien bi ahizpei. Elbirarengana eta bere ahizparengana zuzendu nuen begirada. Biak jada zutik zeuden, ahizpa moja besarkatzeko gogoa sumatu nuen, baina eskua luzatu eta "hurtego arte" esatea besterik ez zitzaidan otu. Aterantz abiatu nintzen bizkor, ez nuen ez ikusi ez imajinatu nahi izan nire atzean gertatu zena; une hori, Elbirarentzat eta bere ahizparentzat soilik geratzea nahi izan nuen, lekukorik gabe izango zuten istant bakarra.

Elbirari begiratu diot beste behin. Leihoaren alboan eserita doa. Haren begien aurrean paisaia etengabe aldatuz doa. Atzean geratu dira Marseilla eta bere inguruak. Basoak lautadari, eta lautadek soroei ematen diete bide. Berdeak urdinari, urdinak gorriari. Bitartean, gaua egunari bultzaka dator pixkanaka. Badirudi Elbira oharkabean ari dela, bere begien aurretik berez beste paisaia eta egoera batzuk doazela trumilka. Bien bitartean, malkoak irristan doaz, masailetan behera. Hunkigarria da; malkoak eta isiltasuna.

Trenko leihotik bata bestearen atzetik ageri diren parajeetatik urrun beste bidaia bat egiten ari da Elbira, urrun du gogoa. Bakarrik bidaiatzen utziko dio.

Alboko lagunari begiratu dio: Pilar. Ezingo luke lagun aproposagorik aurkitu bidai hartarako; lagun leiala da, emakume fina. Begiak itxirik dauzka, loak hartu duela dirudi. Ohartu ote da bere malkoez?, zer pasa ote zaio burutik gaur ikusi dituenak ikusirik? Ziurtasun osoa du ez dela galderarik izango, ez duela inork izango komentuan eta ondoren gertatutakoaren berririk; ziur dago.

Laguntasun hori bihotzez eskertzen dion arren, ziur daki inoiz ez dela gauza izango Pilarri esker hori adierazteko. Bere barruan sentimenduen adierazpena geldiarazten dion indar handi bat sentitzen du; horixe gertatu zaio gaur ahizpa ikusi duenean bere aurrean, besarkatu nahiko luke, haren eskua bere eskuartean sentitu, bere berotasuna eskaini; ezin izan du, ordea. Eta badaki ezin izango diola Pilarri

bere adiskidetasuna azaldu, ez bere osotasunean behintzat. Eta horrek guztiak sumindu egiten du.

Leihotik begiratu du. Iluna heldu da, oharkabean; zerurantz begiratu du, noizean behin ilargia ageri da kukuka laino artean; urrunago begiratu du, begiradaren hodeiertzerantz, begiradak oroitzapena zeharkatu du.

Bidaiak, ahizpa Maria ikusteak batez ere, barrua asaldatu dio. Zenbat oroitzapen! Gogoaren gela sakonenean giltzapean ezkutatuta uste zituenak azaleratu zaizkio, eta hor hari zaizkio dantza bortitz eta amaigabeen.

Inoiz ez du gustukoa izan bere gauzak inorekin partekatzea, kontu handiz gorde ditu denak; haurtzaroko oroitzapenak eta bizipenak, sentimenduak... Jendearekin dituen harremanetan ez du gustukoa izan bere barne sentimenduez aritzea... Horiek berarentzat gorde nahi izan ditu!

Trenaren txistuak ikaratu egin du. Geltoki batetik irteten ari dira. Alkandoraren lepoa bustita dauka, malkoek bustiko zuten. Lagunari begiratu dio; Pilarrek begiak itxita jarraitzen du.

Oroitzapenetan murgildurik zihoan, zenbat denbora pasa ote da? Nekea gailentzen ari zaio; ez dio aurre egingo. Begiak itxi eta burua leihoko kristalaren kontra pausatu du, atsedean hartzeko garaia da. Oroitzapenak oroimenaren kutxan gorde nahi ditu, giltzapean.

Egunsentiak bi emakumeak lo aurkitu ditu. Pixkanaka, treneko bagoia argitzen ari da. Bidaiariak esnatzen ari dira; laster helduko dira Donibane Lohizuneko geltokira. Leiho aldamenean doan emakumea esnatu da lehenik. Aurpegia bi eskuekin igurtzi, eta mototsean ileak biltzeari ekin dio. Trena tunel luze batean sartu da. Emakumeak iluntasunaren ondorioz ispilu bilakatu den leihoan begiratu dio bere buruari, eta azken ukituak eman dizkio mototsari. Jarraian, alboko laguna esnatu du:

—Esnatu, Pilar. Iristear gaitun.

Nebaren bisita

Goiz oheratu den arren, ezin du loak hartu. Jaso berria du albistea: bihar, Jorge, nēba, dator. Aspaldian ez du ikusi, eta izango du hamaika kontu kontatzeko, betiko moduan; anai-arrebak izanik ere hain dira desberdinak!



Jorge Zipitria

Jorge Zipitria eguerdi aldean agertu da Prefetenean. Elbirak ezohiko algarak entzun ditu, eta berehala ohartu da haien zergatiaz: —Hemen da—, pentsatu du Elbirak berekiko, ingurua dantzan jartzeko abilezia ez du galdu, behintzat. Jorge ez zen oharkabeen pasatzen inon, eta, horrek, Elbira sutu egiten zuen, askotan.

Sukaldera jaitsi da; Jorge etxekoekin ari da berriketan. Ateari bizkarra ematen diola dago, eta ez da ohartu Elbira atzetik gerturatzen ari zaionik. Ohi duen gisan beltzez jantzita dago, eta ikusi zuen azkenekoan baino argalagoa iruditu zaio arrebari. Atzetik aurrera igaro da Elbira, oharkabeen kasik.

—Hara, hemen gure arreba! Zer moduz, ez al didan besarkada bat eman behar hainbeste denbora pasatu ondoren? —Jorgek ozen.

—Goazen gora, nire gelara —erantzun dio, zakar; etxeko guztien begiradak bere gain nabaritu ditu, eta ez zaio batere gustatu, asaldata dago.

Bi anai-arrebak aurrez aurre daude arrebaren gelan.

—Ez al haiz pozten ni ikusteaz?, zein motatako ongi etorria da hau?

—Beharrezkoa al da hainbesteko zalaparta? Bistan da ez haizela asko aldatu.

—Urteek ez haute asko eztitu hi ere, bada. Hi ikustera etorri naun honaino, eta berri bat ematera.

—Zer duk oraingoan?

—Ameriketara noan. Han bizimodu hobea izango dudalakoan nagon, eta banoa. Hi agurtzeko egun batzuk hemen igarotzea otu zaidan. Ondoren, Baionan itsasoratuko naun Amerikarantz.

—Baina zer arraio egin behar duk han? Noiz sartu behar duk arrastoan, eta behingoz ahaztu buruan duken haize hori?

—Entzun iezadan, behingoz. Azken boladan asko margotzen ari naun, erretratuak egiten dizkinat, batik bat. Senpere izenarekin sinatzen dizkinat. Bezero batek esan zidan Ameriketan makina bat dabilela ni baino gaitasun gutxiago duena. Margotzea izan dun nire betiko nahia; patua zain dinat Ameriketan!

Elbira isilik geratu zen. Halakoa zen Jorge, geldiezina. Hurrengo egunak azkar joan ziren; konturatu orduko heldu zen neba agurtzeko ordua.

Goizean goiz zen, egunak ez zuen argitu oraindik. Prefeteneako sarreraraino lagundu zuen neba.

—Agur, zorte ona izan ezak —esan zion Elbirak. Jorgek, arreba beso artean estutu zuen.

Estratan behera aldentzen ikusi zuen, iluntasunean desagertzen. Agian, huraxe izango zen neba ikusten zuen azken aldia. Une batez, bere ahizparekin gogoratu zen; ahizpa eta neba zituen arren, elkarrengandik zein sakabanatuta bizitzea egokitu zitzairen. Oharkabeen, malko bat zihoakion masailetik behera txirristan. Jada ez zen Jorgeren arrastorik.

Hilabeteak aurrera zihoazen arren, beste aldetik zetozen berriak ez ziren hobetzen. Gerra zeken hark amaigabea zirudien! Elbira denborari eta egoerari ahalik eta etekin handiena ateratzen ahalegintzen zen.

Parisen egon berria zen; ez zen lehenengo aldia, gainera. Parisera egiten zituen bidaia haietatik indarberrituta itzultzen zen. Azken bidaia honetan aspaldiko lagunak ikusi zituen, haiekin iritziak elkarri adierazteko aukera aparta izan zuen. Telesforo Monzonekin egoteko aukera izan zuen, eta hori beti zen atsegingarria; hura zen gizona hura! Alderdiko beste zenbait kide ere topatu zituen han. Egia esateko, hura zen bidaia haien xede nagusia; alderdiko kideak bildu, eta aberriari buruzko gogoeta egitea, elkar elikatzea. Azken bilera horietan, hala ere, Elbirak gerra amaieraren itzala sumatu uste zuen lagun askoren iritzietan.

Bidaia haiek, bide batez, bere beste grina asetzeko baliatzen zituen. Parisen bizi zirenen zenbait euskaldunek zituzten adiskideei esker, une hartan Frantzian ziharduten eskola berritzaileenak zuzenean ezagutzeko aukera izaten zuen. Elbirak, beraz, ez zuen une bat ere galtzen Parisera joaten zenean. Alderdiko eginbeharrek uzten zioten denbora pedagogia aurrerakoienetan eta berritzaileenetan lan egiten zuten eskolak bisitatzeko baliatzen zuen. Hura zen gozamina sentitzen zuena, lan egiteko modu hura zuzenean ikusteko aukera izaten zuenean! Gauza bat zen teoria haiek guztiak liburuetan eta aldizkarietan irakurtzea eta bestea bizi-bizian ikusi ahal izatea. Halakoetan mila galdera izaten zituen prestatuta pedagogia haietan murgildurik lan egiten zuten irakasleentzat; izan ere, Elbiraren jakin-mina agortezina zen, eta zein aukera aproposagoa buruan jira-biran zebilzkion ideia haiek guztiak ordenan ipintzeko zuzeneko eragile haiek ematen zizkieten orientabideak baino? Nork azalduko zion hobekiago liluragarriak iruditzen zitzaizkion pedagogia ikuspuntu eta metodologia haien nondik norakoak eta zailtasunak?

Lehen aldiz eskola haietan izan zenetik amets bat ernetzen ari zitzaion gogoan: esperientzia haiek guztiak Euskal Herrian abian ipintzea. Horretarako, pedagogia modu haien barrunbeak ongi ezagutu behar zituen. Bazekien, hala ere, irakurritz soilik ez zuela hori lortuko; gauza bat zen teoria eta bestea hurrekin hura gauzatzea. Beraz, Elbira irrikaz izaten zen Parisera joateko, hilabetetan irakurritakoak ikusteko eta argitzeko. Pixkaka ametsa gorpuzten ari zela sumatzen zuen. Gainera, bazekien izango zuela nahikoa indar eta adore hori guztia martxan ipintzeko... Arian-arian lortuko zuen. Jada ipinita zeuzkan lehen oinarriak Saran egiten ari zen lanarekin. Erbestean egiten ari zen denbora ez zen, beraz, alferrik galdutako denbora.

Orixerekin Saran

—A, Elbira! Hemen al haiz?, *Orixe* hemen izan dun arratsaldean, eta hitz galdetu din. Pilarrekin, On Joxemiel Barandiaranen ilobarekin, mendi buelta bat egitera joana hintzela esan zionat. Bihar itzuliko dela esateko mandatua eman zidan. Afaritan hastera gindoazanan, ba al hator? —esan dio Pilarrek, Prefeteneako etxeoandreak.

—Berehala naiz zuekin —erantzun dio. Eskailerak binan-binan igo ditu, eta laster batean egin du bere gelarainoko bidea. Orixeren etorreraren albisteak aztoratu egin du, ez du nahi inor ohar dadin. Leihotik egunaren azken argi printzak ikusiz, arnasa sakon hartzen ahalegintzen da. Handik pixka batera bihotz taupadek ohiko erritmoari heldu diote, inor ez da ohartuko Orixeren ikustaldiak sorrarazi dion asalduraz.

Erbesteratu asko batera eta bestera ibiltzen ziren, eta ibilera horretan Sara izaten zuten pausagune. Sarara etorri gero, Prefeteneatik igarotzea ezinbestekoa zen ia. Bestalde, Prefeteneako ateak zabalik izaten ziren bertaratzen ziren euskaldun guztientzat. Horrek, lehendik ezagutzen zuen jendeaz gain, erbesteko urte haietan jende asko ezagutzeko aukera eman zion Elbirari. Denen artean bazen bat bereziki estimatzen zuena, Nikolas Ormaetxea *Orixe* zen, ordurako idazle eta poeta ospetsua.

Elbirak gerra aurretik ezagutzen zuen Orixe, *El Dia* egunkarian idazten baitzuten biek. Ander Arzelus (*Luzear* ezizena erabiltzen zuen bere idazlanak sinatzeko) 1931. urtean Euskal Orria sailaren arduradun izendatu zuten. *Luzear* berehala jarri zen harremanetan Elbirarekin. Ordurako Elbirak hamaika lan eginak zituen *Argia*-rako eta beste hainbat argitalpenetarako. Arduradun berriak bere sailean idaztea nahi zuen. Elbirak, zalantzak izan zituen arren, Luzearek onartu zion baldintza jarri zuen: *IRA* ezizenez sinatuko zituen bere lanak, ordu arte bezala.

Ordutik aurrera zenbait idazlan argitaratu zituen atal horretan. Ira ezaguna egin zen euskal letren munduan. Idazlan haietako hainbat euskararen ingurukoak ziren, gai hori oso maitea baitzuen. Eta bide horretan egin zuen topo Orixerekin. Garai hartan, Orixe Euskaltzaindiko Bilboko bulegoetan egiten zuen lan, euskararen inguruko aditua zen. Idatzien bidez egin zuten ezagutza adiskidetasun handi bilakatu zen. Orixe euskararen inguruan zuen ezagutza miresten zuen Elbirak; gai zen orduak eta orduak pasatzeko harekin hitz egiten. Euskararen inguruko ezagutzan amaierarik ez zuen iturria aurkitu zuen Orixerengan.

Orixerekiko harremana ez zen erraza, hala ere; izaera garratzekoa eta gogorrekoa izaki. Berehala hartu zion tamaina Elbirak; izan ere, ez ziren hain desberdinak bata bestearengandik. Agian, sakoneko antzekotasun hark sortu zuen bien artean jaio zen kimika berezi hura.

Bestalde, erlijioa zuten beste elkargunea. Orixe, Elbiraren gisan, sinesmen sakonekoa zen, fededun sutsua; jendeak integrista gisa ikusten zituen taldekoak ziren biak.

Hitza bete zuen Orixe. Agindu zuen bezala, hantxe zen berriro hurrengo egunean, Prefetenean. Elbirak ez zion ongi etorri sutsurik egin, barruan, agian, bestelakorik sentitzen bazuen ere.

Zenbait egunez Sarako inguruetan barrena ibili ziren bi lagunak. Haien elkarriketek ez zuten amaierarik. Aberri Eguna elkarrekin ospatzekotan geratu ziren: Pilar eta Antonio senar-emazteekin Ori mendira igotzea erabaki zuten. Elbira maiz joana zen hara Donostian bizi zela, baita Pirinioetako beste mendi batzuetara ere; oso gogokoa zuen mendia. Ez zuen edonork hain erraz utziko atzean malda gora! Aberri Egunean oso goiz abiatu ziren laurak. Elbirak ohi zuen bezala kaikua eta txapela zeramatzan jantzita, eta abarkak, noski. Oriren gailurretik, Elbirak Euskal Herriko lurrak begiztatu zituen; han goitik ezin zitekeen pentsatu ere egin zenbat nahigabe zegoen lur haietatik barrena barreiatu. Eta zenbat min eragiten zion hark guztiak bihotzean... Ondo-ondoan zuen Orixe, hura ere bere pentsamenduetan murgildurik. Lekurik ba ote zuen Elbirak inoiz pentsamendu haietan? Ez zion sekula galdetuko, eta berak ere ez zion inoiz hark bereetan zuenaren berri emango.

—Egingo al diguzu argazki bat, mesedez? —galdetu zion Antoniok Ori gainean topatu zuten tolosar ezagun bati argazki makina luzatuz.

Elbirak ez zituen gogoko argazkiak; egia esan bere burua besteen aurrean agerian utz zezakeen ezer ez zuen gogoko. Hala ere, egun hark merezi zuela pentsatu zuen. Orixeren behealdean eseri zen; haren alboan, lagunei begira. Orixeren ezkerretara kokatu ziren Pilar eta Antonio.



Gerra galdua

Irratia goizetik ari da berria ematen: gerra amaitu da. Francoren ahotsa behin eta berriro entzun du lau haizetara berria zabalduz. Garaileen harrokeria dario. Ez du gehiago entzun behar izan euskaldunek gerra galdu dutela jakiteko. Udaberriko egun euritsu bat da, 1939ko apirilaren lehenengo hura.

Zapore gazi-gozoa jabetuz doa bere baitan. Gelatik irten, eta eskailerak jaitsi ditu, astiro. Sukaldean Labaiendarrak daude beste hainbat euskaldunekin batera. Guztiak irriak dioenari adi daude. Tristura pausatua da guztien aurpegietan; garaituen apaltasuna.

—Eta orain zer gertatuko da? —ausartu da norbait galdetzera. Ez du erantzunik jaso.

Egunen joana astun bilakatu da. Gerra amaierak etxera bueltatzea ekarriko zuela pentsatu zutenak erdi erdi zeuden oker. Gerraren amaierak ondorengo beste gerra bat ekarri zuen euskaldunentzat; amaigabea zirudien iluntasunari ilunpea gailendu zitzaion. Gerra aurretik egin zituzten lorpen guztien arrastoak ezabatu zituzten. Euskara galarazita zegoen, eta haren alde egiten zuenak biziarekin ordaintzen zuen. Gerra ofizialak krudelagoa izango zen beste gerra bati eman zion bidea. Etsipena jabetu zen erbestean ziren euskaldunetz. Etxera itzultzeko aurreikusitako zuten data eperik gabe luzatu zen.

Hala ere, Elbira ez zegoen prest erbesteko urteetan gorpuztuz joan zen ametsa zapuzten uzteko. Pedagogia aire berri haiei ezkutuan lekua egiteko bideak diseinatzen hasi zen.

Gerra amaitu arren, erbesteratu kopurua handituz joan zen, lehengo erbesteratuei gerra ondorengo erbesteratuak gehitu baitzitzaizkien. Erbesteratu berri horien ahotik izaten ziren egoeraren jakitun. Gauzak okerrera zihoazen euskaldunentzat.

Gerra ondorengo hilabete haietan Elbira beste aldera pasatzen hasi zen. Mendian barrera Etxalarrera joaten zen, maiz. Bidaia motza izan arren, arriskutsua zen, baina Elbira iaioa zen mendian.

Ezinegona hasi zitzaion Elbirari. Sarako bakea jasanezina egiten hasi zitzaion. Lan handia zuen egiteko, eta denbora galtzen ari zela sentitzen hasi zen. Urtetan planifikatutako jardun pedagogikoa martxan jartzeko ordua heldua zela sumatzen zuen; egunetik egunera indartsuagoa egin zitzaion sentimendu hori. Bestalde, ez zuen uste bere kontra joko zutenik, ez hasiera batean behintzat.

Goiz batean, gelako gauzak biltzen hasi zen. Ez zeuzkan gauza askorik: zenbait arropa, urte haietan inguratu zituen liburuak eta ihesean ekarritako gauza gutxi batzuk. Haien artean zegoen *Xabiartxo*, Lopez-Mendizabal' dar Ixaka'k idatzia 1923. urtean, umeei euskaraz irakurtzen erakusteko; altxorretan maiteena zuen hura Elbirak.

Kutxa fototeka



Kutxa Fot.

Gauza guztiak bildu zituenean, behera jaitsi zen, etxeokak agurtzera, bezperan Pilar eta On Joxemielekin egin zuen modura.

Antonio Maria eta Pilar behean topatu zituen. Ez zituen argibide asko eman behar izan, maleta ondoan ikusi ziotenean sumatu zuten zein zen Elbiraren asmoa. Elbirak eskerrak eman zizkien, eta haiek, berriz, zorte ona opa zioten.

Jadanik kozkortzen hasiak ziren Ramon eta Matxin jolasean topatu zituen etxe atarian. Donostiara zihoala esan, eta urte haietan ikasitakoak ez ahazteko eskatu zien. Musu bana eman zien masailean. Huraxe izan zen agurrik latzena, bihotzez maite baitzituen haurtxo haiek.

Maldan behera abiatu zen, ez zuen atzera begiratu, erabakia hartuta zegoen. Aurrera begiratu zuen; lehenengo erronka muga gurutzatzea izango zen. *Xabierto* liburua maletatik atera, eta jaka barruan gorde zuen, bularraren kontra estututa; korrika alde egin behar bazuen, maleta bota beharko zuen, baina ez zegoen prest liburua galtzeko.

Hurrengo goizean iritsi zen Irungo nazioarteko zubira. Zubian Donostiara joan ahal izateko paperak konpondu zizkion Paco zuen zain. Berehala ezagutu zuen: Gregorioren lehengusu erlojugilea zen, baina ez zen bakarrik etorri. Hasieran ez zuen neskatila hura ezagutu, ihes egin zuen goizaldean kaira lagundu zuen Geno zen, 17 urteko neska lirain bilakatua.

Garai ilunak

Mugan militar asko zegoen, denek armak zituzten eskuetan. Urrutian ikusten zituen Paco eta Geno, haiengana jo zuen pauso ziurrez, militar haiek guztiak existitu ere egingo ez balira bezala.

Haiek ez ziren ia ohartu aldamenean igaro zitzaien emakume txikiaz. Soldadu batek harengana hurbiltzeko itxura egin zuen, baina emakumea orduantxe elkartu zen bere senarra eta alaba ziruditenekin. Atzera bere lekura itzuli zen soldadua, jende haren jokabideak ez zion imajinarazi ere egin hiru urte zeramatela elkar ikusi gabe.

Genok ez zuen ez besarkadarik ez musurik jaso. Ez zituen espero ere. Izeba, oroitzen zuen bezalatsu zegoen, kartoizko maleta marroi hura erdi ezkutuan zekarren. “Asko hazi haiz” hotz bat besterik ez zuen jaso izebarengandik. Han zela ohartu zela adierazteko modua zen, seguruenik. Alboan igaro zenean, izebaren eskua nabaritu zuen bere berokiaren poltsikoan zerbait uzten. Ez zen ausartu ez mugitzera, ez ezer esatera: zer ote zen?

Elbiraren jokaerak ez zuen harritu. Inoiz ez zien maitasunezko adierazpenik egin, ez berari ezta bere nebei ere. Inoiz ez zien musurik eman, inoiz ez zuen barrerik egiten haiekin. Ez zuen ezer partekatzen haiekin.

Irungo zubian bertan topoa izenez ezagutzen den tranbia hartu zuten.

Genok zeharka begiratzen zion Elbirari. Zer sartu ote zion poltsikoan? Zer sentitzen ari ote zen une hartan? Ezer kanporatzen ez bazuen ere, Genok bazekien zirrararen bat nabaritu behar zuela, haiekin berriro elkartzeagatik ez bazen ere, etxean berriro izateagatik behintzat.

Genok, behintzat, nahasian sentitzen zituen urduritasuna, emozioa, izua; baita poza ere, haientzat ez baitzen ahuntzaren gauerdiko eztula Donostiatik irtetea, topoan bidaiatzea edo mugaraino hurbiltzea. Gerrak, zalantzarik gabe, gauza asko aldatu zituen.

Izebaren jarrera hark eta maleta marroiak alde egin zueneko eguna ekarri zioten gogora. Gerra hasi berria zen arren, hilabeteak ziren bazterrak erabat nahasiak zeudela. Txikia zenetik erantzukizun handiei aurre egitea egokitu zitzaion, eta handiegia izan zen 14 urteko neska batentzat egun hartan egokitu ziotena ere.

Ostirala zen. Elbira eta osaba ahapeka hizketan ari ziren sukaldean. Ondoren, Elbira bere logelara joan zen, eta bestetan ez bezala atea erdi irekita utzi zuen. Atearen zirriztutik hara eta hona zebilela ikusi zuen, gauzak biltzen. Handik pixka batera, kartoizko maleta marroia eskuan zintzilik zuela agertu zen sukaldean. Elkarrekin afaldu zuten gau hartan.

Goizaldean esnatu zuen osabak:

—Geno, hator, jaiki hadi. Izebak enkargu bat egin beharra zaukan, eta lagun iezaion.

Aurretik zihoan izeba eskaileretan behera, maleta marroia gabardinapean ezkutatuta zeraman. Kalera irten eta eskuinaldera hartu zuen. Kalean jende gutxi zebilen, beste gauzen artean iluntzen hasita zegoelako. Behaztopaka lortu zuen izebaren alboan jartzea, Portu kalean aurrera zihoazen, kaia aldera.

Ezin zuen ulertu nora joan zitekeen izeba garai hartan bide hartatik, baina ez zen ausartu galdetzera.

Arrantzontzi gorri baten pareraino heldu ziren. Ilunpean ikusi ahal izan zuen han bazela jende gehiago. Zenbaiten aurpegia ezaguna egin zitzaion, izebarekin hizketan ikusiak zituen lehenago. Isilka hizketan ari ziren denak.

Elkar besarkatzen eta agurtzen ari zen jendea. Bazirudien han zeuden batzuk alde egiteko asmoa zutela, eta besteak geratzekoa. Zerbaiten susmoa hartzen hasita zegoen. Izebari begiratu zion aurrez aurre, izu, 14 urte zituen arren ia bere garaierakoa zen. Ez zuen nahi izeba joatea, azken batean noizbait izan ez zuen ama izan zitekeela amesten zuen, ordu arte horrelakorik erakutsi ez bazion ere.

Ingurura begiratu zuen, malkotan bustitako aurpegiek zuzen zebilela baieztatu zioten. Bat-batean hutsa sumatu zuen bere alboan. Elbira arrantzontzira eramango zuen txanelera igota zegoen, beste hainbat lagunekin batera. Arrantzaleak haien zain ikusi zituen arrantzontzi gorriaren bizkarrean. Ez zuen nahi horrela joan zedin, besarkada baten beharrean zegoen, inoiz eman ez zion musua jaso nahi zuen, agur bat gutxienez....

—Izeba! —irten zitzaion eztarri barrutik. Ez zuen erantzunik jaso, ezta begirada soil bat ere.

Nasan zeuden guztietatik agurrik jaso ez zuen bakarra izan zen. Borborka ari zitzaizkion malkoak begietatik. Izeba zen figura beltz txiki hura iluntasunean galtzen ikusi zuen. Irudi hura, ukapen hura, betirako geratu zitzaion gogoan, latzegia, 14 urteko neska batentzat.

Hura izan zen gerrarekin izan zuen lehen harremana. Hurrengo eguna larunbata zen, beste larunbatetan Bretxako azokara joaten ziren baserritarrei barazkiak eroatera edo kaian barrera ibiltzen ziren arrantzaleek ekarritako arrainak ikustera. Baina gerrak hura guztia ere aldatu zuen. Larunbat hartan etxean zeudela aparteko tiro hotsa entzun zuten goiz-goizetik. Geroago jakin zutenez, soldaduak Donostian sartu ziren egun hartan.

Etxeko leiho guztiak ondo itxi eta azkar oheratu ziren, beldurturik. Goizaldera gogor kolpatu zuten etxeko atea. Izaturik altxatu ziren. Atearen beste aldean zalaparta handia entzuten zen, bota hotsa eskaileretan gora. Berririo kolpatu zuten atea bortizki. Osabak zabaldu zien atea. Arropa arrotzak zituen gizon batek zakarki bultzatu zuen osaba etxe barrura. Elbirarengatik galdetu zuten, haren bila zebiltzan. Osabak erantzun zien ez zela etxean. Gizonak haurrak gela batean sartzeko agindu zien beste gizona. Osaba aurretik zutela gelaz gela ibili ziren, baina Elbira han ez zela ikustean alde egin zuten. Gau hartan etxe hartan ez zuen inork lorik egin.

Eta horrela, supituki, ikasi zuten gerra zer zen. Bizitzak, hala edo nola, aurrera jarraitzen zuen. Elbiraren berri gehiago ez zuten izan, inork ez zien esan nora joan zen, ezta etorriko zenik ere. Berak ez zion inoiz inori kontatu arrantzontzi gorriarena, ezta maleta marroiarena ere.

Elbirak alde egin zuenetik, bere gela haien logela bihurtu zen. Hasieran ez ziren ausartzen han sartzeko, baina osabak esan zien aurrerantzean han egingo zutela lo.

Denbora aurrera zihoan, bazirudien gerra betikotu egin zela. Gerrak ekarri zituen aldaketa eta mugetara ohitu behar izan zuten, azkenik.

Bi urte ziren, gutxi gorabehera, Elbira joan zela. Bazkalondoren, ezohiko mugimendua sumatu zuten kalean, etxepean. Ustekabean, etxeko atea bera botatzeko adinako kolpeak entzun ziren. Egoera ez zitzaion ezezaguna egin. Osabak atea ireki zuen, eta ia gainerik pasa zitzaizkion armaz josirik zetozen gizon haiek. Berriketa gutxirekin aterarazi zituzten etxetik, eta eskaileretan gora bidali. Handik, eskaileretatik, ohartu ziren etxea inongo konturik gabe miatzen ari zirela: armairuen kirrinkek, ateen danbatekoek, lurraren kontra kolpatzen zuten liburuen eta aulkien hotsek hori eman zieten aditzera, behintzat.

Soldaduak aspertu zirenean alde egin zuten. Orduan, eskailerak jaitsi zituzten eta etxeko atea parez pare irekita aurkitu zuten, etxe barrua hankaz gora ageri zen. Ez zuten inor eraman, ordea, eta hori pozteko arrazoia zen; ez baitzen askotan gertatzen.

Elbira zen bilatzen zutena, eta beste behin ez zuten aurkitu. Ez zuen ulertzen zergatik ari ziren hainbeste gizon armadun andre txiki haren bila.

Oroitzapen haietan ari zela, aldamenen zuten izebari begiratu zion. Poztuko ote zen gu ikusteaz, pentsatu zuen bere baitarako, soilik.

Elbira, bien bitartean, kezka beteta zihoan, hainbeste urteren buruan zer aurkituko ote zuen kezkatuta. Muga soldaduz beteta ikusteak beldurtu egin zuen. Behatzean beti jantzita zeraman eraztunaz gogoratu zen, gainean zuten lauburuaz, erantzi eta Genoren poltsikoan sartzea dena bat izan zen. Ez zuen arriskatu nahi.

Donostiako Amarako geltokia atzean utzi, eta Foru Aldundiko jauregia inguratu ondoren azken geltokian jaitsi ziren.

Geltokitik atera, eta Paco eta Genori eskatu zien bakarrik utz zezaten. Bakarrik egin nahi zuen etxerako bidea, bere kasa.

Lehenik Kontxako badiarantz egin nahi zuen, hondartza eta itsasoa ikusi nahi zituen, bere itsaso maitea!

Kalean zihoala, berehala konturatu zen kaleen izenak ez zirela lehengoak, aldatuta zeudela. Oraingoek jeneralen izenak zituzten. Gerra, edo, zehatzago esanda, gerra nortzuk irabazi zuten gogorarazten zuten bazter guztiek. Espainiako bandera zintzilik ikusi zuen edonon. Kalean topatu zuen jendea gatzelaniaz ari zen, ez zuen inor euskaraz hitz egiten entzun.

Bat-batean hantxe agertu zitzaizkion begi aurrean Igeldoko mendia eta Santa Klarako uhartea. Gogoratzen zituen bezalakoxeak ziren. Malkoak begi hegira inguratu zitzaizkion; "Etxean, azkenik!" pentsatu zuen.

Alde Zaharreko Fermin Kalbeton kaleko 26. atariaren aurrean zegoen. Zirrara batek bizkarrezurra zeharkatu zion goitik behera. Ezkaratzeko eskailerak azkar igo zituen. Hantxe zegoen etxeko atea. Poltsikotik giltzak atera zituen, sarrailan sartu, eta zailtasun handirik gabe zabaldu zen atea. Bazirudien une bat lehenago irten zela; gauza guztiak gogoratzen zituen tokian zeuden, gogoratzen zituen bezala, berak

alde egin zuenetik denbora geratu izan balitz bezala. Bere logela ere gisa berean aurkitu zuen, utzi zuen bezala, hantxe zeuden bere liburu guztiak, hautsak hartuta.

Kartoizko maleta marroia ohe gainean utzi, eta lanari ekin zion. Lehenik bazterretako hautsak kendu zituen. Hala ari zela ate soinua entzun zuen, Gregorio zen, bere lehengusu maitea, Geno eta bi bikiekin.

—Elbira, etxean haiz azkenean, Jaungoikoari eskerrak!—esan zuen Gregoriok Elbira besarkatuz.

Geno, bitartean, eskuak poltsikoan zituela sartu zen etxean. Ez zuen nahi izebak ikustea zer zeraman hatzean. Topoan ez zen ausartu, baina izeba urruntzen ikusi ahala, poltsikoa arakatu zuen izebak zer utzi ote zion ikusteko; eraztun bat aurkitu zuen. Eratzuna zilarrezkoa zen, eta gainean lauburua zuen. Berehala hatz nagian sartu zuen, neurri-neurrikoa egokitu zitzaion. Hala ere, bazekien hura ez zela izebak egindako oparia, gordeleku gisa soilik erabili zuela. Iritsiko ote zen sekula emakume hura ulertzeraz?

Elbiraren gelako atea zabalik zegoen, guztia txukun eta bere tokian zegoela ikusi zuen. Hura izan zen gela hura ikusi zuen azken aldia, egun hartatik aurrera Elbiraren santutegi bilakatu zen, ez zen inoiz gehiago han sartu.

Elbirak eta Gregoriok orduak pasa zituzten sukaldean honetaz eta hartaz hitz egiten. Elbirak jakin egin nahi zuen: jakin egin nahi zuen nola zeuden gauzak, zertan aldatu zen bizimodua... eta batez ere zein familia eta zein lagun geratzen ziren Donostian, alde egin gabe.

—Elbira, kontuz ibili behar dun —esan zion arduratuta Gregoriok. Gauzak ez zauden alde egin huenean bezala. Gerra galdu genian, eta ordainarazten ari ditun. Inor ez dun ausartzen euskaraz hitz egiten, etxeko babesean ez bada behintzat. Debekatu egin zizkiguten festa eta kultura adierazpen guztiak, eta haienak inposatu zizkiguten. Jaun eta jabe ditun.

—Eta ikastola, Gregorio, zer gertatu duk ikastolarekin?

—Ai ikastola! Esan dinat, ahaztu egin behar dun kontu horiekin guztiekin, hire onerako ari naun. Debekatu zitiztenan denak, itxi. Orain eskola nazionalak zauden, eta erlijiosoak. Denetan gaztelaniaz ikasten dinat haurrek. Gureak egin din!

—Tira, bada, hori ikustear zegok. Erbestetik alde egin nuelakoan, baina, bistan da, etxean ere erbestean jarraitu beharko diat.

—Elbira, benetan esaten dinat. Erne ibili beharra zagon. Begiak eta belarriak dizkinate leku guztietan. Ohituko haiz bizimodu berrira, ahaztu behar ditun lehengo kontu zahar haiek, zinez zionat.

Baina Elbira ez zegoen prest egindako ahalegin guztia ezerezean uzteko. Gainera, ez zen Saratik bueltatu bizitza horretara egokitzeko asmoz, haratago zihoazen asmoak zituen, eta ziur zegoen aurkituko zituela bere asmoekin bat egingo zuten lagunak.

Laster egin zuen topo lehenagoko lagunekin. Hari eta honi bere asmoen berri eman zien; berriro lanean hasteko itzuli zen Donostiara, irakaskuntzan hasi nahi zuen, baina euskaraz, noski!

Ideiak garbi zituen, bazekien zer nahi zuen eta nondik hasi. Gainerakoa, bere gisan etorriko zela ziur zen; gainera, berak bazuen adorea borroka hari heltzeko, bakarrik egin behar bazuen ere.

Erbestean eginiko urteetan landuz joan zen egitasmoa martxan jartzeko tenorea heldua zela sumatzen zuen bere baitan. Orain, hura guztia nola jantzi pentsatu behar zuen, baina, era berean, ziur zen aurkituko zuela hain luzaroan amestutakoa gauzatzeko modua. Gainera, aberriak inoiz baino beharrezkoagoa zuen.

Itxaropena, azkenean

Egunak bazihoazen egunen atzetik. Elbirak bere egitasmoa noiz gauzatuko borrokatzen jarraitzen zuen, baina, egia esan, gauzak ez ziren samurrak gerra ondorengo Donostia eta Euskal Herri hartan.

Elbirak irakurtzen eta bere burua prestatzen ematen zuen eguna. Igandeetan, Alde Zaharreko Santa Maria elizan meza entzun eta aspaldiko lagunekin mendi aldera egiten zuen. Irteera haiek ziren, beharbada, gerra aurreko bizimodua oroitarazten zuten bakarrak. Zer nolako arnas berritua!

Lagun zaharrak biltzen ziren Donostia inguruko gailurretan. Lehen ikusi batean, mendiko jantziekin jantzita eta makilak eskutan zituzten jende multzoa ikusita gutxi pentsa zitekeen zer zen benetan mendi buelta haietan emaltzen ari zena. Gailur haietan euskara bor-bor ateratzen zen jende haien ezpainenetik. Gailurretik ikusten zen beheko haranetan debekatutako hitzak Euskal Herrian zehar, gailurrez gailur, asaba zaharren hizkuntza zaharra lau haizetara zabaldu nahiko balute bezala.

Zenbaitetan, inork, arropa artean ongi ezkutaturik zeraman ikurriña ateratzen zuen: berehala, malkoak begietara, eta Gora Euzkadi eta irrintziak eztarrietara etortzen ziren.

Hainbeste debekuk ekarritako iluntasunari leihoa parez pare zabaldu, eta argia sartzeko uneak izaten ziren haiek. Eta orduan, hainbeste emozioen artean sortutako une hunkigarri haietan, bizi nahi hark frankismoaren zekenkeria eta indar guztia gainditzen zuela zirudien une haietan, espainolek betirako galarazi uste zuten Euskal Herria errautsetatik berpizten zen.

Zenbaitzuek aberria berreskuratzeko planak egiten zituzten; Alderdia indartzeko estrategiez aritzen ziren besteak; euskarak, berriro ere, zor zuen lekua eskuratzeko bideez hausnartzen zuten beste batzuek; lapurtu zizkiguten komunikabideak, irriatiak, aldizkariak, lekuak azken finean, nola berreraikiko zituzten jarduten zuten askok; Elbirak, bien bitartean, bazekien irakaskuntza euskararen garapenerako giltzarrietako bat zela, eta euskaraz irakasteko bideak diseinatzen jarraitzen zuen.

Igande horietako ibilaldi-bilera haietako batean gertatu zen. Tolosako lagun batek Saratik, Prefeteneatik hain zuzen, goraintziak ekarri zizkion, eta mandatu bat.

Sansinenea sendagileak, Pilar adiskidearen lehengusuak, berarekin hitz egin nahi zuela lehenbailehen.

Jakin-minez itzuli zen Elbira etxera egun hartan: zer nahi ote zuen sendagile hark berarengandik? Ez zegoen prest denbora luzean zalantza harekin bizitzeko. Beraz, handik hiru egunera, hain ongi ezagutzen zituen xenda haietatik barrena, Prefeteneanainoko bidea egin zuen ezkutuan.

Sarari utzi zueneko itxura ederra eta lasaia hartu zion. Prefetenean sartu aurretik, Bidarten sartu-irten bat egin nahi izan zuen. Han topatu zituen On Joxemiel bere paper pila handien artean lanean, eta bere bihotzeko adiskidea, Pilar, haren iloba.

Kuku bat egiteko asmoz joan zen Elbira, bere benetako helburua ez baitzen han. Baina hain zen Bidartekoek zuten jakin-nahia, ezin bada hura neurri batean bederen ase gabe alde egin!

Azkenean, bidea zeharkatu eta Prefeteneako atarian zen. Lehentxeago etxetik irtenda zela irudiko zuen, ate aurrean jolasean ari ziren haur haiek hainbeste handitu izan ez balira. Haurrek berehala ezagutu zuten heldu berria. Bihotzean txukun iltzaturik utzi zizkien hainbeste jakintzen eta balioen jabea. Haur haientzat Elbira altxor kutxa baten antzekoa zen; hura zabaldu, eta berehala inoiz entzun gabeko abesti eta kantu eztiak loratzen ziren bere ezpainetan. Beti izango zuen hark ipuin berriren bat kontatzeko; San Migel, Basajaun edo han-hemengo sorginen batzuen ingurukoak. Gurasoek gain, haren altzoan ikasi zuten hain urrun sentitzen zuten aberria maitatzen. Miresgarria zen beste eskoletako haurrek ikasten ez zituzten gauzak irakasten zituen andereño hura; miresgarria, bai, baina gogorra ere bai, zuzen gustatzen zitzaizkion gauzak, eta diziplina ederki aplikatzen zuen.

“Nola handitu diren nire umetxoak!”, pentsatu zuen Elbirak. Besarkatu eta buruan ferekatu zituen. Hala ere, jakin-minari ezin zion eutsi jada, eta egun hartako oparitxo beranduagorako utzi beharko zutela adierazi zien haurrei.

Berehala zen Pilar Sansinenearen eta haren senarraren aurrean.

—Ez ninan uste hain azkar etorriko hintzenik, Elbira —esan zion zuzenean Pilarrek.

—Sinets iezadan enkargua jaso eta ahal izan dudan azkarren etorri naizela.

—Hara, zuzenean harira joango natzain. Gogoan al dun nire lehengusu Sansinenea pediatra? Oroitzen al haiz maiz aipatzen zituen egitarrez? Hazpamen bizi ziren haiez?

—Noski. Haren ardura handienetakoa zen egitarren seme gazteena, atzeratua jaio zen haur hura.

—Bai neska, batzutan Jaungoikoak horrelako lanak bidaltzen zizkigun. Erbesteko bizitza zail honetan atzeratua jaio behar txiki hori! Baina zer diren gauzak. Nekez topatuko zuten haur horretaz hainbeste kezkatuko zen sendagilea, hainbeste saiakera eta bisita egingo zizkiona behintzat! Zer ez ote du asmatu nire lehengusu bedekintu horrek haur horren bizitza samurragoa egiteko, eta familia horri laguntzeko...

—Halaxe da, bai. Askotan pentsatu izan dut zenbateko puska hartu ote dion bihotzean Migelmari txikiak! Baina, horrek guztiak, zer ikusia du nirekin?

—Antza, egiatarrak Donostiara joatekoak omen ditun. Horren inguruan hitz egin nahi din lehengusuak hirekin.

Elbirari bihotza salto batean hasi zitzaion. Suma zezakeen zer izan zitekeen hura guztia, baina sendagilearengandik zuzenean jakin arte itxarotea zela zuzenena iritzi zion.

Ez zuen asko itxaron behar izan sendagilearen benetako nahiak ezagutzeko. Elbirari esan zionez, haur harengatik bere esku egiteko zegoen guztia egina zuen. Elbira ziur zen horretaz!

Sansinenearen iritzi, handik aurrekoak hezkuntza arlotik egin beharko ziren. Sendakuntzak gaina joa zuen kasu hartan.

Egiatarrekin luze hitz egina omen zuen Donostiaratzeaz. Migelmarik lehenbailehen irakasle baten beharra zuen, eta lan horretarako Elbira zela ezagutzen zuen pertsonarik egokiena adierazia zien gurasoei ordurako.

—Zer diozu zuk, Elbira? —galde egin zion bat-batean sendagileak. Ausartuko ote zinake?

Elbira ordurako oso urrun joana zen bere pentsamenduetan. Bazekien hainbeste denboran itxaroten ari zen unea iritsia zela. Bere helburuak urratzen hasteko bidea izan zitekeela batetik, eta sendagileak botatako desfioa bestetik nahikoak izan ziren.

—Ados. Noiz hasiko gara? —erantzun zion Elbirak, hainbeste desiratzearen ondorioz ezaguna egin zitzaion egoera hartatik.

—Donostiara heltzen direnean, eta han kokatzen direnean jarriko dira zurekin harremanetan. Jakingo dute zu non aurkitu.

—Hala bedi! —esanez agurtu zuten elkar.

Lehenengo ikaslea

Elbirak ez zuen denbora askoan itxaron behar izan. Uste baino lehenago "Migelmari Egiaren aita naiz", esanez hurbildu zitzaion gizaseme bat. Eskua luzatu zion Elbirari, goitik behera aztertzen zuen begirada sumatzen zuelarik bere baitan.

—Zure nahien jakitun naiz, eta prest nago zure semearekin lanean hasteko —esan zuen zuzen Elbirak.

Sansinenea sendagileak deskribatu zuen bezalakoa zen: zuzena, zorrotza eta bere buruaz ziurra. "Emakume txiki batekin egingo duzu topo. Ahula eta hauskorra irudituko zaizu. Hala ere, ez zaitez lehen uste horrekin geratu. Badaki zer nahi duen, eta gogor borrokatuko da bere helburua lortzeko. Ezagutzen dudan emakume kementsuena eta adoretuena da. Zuek eta zuen seme Migelmarik behar duzuen, hain zuzen", esan zion.

Egiatarren etxean hasi zen lanean Elbira Migelmarirekin, 1942. urtea zen. Bere buruarekiko erronka bikoitza izan zen. Gerra ondorengo urte ilun haietan euskarazko irakaskuntzan egiten zen lehen ahalegina zen, alde batetik, eta behar bereziak zituen haur batekin lan egiten zuen lehen aldia zen, bestetik.

Edukiak emateko modua eta lan egiteko era egokitu behar izan zituen Elbirak. Lanak ez zuen beldurtu, eta laster moldatu zen garai eta egoera berrietara.

Euskara eta euskal munduarekin zerikusia zuen oro isilpekoa zen. Eta isilpekotasun horretan giro berezia sortua zen, konplizitate handiko giroa. Berriak erraz zabaltzen ziren isilpekoan zebiltzanen artean, eta euskara maite zutenen artean zitzu bizian jakin zen Elbiraren lanaren berri.

Luze gabe Mari Paz Sansinenea ikasle gisa hartzeko proposamena iritsi zitzaion. Asko ziren beren seme-alabak euskaraz hezteko amesten zuten gurasoak, baina ordu arte ez ziren ausartu haien nahia plazaratzen, eta gutxiago bere asmoa gauzatzen. Elbirak zabaldu zuen bidea.

Hasieran ikasle bila aritu behar izan bazuen ere, laster konpondu zen arazoa. Euskal giroko Donostian ezaguna zen Elbira, eta ezagutza horrek emaitzak eman zituen. Erraza gertatu zitzaion ikasleak aurkitzea familia ezagunen artean, eta baita eskolak emateko etxeak aurkitzea ere.

Hainbeste denboran maiz erabili zituen ideia haiek guztiak gorpuztuz zihoazen. Gerra aurreko esperientziak eta erbesteko urteetan lortutako prestakuntza oso baliagarriak zitzaizkion. Baina helburu hura lortu ahala bide berriak jorratzeko gogo bizia piztu zitzaion. Edo bide haiek urratzeak zekarren beste berri haien premia?

Ikasleak ugaritzeak antolaketa berria eskatu zuen. Etxez etxe ibiltzeari utzi, eta ikastola zabaldu zuen Fermin Kalbetoneko 26.eko bere etxean. Lan horretarako egongela egokitu zuen.

Hurrengo urtean, 1947an, Gregorioren ilobek, Genok eta bi neba bikiek Ameriketara joatea erabaki zuten; anaiek 24 urte zituzten eta ostalaritzan aritzen ziren. Baltimorerara joan ziren. Genok, berriz, 25 urte zituen eta 18 urte zituenetik Donostiako oso goi mailako etxeetan ingeleseko klaseak ematen jardun zuen. Hura New Yorkera joan zen.

Etxean bakarrik geratu zen Gregoriorekin, hark Foru Aldundian lan egiten zuen. Oso maitea zuen arren, nahiago izan zuen bakoitzak bere bizitza egitea. Gisa horretara egin zuten hasieratik.

Etxeko lanez arduratzeko, berriz, neska bat hartu zuen etxean: Ijini, Etxalarkoa.

Lanak ez zuen ordurik, eta ordu guztiak lanerako zituen. Etxeko martxa Ijinirene esku utzi zuen. Etxalartik neskame gisa ekarri bazuen ere, laster bere konfiantza osoa bereganatu zuen. Ijini maiteagatik izan ez balitz...

Ilobak Ameriketara joan zirenean etxe osoa bihurtu zen eskola. Zein bitarteko egokiagorik lurruntze prozesua irakasteko etxeko sukaldea eta bertako pertzak baino?

Bazuen buruan kezkatzen zuen arlo bat. Bere bidea jarraituz, Donostiako beste zenbait auzotan etxe-ikastolak sortzen ari ziren. Berak ere geroz eta eskari gehiago jasotzen zituen, eta jada ezin zien guztiei erantzun. Egunean hiru talde zituen; bi goizez eta bat arratsaldez. Migelmari Egiarekin jarraitzen zuen, eta gainera helduak gau-eskolan!

Lana handia zen, dudarik gabe, baina Elbira pozik zegoen, hainbeste urtez itxaron zuen hura gauzatzen ari baitzen. Baina nola erantzun behar zien non-nahitik sortzen zitzaizkion eskari haiei guztiei?

Kezka hari irtenbidea topatu nahian zebilela, irakasle izateko ikasten ari ziren bi neska gazte hurbildu zitzaizkion; 1952-1953 ikasturtearen amaiera zen. Bi neska haiek berarekin jarduteko eskaera egin zioten; bere lan egiteko modua hurbiletik ikusi eta ikasi nahi zuten. Elbirak erronka berri hura onartu zuen, baina bere baldintzak onartzekotan.

Egun osoz izaten zituen etxean, zenbaitetan gaueko hamar eta erdiak arte. Ikasturte osoan irakasle bera izaten zuen praktiketan.

Egia esan, laguntza handikoak gertatzen zitzaizkion, ikasleekin erosoago aritzeko beta eskaintzen baitzioten. Ijini, bere bihotzeko Ijini, hasia zen zenbait arratsaldez laguntzen. Aspaldi igarria zion haurrekiko zuen zaletasuna eta haiekin aritzeko iaioatasuna.

Ateak zabalik dituen eskola

Eskola eredu tradizionalarekin puskatu behar zela sinesten zuen, bide berriak urratu behar zirela. Eta horretan ari zen buru-belarri, nahiz eta jakin garaiko irakasle askok eta jende askok, oro har, ez zuela begi onez ikusten bere lana. Elbirak neskak eta mutilak elkarren ondoan hezten zituen, berdintasunez, pedagogia eta metodologia sistema berritzaileenak aplikatzen zituen, eta batez ere eskolako atea bizitzari zabaltzeko zizkion. Eta hori guztia euskaraz egin zuen.

Donostiak bitarteko ezin hobea eskaintzen zion edozer irakasteko. Ostegun arratsaldero Urgull mendiko gaztelura igotzen zituen ikasleak. Handik, liburuetatik baino egokiago ikasten zuten zer zen irla bat, edo itsasadarra, inguruko mendiak.... Kalera irten eta ingurukoaz gozatzen eta ikasten irakasten zien Elbirak bere ikasleei. Zenbat hosto eta animalia ez ote zituzten ezagutu eta bildu irteera haietan?

Baina irteeren artean maiteena zuena Mañura egiten zutena zen. Mañua Bermeoko auzoa izaki, Sollube mendian aurkitzen zen. Hara bidalia zuten erretore Gotzon Garitaonaindia, aspaldiko laguna eta bera bezala idazlea zena.

Gotzonek hitz egin zion lehenik Bizkaiko amamari buruz, Eskola Mendizabal Imatz-i buruz, alegia. Erretorea harekin bizi zen Arizaletarrena baserrian, eta euskara zuen hizkuntza bakarra 106 urte zituen amamak.

Txunditurik geratu zen amamaren ahotik zerion hitz-jarioa entzun zuenean. Ez zuen sekula horrelako euskara garbirik entzun. Berehala otu zitzaion bere ikasleek

euskara molde hura entzun eta ezagutu behar zutela, euskalkiak ulertzeko eredia zela.

Laster batean ekarri zituen ikasleak Mañura. Goiz abiatu ziren Donostiatik Bilbora doan trenean. Bermeora heldu eta autobusa hartu zuten. Azken zatia, berriz, oinez egin zuten. Bidea luze samarra bazen ere, merezi izan zuten. Mañuko bazterrak alaitu zituzten haurren algarek eta kantuek, eta ezagutzen ez zuten euskalki baten eredu biziak gozatu zituzten haurren belarriak.

Irteera haren ondotik, beste sei ere egin zituen gutxienez. Amamarekiko mirespena geroz eta handiago bilakatu zen.

Kezka handia zuen bere ikasleek euskara txukuna ikas zezaten; euskara maitatzen irakatsi nahi zien.

Hainbatetan lagunak gonbidatzen zituen gelara, haurrek euskara entzun zezaten. Zenbat aldiz ez ote ziren etorri Nemesio Etxaniz eta Oiartzungo On Manuel Lekuona bere etxera haurrei ipuinak kontatzera eta abestiak kantatzera!

Gainera, laguntza handia eman zioten abestiak eta ipuinak asmatzen eta egokitzen.

Behinola, Pilar Barandiaran agertu zen etxean. Mira egiten zion hika hitz egiteko zuen trebetasunari. Bisitan joan zitzaion lagunari aulkia eskaini, eta ikasleei inguruan esertzeko esan ondoren, hitz egiten hasteko eskatu zion lagunari.

—Baina ez al duzue lanik egin behar?, ez nizueke enbarazurik egin nahi! —erantzun zion Pilarrek ahoa bete hortz.

—Hik eta nik hitz egin behar dinagu hauen aurrean! —esan zion, ikasleei hika entzuteko aukera paregabea eskaini nahirik.

Urteak abiada bizian zihoazen bata bestearen atzetik. Egunak lanean ematen zituen goizetik gauera. Igandeetan eta jai egunetan euskarazko meza entzuten zuen Donostiako Alde Zaharreko Santa Maria elizan. Ondoren, kaikua soinean eta txapela buruan zituela mendira abiatzen zen; Orira joatea maite zuen, baita Pirinioetara joatea ere. Natura maite zuen biziki. Etxeko sarrerako kuxtaren gainean maiz izaten zituen igandean mendian bildutako basa-liliak.

Zenbaitetan, Iparraldera egiten zituen txangoak, antzerkiak ikustera, jaietara edo mendira. Irteera horietan ikasle helduak izaten zituen lagun sarritan.

Azken aldian izaten zuen beste eginbehar bat. Lazkaoko beneditarrek gonbita egin zioten igandeetan euskarazko eskolak emateko. Ohi zuen moduan, gogotsu eman zien baiezkoa. Bestalde, Orixe Ameriketatik itzulia zen, eta jakinaren gainean zen Lazkaora joana zela beneditarregana, han bere azken lana amaitzeko.

Ez zuen sekula ahaztuko igande hura. Igandero bezala, meza entzun ondoren, Beasainera joateko trena hartu zuen Donostiako Atotxako geltokian. Beasaindik Lazkaora dauden hiru kilometroak oinez egin zituen. Igande hura berezia zen. Bazekien egun hartan Orixerekin egoteko aukera izango zuela. Urteak ziren ez zuela ikusten; hala ere, bazuen haren berri, idazten zizkion gutunei esker. Bere

aldartea, jarrera, gauzak egiteko erakusten zuen gogoia, sentikortasuna, gaitasun intelektuala... miresten zituen. Orixe poeta eta ikertzaile aparta zen. Elbirak Orixeren poemak edonori irakurtzen zizkion, baina trukatzeko zituzten gutunak erre egiten zituen, ez zuen bat bera ere gorde nahi izan; guztiak erre zituen irakurri ahala. Hala ere, Orixe poeta eta idazlea miresten zituen, baita Orixe gizona ere.

Komentura iritsi zenean, ikasgelara joan zen zuzenean. Han zeuzkan beneditar ikasleak zain. Erraza gertatzen zitzaion haiei euskal gramatika irakastea; ez zituen alferrik pasa hainbeste ordu hurrei gramatika logikaz azaltzen saiatzeko bideak asmatzen. Aditzaren irakaspenaren konplexutasuna gainditzear zegoen, asmatu zuen NOR-NORI-NORK sistemari eta Valverde dek diseinatu zuen aditz gurpilari esker. Irakasteaz gain, asmakizun hauen baliagarritasuna ikusteko aukera zuen.

Egun hartako eskola bukatu zenean, Orixeren mezu bat jaso zuen; ikustera joan zedin erregutzen zion. Bihotzak jauzi egin zion hezurrezko kaiolan.

Eskuko mugimendu azkar batez ileak atondu zituen mototsean. Dotore janzteak atsegin zuen, eta egun hartan apain zegoen, zituen jantzi eta zapata hoberenak jantzita.

Aita Maurok lagundu zuen Orixeren gela aurreraino. Ukabilaz atea jo zuen: atearen beste aldetik “aurrera” esaten zion ahotsa ezagutu zuen, ez zuen zalantzarik, *Orixe* bera zen.

Ateari bultza eta aurrera egin zuen. Orixe ohean etzanda zegoen; bizkarrean zuen gaitzak eragiten zion minak aurrera egin zuen urte haietan. Zahartuta ikusi zuen.

—Eguerdi on, Elbira! —esan zion Orixe, eskua luzatu eta gerturatzeko keinua egiten zion bitartean.

—Baita hiri ere —erantzun zion Elbirak, urduritasunari ezin eutsiz.

—Baninan hi ikusteko gogoia, baina minak jota nagon ohe honetatik mugitu ezinik. Komentura etortzen hintzela jakiteak pozez bete nindinan. Jakin bezain laster eskatu ninan hi niregana ekartzeko.

—Bai, ni ere asko poztu nauk hi hemen hagoela jakiteak; hartara, aditzaren irakaspenaren gainean proposatu dudanaren gainean luze mintzatzeko aukera izango diagu, eta euskararen bateratzearen inguruan pentsatzen ari direnaz. Zer deritzok?

—Ondo da, hala nahi badun.

Luze aritu ziren euskararen gorabeheraz. Joateko ordua iritsi zenean, gau-mahaiaren gainean zuen liburua emateko eskatu zion Orixe.

—Hauxe izan dinat denbora luzean gordeta hiretzat. Ameriketara nengoela itzuli ninan, eta jatorrizko alea dun. Pentsatu ninan agian gustukoa izango huela, niri behintzat gustatuko litzaidaken hik gordetzea.

Orixeren eskuetatik hartu zuenean, *Urte guziko Meza Bezperak* irakurri zuen urre-koloreko hizkietan.

—Bihotzez eskertzen diat, atsegin handiz irakurriko diat — esan ahal izan zuen.

Donostiarako bidean trenean zihoala hasi zen irakurtzen. Zenbat oroitzapen goxo ez ote zizkieten ekarri hitz eder haiek! Noizbehinka masailean behera irristan zihoazen malkoak xukatzen zituen zapi zuriaren puntarekin.

Urte batzuetako kontua izan zen hura. Igandero, eskolak eman ondoren, Orixenera egiten zuen. Haren osasuna ere hobetuz joan zen, eta komentuko lorategian zehar hizketaldi amaigabeak egiten zituzten, euskararen inguruan biek zituzten ezinegonen gainean, antza.

Ezustekoa

Ez zen sekula oso etxezalea izan. Gaztetatik ikastolak, euskarak eta politikak eskatu zioten militantziak ez zioten denbora gehiegi utzi etxeko lanetan aritzeko. Eskerrak etxean Ijini zuen, bera arduratzen baitzen etxeko martxaz.

Gregorio ere ez zen jada etxean bizi. Ezkondu egin zen 1967an Kontxita Iartzarekin eta ordutik Ijinirekin bakarrik bizi zen.

Urteak ziren ez zuela etxean bazkaltzen. San Jeronimo kaleko Mujika tabernan egiten zuen eguerdi partekoa egunero. Egun hartan ere, betiko legez taberna barruko mahaian zegoen eserita, ateari bizkar emanez.

Bere buruarekin hausnarrean ari zen. Azken aldian, egoera nahikoa mugituta zegoen; 60ko hamarkada aurrera zihoan, eta euskal jendartea aldaketa askoren aurrean zegoela antzematen zen.

Euskal munduaren berpizkundea gertatzen ari zela zirudien, frankismoak Euskal Herriari ezarri zion hilkutxa estuegia suertatzen ari zitzaiola, eta bazter guztietatik lehertzen ari zela. *Ez dok hamairu* taldea sendotzen ari zen, eta bide berriak zabaltzen ari ziren kultur esparruan; Euskaltzaindia euskara suspertzeko neurriak aztertzen ari zen, horien artean Euskara Batuaren kontu hura guztia; Ikastolak sendotzen ari ziren herriz herri, eta geroz eta haur gehiago ziren heziketa euskaraz jasotzen zutenak; ETA erakundea EAJtik sortutako taldea izatetik borroka armatuaren bidea jorratzera igaro zen; Ikurriñak agertzen hasi ziren herrietako gain askotan; eta haietako ekimen askotan berak hezitako gazteak zebiltzan. Azken finean, aberriarekiko maitasuna irakatsi zien guztiaren gainetik.

Haatik, ez zegoen pozik; ez zituen begi onez ikusten eztanda horiek guztiak. Edozeren gainetik aberria maite zuen berak ere, eta bere alde lan egin eta borrokatu zen bizitza osoan; hala ere, ez zuen ikusten hura zenik bidea.

Berriek geroz eta gehiago atsekabetzen zuten; mina zuen barruan. Buruhauste horiek guztiak zuzenean eragiten ari ziren bere osasunean, ez zuen jateko gogorik, eta oso aiurri txarrekoa zebilen. Bakardadea sumatzen hasia zen gero eta indar handiagoarekin.

Burutapen haietan murgildurik zebilela, hotsa sumatu zuen bere atzean. Norbait iritsi berria zen tabernara, ahots hura ezaguna egin zitzaion...

“Elbira!” entzun zuen ozen. Burua bihurtu zuen. Sartu berriak diosala egin zion eskuarekin. Tabernako bezero guztiak haiei begira zeudela ohartu zen. Ez zitzaion batere gustatu nabarmen geratze hura. Iritsi berriarengana zuzendu zuen begirada. Beltzez jantzita zegoen goitik behera, haren kapela beltzak ematen zuen gehien atentzioa, ordea. Kanpotarra zirudien, buhamea. Kapela beltzaren hegala zabalen azpian ezagutu zuen; neba zen, Jorge.

“Hauxe bakarrik behar nuen zizareak nahasteko!” pentsatu zuen bere artean.

Heldu berria zuzenean Elbirengana joan zen.

—Nire arreba Elbira, New Yorketik natorren hi ikustera.

Baina zein aurpegi dun hori, ez al haiz pozten ni ikustez? Hainbeste urteren buruan ongi etorri hau merezi al dinat? —galdetu zion nebak tabernan zeuden guztiak entzuteko moduan.

—Mesedez, hitz egin ezak isilago, gainerakoei bost axola zaiek nondik eta zertara hatarren, eta ken ezak kapela!

—Bistan dun beti bezain ezti jarraitzen dunala.

Aurrez aurre eserita zeuden bi anai-arrebak. Jorgek beti bezain berritsu jarraitzen zuen. Ameriketako ibilerak azaltzen ari zitzaizkion. Ez zitzaion hain gaizki joan, urte haietan nahiko ospea lortua zuen erretratugile gisa; Ford presidenteari erretratua egin omen zion, eta baita Belgikako Fabiola erreginari ere.

Ameriketatik Portugalera egin omen zuen, Estorilera, hain zuzen. Ondoren, Lisboan, Lazkaoko famili batekin egin zuen topo. Famili horren laguntzaz erretratu asko egin zituen, diru asko balio zuten erretratuak.

Elbira zain zegoen, susmatzen zuen zein zen kontu haren guztiaren amaiera.

—Beraz, lortu duk nahi huen a egitea. Marraztu nahi huen, eta marraztu egin duk, arrakastaz gainera.

—Bai, hala da. Baina amaitu da. Estorilen marrazteko tresna guztiak saldu nizkion lazkaotar bati, ez dut gehiago marraztu nahi.

Antza, onenak emanda zetorren, egingo luke ondasun guztiak xahutuak zituela, gainera.



Elbira: irakasle eta laguntzaile.

—Bolada batean hirekin geratzeko asmotan etorri naun, Elbira. Onartuko naun hire etxean, ezta?

Nola esan ezetz, azken batean neba zuen.

Nebak ez zion traba handiegirik egiten etxean. Ez zen inon oharkabeko gertatzen. Barrua irakinarazten zion horrek.

Eguerdi hartan Mujika tabernarantz abiatu zen, egunero ohi zuen bezala. Zirimiri itxia ari zuen; ez zebilen inor Alde Zaharreko kale haietan barna. Mongomeria lepo inguruan estutu zuen esku batez, bestearekin aterki beltzari tinko heltzen zion bitartean. Ikatz kaleko ertzean ezkererantz hartu zuen, begi-bistan zuen tabernako atea, harantz abiatu zen pausoa arinduz. Metro batzuetara hurbildu zenean, taberna barrutik zetozen oihuak iritsi zitzaizkion. Bazekien ongi, bai jakin ere, nork eginak ziren. Sabeletik gora zetorkion sua nabaritu zuen, hura gehiegizkoa zen!

Atea zabaltzen ari zela Jorgeren barre-algarek kolpatu zuten, mailukadak bailiran. Sutan goritutako eztena nabaritu zuen barruan.

Jorge telebistari espantuka ari zen, tabernako bezero guztiak begira zituela.

Elbira tabernan sartu zen, atea itxi eta eguneroko leku berean eseri zen, eguneroko ordu berean. Ezikusiarena eta ezentzunarena egin nahi zuen. Ikuskizun hartatik ihes egin nahi zuen.

Berehala hurbildu zitzaion tabernaria; beste inor ez zen ohartu etorri berriaz, antza. Agian lortuko zuen bake-bakean bazkaltzea, han gertatzen ari zenaz kanpo.

Laster beregana hurbiltzen ari ziren urratsak nabaritu zituen bere bizkarrean; bere buruari eusten ahalegindu zen, arnasa sakon hartuz.

—Hara, hara, andereñoa ere hemen dugu eta —esan zion nebak, erdi txantxetan.

—Utz nazak bakean. Itxura horrekin eta algara horiekin ez hadi nigana hurbildu! —erantzun zion Elbirak gogaiturik.

—Ozpinduta gaur ere? Behin bizi behar eta horrela bizi beharra ere bada gero!

—Hago isilik.

—Hi euskarak eta kontu zahar horiek guztiak galduko haute, horrek hilko hau hi!

—Alde hemendik, ez haut nire begien aurrean ikusi nahi. Hoa!

Atea bortizki itxi zen, tabernak eguneroko giroa berreskuratu zuen. Handik pixka batera Elbira ere zutitu zen, ez zuen goserik. Platera ia beterik utzita alde egin zuen, azken boladan egin ohi zuen bezala. Inoiz ez zen oso jatun ona izan, baina azken garaian soberan zituen platerako gehienak.

Kalean ez zen nebaren arrastorik, egia esan ez zuen gehiegi kezkatzen nora joan ote zen. Hiruretan haurrak etorriko ziren, eta ordurako guztia prest eduki nahi zuen. Egunerokoan murgilduko zen, eta horrek baretuko zion barrua, ziur.

Garai berriak

Baziren hilabete batzuk Orixe ikastola zabaldu zenetik. Zenbat aldatu ziren gauzak etxez etxe hasi zenetik! Urteak aurrera zihoazen, 1969. urtea zen, garai berriak zetozen.

Beste hiru lagunekin Orixe ikastola sortu zuen. Orain taldean hogeitaka haur zituen, egun osoz. Hirurogei urteak aspaldi beteak zituen, eta lana egokitu beharrean zegoen. Hala ere, horrek ez zuen kezkatzen. Migelmarirekin hasi zenean, ordu arte egindakoa egokitu behar izan zuen, eta arrakastaz egin zuen. Bazekien talde handian lan egitera egokituko zela. Lehen egin zuen bezala, orain ere asmatuko zuen lan egiteko modua, ziur zen horretaz.

Orain ikastolan lankideak zituen. Haiekin adostu behar izaten zituen erabakiak, lan egiteko ikuspegiak... eta hori bai egiten zitzaioela gogorra!

Ohituta zegoen bere bizi guztian bakarrik ibiltzera. Ordu arte ez zuen behar izan inoren laguntzarik, bere etxean bere kasa egiten zituen gauzak; ez zuen behar ez inoren baimenik ezta inoren onespenik ere.

Baina gauzak aldatu egin ziren, ikastola handituz zihoan, gero eta irakasle gehiago, gurasoak... eta han ezin zen bakoitza bere aldetik jardun, batasuna eman beharra zegoen egitasmoari, jardunari, ikastolaren gorpuzkerari, eta, jakina, zenbat buru hainbat aburu!

Bitzita osoan zehar garbi izan zuen zer nahi zuen, zailtasun guztien gainetik lortu zuen bere bidea egitea. Baina bide hori bakarrik egin zuen. Bere kasa lan egiten ohituta zegoen, eta hori zuen gogoko, gainera.

Desadostasun handiak zituen lankideekin, ikuspuntu desberdinak baitzituzten ia gai guztietan. Eta hori ezin zuen eraman. Hurrekin gelan egindako lana baino askoz zailagoa eta pisutsuagoa egiten zitzaion irakasleekin eta gurasoekin bileretan egin beharrekoa; alde batetik, urte luzeetako esperientzian oinarritutako iritziak ziren bereak; alde bestetik, zergatik eman behar zuen amore beste irakasleen usteen alde?, eta, beste aldetik, zaila egiten zitzaion bere iritziak arrazoitzea eta defendatzea besteen aurrean, inoiz ez zuen egin behar izan, eta ez zegoen ohituta. Ezin horrek guztiak sumindu egiten zuen.

Hala ere, gehien ernegatzen zuena ikastolak legeztatze bidean jartzearen kontu hori guztia izango zen, seguruenik. Legeztatzearen aukera hori lehen aldiz entzun zuenetik ez zuen begi onez ikusi, eta bere indar guztiz gogor egin zuen kontra. Bide horrek ikastolak morrontzara eramango zituela susmatzen zuen.

Hasiera-hasieratik izandako bihozkadak egiaztatzen zituen egunez egun. Orixe ikastola zabaldu eta hurrengo urtean, 1970ean, Espainiako gobernuak Villar Palasi legea onartu zuen, hezkuntza arautzen zuena. Bere beldurren lehen baieztapena izan zen hura; bere lankideak ikastola lege arrotz haietara nola egokitu ari zirela ikusten zuen; jasanezina ari zitzaion bihurtzen egoera.

Bazekien arratsalde hartan gertatutakoa ere berrikuntza haiei esker zetorrela. Ikuskaria ikastolan izana zen egun hartan bertan, ikuskaritzan eskolaz kanpoko

jardueren berri jakin nahi zutela adieraztera. Haurrek eskolak amaitu zituztenean bilera izan zuten irakasleek. Ez zekien zerk sutu zuen gehiago, ikuskaritzatik heldutako aginduak edo agindu horren aurrean lankideengan sumatu zuen jarrerak. Bere onetik aterata zegoen, bilera hasieratik epelak esan zizkien beste irakasleei. Ez zegoen prest hainbeste urtean burututako lana ezbaian jartzeko, ezta ikuskariekin elkarlanean aritzeko ere. Gauza guztien gaintik maite zuen ikastola, bere bizitza osoa eskaini zion, eta ez zuen onartuko inork arriskuan jartzea, ezta legeztapena jokoan baldin bazen ere.

Oso gogorra izan zen bilera. Aspertuta zegoen hainbeste epelkeriaz, eta halaxe adierazi zien besteei. Baina zein zilegitasun zuten ikastolan hasi berriak ziren haiek berari aurka egiteko? Non ote legoke ikastola hainbestetan berak ere epelkeria beraz jokatu izan balu? Lankideak ere oso gogor aritu ziren berarekin; berak ere epelak entzun zituen.

Bistan zen ikastolaren egitasmoa ulertzeko bi era desberdin zeudela han. Arratsalde hartako bileran inoiz baino argiago geratu zen, behintzat. Beste behin bakar-bakarrik geratu zen, inor ez zen aritu bere iritzien ildotik. Egia esan, berdin zitzaion, ohituta zegoen beti denak kontra edukitzera, eta horrek ez zuen sekula atzeratu, eta ez zuen atzera botako orain ere, gogor eutsi zion bereari!

Azkenean, berak hartu zuen bere gain ikuskaritzara bidaltzeko txostena egiteko ardura. Finean, bera zen ikastolan azken hogeitaz urte haietan egin zenaren eta egin ez zenaren berri hobeki zekiena. Idatzia gaztelaniaz egin behar zen, noski. Idazteak ez zuen asko arduratzen, azken batean gaztetatik izan baitzuen zaletasuna, eta bolada batean garai emankorra izan baitzuen idazle gisa; baina bere ikastolaz, hezkuntzaz, hainbeste arretaz sortutako jardunez, eta bere kutunez gaztelaniaz idatzi beharrak erresumina sortzen zion bihotz barnean.

Lana amaitu, eta ikastolatik etxe aldera hartu zuen. Egun hartakoak baretu ezinik ari zen. Aspalditik jabetuta zegoen desadostasunetik eta ikuspuntu desberdinetatik ezinikusira pasatuta zeudela; hori sumatu zuen bereziki bilera hartan, zenbait lankideren aldetik. Berdin zitzaion, ez zituen alferrik igaro hainbeste neke. Besteei gustatu edo ez gustatu, argi eta garbi zuen ikastolak zein bideri jarraitu behar zion, kosta ahala kosta haren alde egingo zuen, bakarrik egin behar bazuen ere. Bere jarrerari eustea, ordea, garesti ateratzen ari zitzaion. Hainbeste urtean bostetik bederatzi urte bitarteko hurrekin lanean aritu ondoren, ikastolako lehen ikasturtean lau urteko hurrekin ipini zuten. Bazekien, ikastolan ez zegoela inor adin horietako hurrekin aritzeko bera baino prestatuago zegoenik, eta bazekien, halaber, ikuskaritzak ez zuela debekatu bere jarduketa maila horietan. Bazekien debekua nondik etorria zen, eta horrek mintzen zuen bereziki. Udaberria zen, 1971koa, aurki beteko zituen 65 urte, eta hau izango zuen ikastolan egingo zuen azken ikasturtea; erabakita zegoen.

Pentsakizun horietan zihoan etxe aldera. Gogoia guztiz mikaztu baino lehen, udaberri hartako ilunabarraz gozatzea otu zitzaion; giroak laguntzen zuen, eta inguruak zer esanik ez. Kaitik barrena jaitsi zen; baporeak itsasoratzen ari ziren.

Arrain txikitara zihoazen. Sakon arnastu zuen, eta barru-barruraino iritsi zitzaion kresalaren usaina. Kontxaraino jarraitu zuen; bertatik irla hegitik ihesi zihoan eguzkia ikusi zuen. Kantauri itsasoko urak zabal-zabalik zituen zain. Eguzki biribila olatuen gainean kulunkan ari zen, itsasoaren barrentasunerantz, mantso.

Guztia goitik behera dator

Dagoeneko goizaldea izango da, seguruenik. Gaua igarotzean den arren, oraindik ez du lortu begiak biltzea. Buelta eta jira ibili da gau osoan; pentsamenduak eta oroitzapenak etorri zaizkio bata bestearen atzetik, atsedenari lekurik eman gabe.

Gelan ez dago inor, ezta etxean ere. Ez da inor etorriko. Bakarrik dago, bakarrik. Ez du jaikitzeke presarik, ezta gogorik ere. Badira hamar urte ikastolako lanak amaitu zituela, eta horregatik jada ez du presarik jaikitzeke. Inork ez du inon itxaroten. Hamar urte igaro dira bizitzaren beste aurpegi batean bizi denetik. Borroka asko irabazi ditu bizitzan, baina ez du lortu bere barrua tristuraz blaitu duen bakardade horri borroka irabaztea.

Ezin da ohitu etxeko isiltasunera. Zenbat jende ez ote da etxe hartan izan! Garai batean jendearen joan-etorria zena, dena algara eta kanta zena, egun isiltasuna da, hutsa. Bakardadea eta bera soilik geratu dira hainbeste amets babestu dituzten etxe hartako hormen artean.

Santa Mariako elizako ezkilak entzun ditu, ez ditu zenbatu. Jaiki beharko luke, baina ez daki horretarako beharko lukeen adorea izango duen. Burukoa bustita dago, malkoak ihesian joan zaizkio berriro ere, ondo ezagutzen du zein den bide haren amaiera. Bere buruari utziz gero, hondorik ez duen zulo beltzean jausiko da berriro, amaierarik ez duen gau ilunean. Eta bide haren amaiera Usurbilgo erietxean dago. Ikastola utzi zuenetik erori eta erori ari da, inoiz behea-joko ez balu bezala. Zenbat aldiz eraman ote dute Usurbilera?

Jaiki eta balkoia zabaldu du. Udazken goiz hartako argitasunak min egin dio begi-ninietan. Balkoitik Fermin Kalbeton kalera begiratu du, ezker-eskuin. Jendea kalean gora eta behera dabil, nor bere zereginetan. Inor ez da ohartu balkoitik begira dagoen emakumeaz. Kalera aterako da, bai, hori izango du onena.

Janzten ari den bitartean Ramon Labaienek atzo eginiko ikustaldia etorri zaio gogora. Sarako erbestean ikasle izan zuen mutikoa orain Donostiako alkatea da. Nork esango zuen, Larrungo aldapetan gora eskua eman eta goraka tira behar izaten zuen mutil kozkor hura bere Donostia maiteko alkate izango zenik. Ez zitzaion inor joaten ikustera, ez zuen inor ikusi nahi. Baina atzoko ikustaldiak aztoratu egin zuen. Ramonek esan zion Donostiako alkate gisa zetorrela eta Donostia Hiria urrezko domina eskaini zion: “Donostiaren eta donostiarren alde, eta, bide batez, Euskal Herriaren alde eginiko lan eskergatik”.

Oso gaizki hartu zuen: zer omenaldi eta zer omenaldi ondoko! Ez zuen nahi inork bera aipatzea. Bakean uztea besterik ez zuen nahi. Eta horrela adierazi zion Ramoni ere, eskaileretan behera aurretik bidali baino lehen.

Beharbada horixe izango zen bart arratseko aztoramenduaren arrazoia. Bere baitan gordetzen hainbeste ahalegintzen zen zenbat mamu ez ote zizkion azalarazi; alde batetik, inork baino hobeto zekien besteen mesedetan eta aberriaren mesedetan zenbat egin zuen: bizitza osoa eskaini; beste aldetik, bazekien inork omenaldi bat merezi izatekotan hura bera zela, baina bere izaerak ez zion uzten hori agertzen. Izugarrizko hutsunea eta bakardadea sentitzen zuen, baina ez zion uzten inori gerturatzeko, ez zuen inorekin hitz egin nahi, baina bakarrik sentitzen zen, bakardadeak irentsirik.

Bazekien bere bizitza osoa kontraesanek jositako egoera zela, inoiz ez zela gai izan benetan sentitzen zuena eta nahi zuena agertzeko. Ziurtasunaren estalki haren azpian berak bakarrik zekien zenbat borroka izan ziren, zenbat aldiz ukatu zizkion bere buruari beretzat benetan mesedegarriak zirenak. Inoiz ezin izan zuen menderatu besteen aurrean indartsu egiten zuen baina bere barruan hainbesteko txikizioak eragin zizkion indar hura, barruko ekaitza.

Bazkaltzeko ordua da ia. Erretiratu ondoren ere, Mujika tabernan bazkaltzen du egunero; hura bere etxea balitz bezala sentitzen du. Hori eta egunero Migelmariarekin egiten duen saioa dira lehengo garai haietatik gordetzen dituenak. Adinak erretiroa ekarri dio, baina irakasten aritzeko eta gehiago ikasteko grinak ezin izan ditu erretiratu. Migelmari izan zuen erbestearen ondorengo lehen ikaslea eta huraxe gelditu zaio azken ikaslea, elkarrekin 25 urteko ibilbide luzea eta oparora egin ondoren. Agortezinak dira Migelmariaren gaitasunak garatzeko aukerak, eta baita haren ondoan ikastekoak ere. Ikastolako lanak utzi zituenetik, hamaika gauza irakurriak ditu Down sindromeari buruz; oso ondo ezagutzera iritsi da sindrome hori dutenen garunaren funtzionamendua. Erronka handia izan zen Migelmari ikasletzat hartzea, gustura erantzun zuen erronka zaila, gainera. Erretiratu ondoren, bi aldiz eraman zuen Migelmari Parisera, bi pedagogoko ospetsurengana. Hasieratik bat egin baitzuen Sansinenea pediatriarekin: medikuntzak eskaini zion jada Migelmari eskaini ziezaiokeen laguntza guztia, hortik aurrerako pedagogiak eskaini behar zion. Eta Migelmariaren ondoan egin zuen ibilbide luze hartan aukera paregabea izan zuen hori horrela zela frogatzeko.

Azaroko Sanmartinetako egun eguzkitsua da hura. Eguna ederra izaki, baina sasoiari zegokionez motza. Bazkaldu ondoren, eguzkiaren azken printzez gozatzera abiatu da Paseo Berritik barrena. Itsasoa harro dago egun hartan, olatuek salto egiten dute barandaren gainetik. Aquariumeko gainetik bistaratu du Kontxako badia, kresala jasotzen ari da Donostiarantz. Kaitik barrena doa; egun hartan Kontxako erlojuetaraino joateko asmoa du.

Bidean, margolari batekin egin du topo, sarritan izaten da han. Gizon garaia da, bizar eta ile txurikoa, gaur ere kapela darama, gehienetan bezala; gutxi gorabehera adin berekoak izango dira biak.

Bere parean geratu da, bestetan bezala kartoi baten gainean ari da margotzen, irla eta badia ia bukatuta ditu. Deigarria gertatzen zaio beti gizon hark margotzeko duen azkartasuna: “Koloreak azkar aldatzen dira-eta”, esan zion behin. Egutero paisaia bera irudituko zaio seguruenik han ibiltzen denari, baina gizon haren koadroetan itsasoaren, arroken eta zeruaren koloreak eta ñabardurak desberdinak dira egutero. Gogora datozkio bere ikasleen blokak, haietan egiten zituzten marrazkiak. Denborarekin miresten ikasi du gizon hark hainbeste kolore eta ñabardura ikusteko duen gaitasuna, berak urdinak ikusten dituen zeruan eta itsasoan.

Laster ilunduko du. Alde Zaharreko kaleetan txikiteoan dabilzan lagunak besterik ez ditu topatu. Kresal usaina darie bazter guztiei, baita bere oroitzapenei ere.

Etxean da berriz ere, bakardadea duelarik lagun bakarra. Zumaiako umetako oroitzapenak datozkio burura: ama, aita, ahizpa eta neba. Ahizpa eta neba hilak zituen ordurako, urtebetea joan ziren biak; ahizpa Garona Garaiko Pin-Balman, Aufrèry-ko mojen komentuan, eta neba Hondarribian. Ez zuen berrito ikusi Mujika tabernan eztabaida hura izan zutenetik. Haren berri izan zuen adiskideen bitartez, Hondarribian ikusia baitzuten; ez zuen, ez, bukaera atsegina izango gizajo hark ere!

Etxekoen falta sumatu zuen, sekula sumatu ez zuen gisan. Zein aukera gutxi izan zuen etxeko berotasunaz gozatzeko! Bakoitzak bere bidea egin zuen bizitzan, elkarrengandik hain urrun denak.

Bizitza borrokatuz joan zitzaion, denbora gutxi izan zuen gozotasunetarako. Besteentzako hoberenaren alde borrokatzen aritu zen, eta berea guztiz ahaztu zuen. Orain, jokaera haren ordaina besterik ez zen jasotzen ari.

Euskara eta hezkuntza izan zituen bere borroka nagusienak, eta ikastola borrokalekoa; hainbeste urteko ahaleginaren ondoren, ordea, baztertuta geratu zen, bakarrik.

Euskara izan zen bere grina. Zenbat ordu ez ote zituen eskaini haren irakaskuntzan eta hura zabaltzeko ahaleginean. Baina Euskara Batua gailendu zen bere irakaspen guztien gainetik, “H-aren” erabilera non-nahi zabaldua zegoen jada. Eramanezina egiten zitzaion.

Gerraren zorigaitza ezagutu zuen eta hala irakatsi zien bere ikasleei. Hala ere, haietako asko ETA erakunde armatuan buru-belarri sartuta zebiltzala ikusten zuen. Horrek barrua goibeltzen zion.

Atal horietara eskaini zuen bere bizia; euskara eta aberria maite zituen ororen gainetik, eta haien alde egin zuen; dena. Abertzalea eta jeltzale zintzoa izaten ahalegindu zen beti. Guztiak porrot egin zuen sentipena zuen. Bizitzan egindako guztia alferrikakoa zela sentitzen zuen. Bazirudien mundua ahaztu egin zela berak egin zuenaz eta sortu zuenaz. Bakarrik utzi zuten guztiek...



Beretzat bakardade pisutsu hura bakarrik geratu zen, antza. Horrela bazen, bakarrik egongo zen geroan ere. Mundutik, eta guztiengandik urrun.

Atsedeen egin diezaio argiak

Bazekien amaiera gertu zela. Bere eriak ez zuen sendabiderik, burutik bihotzera eta bihotzetik arimara zabaldua baitzuen. Ez zuen bizitzeko irrikarik, mundu honetakoak eginak zituela sumatzen zuen aspaldi.

Bere heriotzaugar txiki bat itzaltzea bezala izatea nahi zuen, eta horrela izatea eskatzen zion Jaungoikoari bere otoitzetan. Isilik alde egin nahi zuen, zalapartarik gabe, xumeki.

Bere azken nahia zen hura. Jaungoikoak bere ondora eramaten zuenean, lagunak eta ezagunak ondoan ez zuen ezer utzi nahi, izan zenaren arrastorik ere ez.

Isilpean eskatua zuen bere azken nahia: Mañuan lurperatu behar zuten, zinez miretsi zuen amamaren ondoan, lorerik gabe, oroigarrik gabe. Munduaren begiradatik urrun, hainbeste maite zuen itsasotik gertu.

Abenduak 26 zituen 1982ko urte hartan. Eguberriak Donostiako ospitalean igaro zituen, bakarrik. Egun hartan bi lagun joan zitzaizkion ikustera, azken boladan ohi zuten bezala. Hitz egiteko gogorik ez zuela eta, apaizari deitzeko eskatu zien. Ondoren, alde egiteko agindu zien.

Apaizarekin hitz egin zuen, eta handik gutxira zendu zen. Ez zuen inor alboan, bakarrik joan zen. Argi txiki bat bezala itzali zen; besterik ez, nahi zuen bezala




Elbira, Montserratan.



Elbira Gregorioarekin, Bartzelonan.




Elbira lagunekin Altxueta mendian 1932an. D. Poli, A. Jose Mari, Xebe, Errazkin, Pilartxo eta abar. Itzalean agertzen dena Elbira da, "labezomorro" bere esanetan.



Ikasle baten mapan Elbirak egin zuen ibilbidea.



Migelmari Egiaren marrazkia informazio kontzeptual ugariarekin.



Mañuko hilerrian.



Elbira eta euskara

Euskararen egoera ez da inoiz eroso eta erraza izan; ezta Elbirak ezagutu zituen garai haietan ere.

Euskarak jendartean zuen presentzia eskasa zen, eta zer esanik ez, garaiko hedabideetan, eskoletan, literaturan eta abar zuena. Beraz, Elbirak izan zuen non aritua.

Elbira edozeren gainetik abertzalea zen. Abertzale eta euskaltzale sutsua. Eta bi ardatz horien inguruan aritu zen buru-belarri lanean, horietara eskaini zen arimaz eta bihotzez.

Hezkuntza arloan hasi zenean, euskararen presentzia eskoletan hutsaren hurrengoa zen. Euskaldunak gaztelaniaz edo frantsesez alfabetatzen ziren, eta euskara oso esparru mugatueta zokoratua geratzen ari zen.

Aspaldiko kontuak ziren haiek, nolana ere. XVIII. mendean doktrina katolikoa euskaraz irakasten zen. Baina eskolan euskarazko irakaskuntza atzera egiten ari zen. Horren adibidea da Gipuzkoako Aian aurkitutako 1730eko idazkian esaten dena: “eskatzen da kontuan hartu behar dela ume gehienak hizkuntza hori ikasteko aukera izan dutela. Beraz, maisuei eskatzen zaie umeei bi hizkuntzatan irakasteko”. Garai horretakoa da Gipuzkoako Ordiziako Udalak maisuei egin zien eskaera ere: haurren ama hizkuntza lan zezatela gal ez zedin, eta hobetzen joan zedin.

Elbirak gai honekiko zuen sentsibilitateari gehitu behar zaio Emakume Abertzale Batzako (EAB) kidea zela. Erakunde horretatik etengabeko deiak egiten ziren euskal eskolen eraikitze lanetan parte hartzeko. Eusko Ikastola Batza sortu zuten, eta bertako partaide ziren ikastoletan irakaskuntza guztiz euskalduna eskaini zen. Emakume ugari erantzun zioten dei horri. Elbirarekin batera, Julene Azpeitia, Madeleine Jauregiberri, Robustiana Mujika eta Maritxu Ituarte, besteak beste, aritu

ziren euskararen inguruan lanean. Emakume horiek guztiek egin zuten lana ezinbestekoa izan zen, ikastolen hastapenetan gehienak emakumeak baitziren. Gerra aurretik EABk indar handia zuen, eta horren itzalean joan ziren ikastolak sortzen eta indartzen.

Baina gerrak guztia zapuztu zuen. Euskararen irakaskuntza debekatu zuten, eta Elbiraren antzera euskararen gaian buru-belarri murgilduta zebiltzanek arazo politikoak eta pertsonalak pairatu behar izan zituzten; eskola nazionaletakoak atzerriratuak izan ziren: Julene Azpeitia, adibidez, Burgoseko Anzo herrian egon zen 8 urtez zigortuta; beste batzuk fusilatu egin zituzten; eta beste batzuek, aldiz, Elbiraren gisara, erbestera ihes egin behar izan zuten.

Elbira erbestetik itzuli zenean, beraz, ez zuen inoren babesik topatu. Baina goerak ez zuen kikildu, eta ikastolaren egitasmoaren bigarren aldiari ekin zion.

Literatura arloan ere aritu zen. Idazle gisa *Ira* goitizenez sinatzen zituen bere lanak eta horrela zen ezaguna. Aldizkarietan eta egunkarietan idazten zituen artikuluak; esaterako, Ander Arzelusek, *Luzearek*, *El Día* egunkariko euskal orria ataleko zuzendari zelarik, maiz eskatu zion Elbirari bertan idazteko. Haurrentzako antzerki lanak ere idatzi zituen.

Leoi-kumea, haurrentzako ipuin liburua, argitaratu zuen Parisen 1948an; Orixek itzuli zuen testua euskarara, eta Ylla argazkilariaren argazkiak zituen.


Gehienetan euskararen inguruko gaiak azaltzen zituen bere idatzietan. Sarritan, bere izaera zorrotza erakutsi zuen: adibidez, euskara gaietan aditua zen Antonio Tovar filologo espainolarekin izan zuen tirabira. Tovarrek *Trabajos de la Academia Vasca* buletinean lan bat argitaratu zuen. Elbirak ziurtasun handiz azaldu zizkion bere desadostasunak, Euskaltzaindiko buletinean argitaratu zuen artikuluan. Bueltan jaso zuen erantzuna ez zen nolana hikoia izan; ikuspuntu desberdinak eta Elbira gai horietan sakontasunez murgiltzen zen emakume bakarra izaki. Argitaratu zuen *La lengua vasca* liburuko 56. orrialdean honela dio, hain zuzen: “La complicación del verbo vasco es tan grande que la lengua ha tendido a solucionar una situación caótica”. Eta 65. orrialdean, berriz: “ El edificio del verbo vasco puede analizarse pero solo trabajosamente y la fonética de los dialectos, aun insuficientemente estudiada no nos permite reconstruir con seguridad todas las formas que serían necesarias para explicar su funcionamiento”.

Jatorrizko euskararen aberastasuna ezinbestekotzat jotzen zuen. Horregatik, bizitzako egoera guztietako atsotitzak, euskalkietako hitzak, ahoskera desberdinak eta abar baliatzen zituen bere ikasleei aldaera guztiak irakasteko.

Bestalde, Pilar Barandiaranekin oporraldi asko igarotzen zituen hika ikasteko Lazkaon eta Aralarren. Gainera, Pilar, beste lagun batzuek egiten zuten gisan, askotan joan zen Elbiraren ikasgelara, haurrak beren lanetan ari ziren bitartean hikaz entzun eta ikas zezaten. Egonaldi luzeak egiten zituen On Joxemielekin eta Orixerekin ere; asko ikasten omen zuen biengandik.

Elbira guztiz murgilduta zegoen euskararen ezagutzan, eta eguneroko irakaste lanez gain, erakustaldiak antolatzen zituen: esaterako, ikasleek euskara arloan lortu zituzten aurrerapenak azaltzeko jendaurreko erakustaldia antolatu zuen, eta horren berri jaso zuten garaiko egunkariek.

Bere ikasleei ahalik eta euskara aberatsena eskaintzeko ahalegin horretan, Bizkaiko Mañura eramaten zituen trenez, 100 urteko amama ikustera. Ikasleei irakatsi nahi zien euskaraz nola hitz egiten zuen.







Mañuko Arizaletarrena baserria

Behar-bada, euskal gramatikari egin dio ekarri nagusia euskal terminologiaren erabilera asmatu eta hedatzea izan da. Horrek bultzada handia eman zion euskal aditzaren irakaspenari. Ordu arteko “paciente, sujeto eta recipiente” alboratu eta NOR-NORI-NORK terminoak asmatu zituen. Gainera, hainbeste aldiz antzeztu zuen gurpilaren bidez euskal aditzaren logikaren sistematizazioa lortu zuen. Elbiraren ikaslea zen Antton Valverderen aitak gurpila tresna bihurtu eta Elbirari oparitu zion.


Gurpilak sekulako eragina izan du euskararen hedapenean, asko erraztu baitu aditzaren ikaskuntza.

Lazkaoko beneditarrei euskarako eskolak ematen aritu zen bi urtez, jaiegun guztietan; goizez bi orduz eta arratsaldez beste bi orduz. beneditarrek asko gorai patzen dituzte Elbirarekin egindako ikastaroak, eta, batez ere, aditzaren gainean egin zituen ikerketak. Ondoren, Lazkaoko beneditarrek euskara ikasteko eta garatzeko gune garrantzitsu bilakatu ziren.





Elbira Euskara Batuaren kontrakoa zen, ordea. Herrietan Euskara Batuaren aldeko mugimendua hasi zenean, Elbirak poxpolin lana egin zuen: hau da, herriko euskara sustatu zuen euskara bateratzeko egiten zen proposamenaren aurrean. Horretarako, kantatu, dantzatu eta abar egiten zuen; ilunabarrean, sorginen modura. Jende adoretuaren artean hauxe zioen: “Izpirituak bizitza dakar, letrek il egiten dute”.



Euskara Batuaren kontrakoa zen, erabat. Batuaren nagusitasuna bere ondoezaren oinarria izan zen; ikastolaren legalizazioa lotzen baitzuen horrekin, eta horren aurka baitzegoen irmoki; H letraren erabilera arauak onartzeak eta jendeak baneratzek, bizia kendu zioten. Hark ez zituen arauak onartu, inondik inora; are gehiago, idazkera arrazionala aldarrikatu zuen, ez zuen ikusten euskara literarioaren beharrik.

Elbirak bazekien euskarak trataera konpentsatzailea eta orekatzailea behar zituela, baina ziur zen Batuak egoera diglosikoa ez zuela arinduko.

Ahalegin guztiak egin zituen, eta bere esku zeuden bitarteko guztiak erabili zituen Euskara Batuaren eragina ez aldarrikatzeko. Helduei ematen zizkien gau-eskolak ere horretarako baliatu zituen. Bere ikasleen gurasoen artean ere saiatu zen ere Batuaren kontrako iritzi hori sorrarazten: Kutxako langileen artean, Antonio Valverderengan, Karlos Santamariarengan, Zumalaberengan... pertsona helduak, jakintsuak eta euskal kulturarekin konprometituak guztiak.

Nabarmena izan zen emakumeek elkarte askotan eta argitalpenetan izan zuten partaidetza. Elbira Zipitria Euskal Idazleen Federakuntzan eta euskaltzaleen jardunaldietan aritu zen.

Elbirak euskal adituen iturritik edan zuen, eta harreman estuak zituen garaiko euskal kulturako adituekin: Orixe, Joxemiel Barandiaran, Telesforo Monzon, Resurrección Maria Azkue, Tene Mujika, Faustina Carril, Koldo Mitxelena, besteak beste. Euskara mailan sortzen zitzaizkion zalantzak argitzeko horiengana jotzen zuen, eta baita Nemesio Etxaniz eta Manuel Lekuonarengana.



Kutxa fototeka



Elbira eta politika

i Irakaskuntzaz gain, politika izan zen izan zuen beste pasioa, eta hari eskaini zion bere bizitzako zati handi bat.

Emakume Abertzale Batzuan militatu zuen. Elkarte hori Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan sortu zen 1921ean, eta lehen aldia Primo de Riveraren diktadurapean amaitu zen.

Elkartearen helburua emakumeak ere gizonekin batera politikan aritzea zen. Ekintza asko egiten zituzten: euskara landu, elkarri irakatsi, ongizate ekintzetan aritu, abertzaleen ospakizunetan eta agerraldietan parte hartu, gizarte arazoetan lagundu, hitzaldiak antolatu eta esan, tradizio eta ohiturei eutsi, emakumeen eskubideen alde borrokatu, mitinetan parte hartu...

Elbirak hizlari gisa parte hartu zuen mitin horietako zenbaitetan; esate baterako, EABren berragertzea zela eta, Urumea frontoian egin zena; han, garaiko mitin jendetsuenetakoa izan zen hartan, hitz egin zuten Elbira Zipitriak, Mercedes Kareagak eta Jose Antonio Agirrek. Hizlari bikaina zen Elbira. Elbirarekin batera, irakasle dezente aritzen ziren mitinak esaten. Haien helburua zen, emakumeen identitatea etengabe baieztatzea eta bere merezimenduz politikan egotea, eta ez gizonen esanetara egotea; ez baitzuten uste politika gizonen esparrua zenik, soilik.

Erakundearen eta alderdiaren itzalean Gipuzkoako Irakaskuntzako Maisu-Maistra Kooperatzaileen Elkarteak sortu zen 1931n, eta berehala 300 bazkide egin zituen, horietako bat Elbira Zipitria.

EAB desagertu zenetik 1932an berpiztu zen arte, emakumeek euskararen irakaskuntzan laguntzen eta kultur ekintzak antolatzen jardun zuten, ez ziren aritu politikan aktiboki lanean. Elkarte horien barruan Elbiraren izaera indartsuak eta gartsuak arrastoa egin zuen.



Elbira Elgetan, 1972an.



Erakundearen barruan leku esanguratsua izan zuen; adibidez, 1931-1933 arteko urteetan, honela egon zen osatua EABko batzordea: Elbira Zipitria, idazkaria; Juanita Barriola, lehendakariordea; Josefa Aiestaran, diruzainordea; Felisa Areitaurtena, batzorkidea.

Gainera, idazkari lanak egiten zituen EABko aldizkarian.

Bere iritzi politikoak mitinetan ahoz adierazteaz gain, garaiko egunkarietan ere azaldu zituen, batez ere *El Día* egunkarian; han, euskaraz idazten zuen, eta *IRA* ezizenez sinatzen zuen.

Gerra amaitu eta erbestetik itzuli zenean, politika alde batera utzi zuen. Behar bada, nolabait antzemana zuen euskaldunen arteko zatiketa.

Pixkanaka zatiketa hori sakonduz joan zen, eta muturreko iritziak eta ekintzak azaldu ziren. Beldurrak bereganatu zuen Elbira.

Saminez ikusten zituen heldu bilakatutako bere ikasleak eszenario horretan murgildurik. Zenbait ETA erakundeko militanteak ziren, gainera; hori onar ezina egin zitzaion, eta gogor egin zuen kontra. Topaketa politikoetan bere haserrea eta tristura agertzen zuen. Bakarrik geratu zen.

Garai hartan, 60ko hamarkadan, erakunde politikoez gain, bazeuden erakunde kulturalak ere. Azken horietan biziki parte hartu zuen Elbirak.




Elbira Aberri Egunean. Eskubiko argazkian Larrun mendian Aberri Eguna ospatzen, 1976an.





"Galeusca" anaiarteko jardunaldi batean, Nafarroako mugan. Goiko argazkian ezkerrean, erdikoan erdian eta behekoan Telesforo Monzoni begira. (1933).



Jardun pedagogikoaz

Elbira Zipitria Irastortzak Gipuzkoako lehen euskal etxe-eskola sortu zuen 1946. urtean, Francoren diktadura garaia puri-purian zela.

Ez zen hori izan, ordea, euskal irakaskuntzan egin zuen lehen lana, 36ko gerrak eten baitzuen muñoatarren ikastolan hasia zuen hezkuntza ibilbidea.

Beraz, kontuan izanik Elbira Zipitriak Espainiako gerra aurretik, eta, batez ere, gerra ondorengo ikastolen hasieran izan zuen eragina, esan daiteke hura izan zela euskal eskolaren gerra aurreko eta gerra ondorengo mugimenduak lotu zituen.

Halaber, etxe-ikastolen esperientzia hark ahalbidetu zuen, gerra aurreko belaunaldiaren ekarpenari eta 60ko hamarkadan eratu zen ikastolen mugimenduari eman zion loturari esker, euskararen proiektua bere osotasunean eta jarraipen historikoarekin garatzea.

Garai hartan, Euskal Herriak eskola libre, moderna, euskalduna, europarra, berria... behar zuen, eta, behar horretatik abiatuz, Elbirak jakin zuen ikastola izango zenaren lehen hazia ereiten; gerra ondorengo hezkuntza sistema ilunean bere lekua egin zuen.

Elbira Zipitria Euskal Irakaskuntzaren alde borrokan aritu zen bere bizitza osoan, euskaraz irakasten zen lekuetan egin baitzuen lana beti. Gainera, hizkuntzaz euskalduna zen eskolaz gain, edukiz eta formaz berezia izango zen irakaskuntza nahi zuen.

Europara zabalik zituen begiak; gertatzen ari ziren berrikuntza pedagogikoei eta garaiko adituak burutzen ari ziren punta-puntako ikerketei adi egoten jakin zuen. Horiek guztiak ekarri zituen Euskal Herrira, eta, abertzaletasunarekin eta erlijioarekin batera, bere metodoaren oinarri izan ziren.

Ikasle bikaina

Lehen Hezkuntzako ikasketak egin ondoren, Bigarren Hezkuntzako ikasketak hasi zituen 16 urte zituela Donostiako teresarretan.

Ondoren, garai hartan lau urteko iraupena zuen “Maestra de Primera Enseñanza” hasi zuen, 1922an. Ikasketa horiek beken laguntzaz egin zituen. Elbirak ikasteko aparteko grina erakutsi zuen; haren espedienteko kalifikazioak bikainak izan ziren; jostintzan izan ezik, horretan nahikoa lortu baitzuen urtero.

Irakasle ikasketak 1926an amaitu zituen, eta ikasketa horiek amaitu zituzten barnetegiko lehen ikasle ofizialen taldekoa izan zen.

Gero, Donostiako Euskal Izkera eta Iztunde ikastolan aritu zen bi ikasturtez, ikasturteak “goiena” kalifikazioarekin amaituz. Garai hartan, Toribio Altzaga zen eskola hartako zuzendaria.

Hala ere, Elbiraren gorentasuna, espediente akademikotik baino haratago, izan zuen intuiziotik eta lanerako erakutsi zuen grinatik datorkio.

Ondorioz, esan dezakegu, Elbira Zipitriak bere-berea zen metodoa sortzeko eta egituratzeko berak eraikitako ibilbidea egin zuela; teresarren barnetegian ikasi zuen, Irakasle Eskolan diplomatu zen, bere kabuz asko irakurri zuen, eta bidaia pedagogiko ugari egin zituen European zehar beste xede bat zuten bidaiak baliatuz. Elbirak, beraz, bizitza osoa eskaini zion hezkuntzari eta bere buruaren prestakuntzari.

Ikastolaren lehen hazia

Ikasketak amaitu eta muñoatarren ikastolan hasi zen lanean, 1926an, Donostiako Alde Zaharreko Ikatz kaleko egoitzan, hain zuzen. Gelan, 4tik 6 urte bitarteko haurrak zeuden. Han aritu zen andereño lanetan, harik eta 1936an Espainiako gerra hasi zen arte.

Euskal eskola honetan kontu handia izan zuten gauzak ongi egiten; guztientzat irekita zegoen, ikasgai guztiak euskaraz irakasten ziren, kristautasunak indar handia zuen, eta pedagogia aldetik guztiz berritzailea zen; Elbira haurrak prestatzen aritu zen inoiz heldu ez zen etorkizunerako.

Bitartean, 1931n, Bigarren Errepublika aldarrikatzearekin batera, Espainiako Hezkuntza Sistema eraberritu egin zen. Haize berri horiek euskal irakaskuntzaren hastapenerako baliatu baziren ere, ez zuten aparteko berrikuntzarik ekarri jada bide berrietan ari zen muñoatarren ikastolara.

Ondoren, Espainiako gerra hasi zenean, Elbirak Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen, eta eskola zapuztuta geratu zen.

Gerra amaitu eta erbestetik Donostiara itzuli zenean berriro, 1942an, ikastola antolatzeari ekin zion: ikasle bakarrarekin hasi zen, Down sindromea zuen Migel-mari Egiarekin, hain zuzen.

Hurrengo urtean, 1943. urtean, Arriola sendagileak bere etxean aritzeko gonbita luzatu zion, baina Elbirak onartu ere; han lau ikasle izan zituen: Arriolaren bi seme-alabak, Mari Koro Larrea eta bere lagun Elixabete Maiztegi irakaslearen seme zaharrena.

Ondorengo ikasturtean, 1944. urtean hain zuzen, Ascensión Goenagaren etxean aritu zen, bost ikaslerekin: Mari Koro Larrea, Itziar Goenaga Barrena, Ana Maria Isasa, Elixabete Maiztegiren semea eta beste haur bat.

Pixkanaka, Elbirak gero eta ikasle gehiago zituen, ahoz aho baitzebilen bere lanaren berri Donostian barrena.

Elbira pozarren zen, bere ametsa betetzen ari zen azkenik. Egunez egun, ezagunagoa zen burutzen ari zen lana euskal kulturarengatik kezka zuten senideen artean. Horri esker, jada ez zuen ikasle bila aritu behar, atera etortzen zitzaizkion; familia ezagunen artean azkar aurkitu zituen ikasleak, beraz. Eta eskaerari erantzuteko bideak taxutzen hasi zen.

Etkez etxe ibiltzeari utzi nahi zion, eta bere egitasmoaren azken urratsa ipini zuen martxan 1946an: Fermin Kalbeton kaleko 26. zenbakiko 2. solairuan, bere etxean, ireki zuen ikastola isilpean. Han, bere etxean, 20 urtez aritu zen lanean, eta urte horietan guztietan asmatu, bilakatu eta burutu zuen bere metodoa.

Frankismoaren urte ilunak

Francoren diktadurak ez zuen haustura maila politikoan soilik sortu; hezkuntzara, kulturara, Arte Ederretara eta zientziaren arloetara ere haustura sakona ekarri zuen, Errepublika garaian eta aurreko urteetan ezarritako berrikuntzak desegin baitzituen.

Erregimen berriak, batetik, garbitu egin zituen intelektualak, irakasleak eta Errepublika garaian karguren bat izan zutenak; bestetik, ordurako hezkuntza mailan zeuden erakundeak, elkarteak eta egiturak deuseztatu egin zituen. Izan ere, irakasleen artean Julene Azpeitia, Maria de Maeztu, Rosa Sensat... zigortuak izan ziren.

Geroago, historiak zor ziena eman zien, eta 60ko hamarkadako gazteek irakasle horien liburuetan eta jardueretan aurkitu zituzten espazio pedagogiko zahar batetik ateratzeko eta lana birmoldatzeko ereduak, irudiak eta sustagarriak. Erakundeen artean, berriz, Ikastolak, Institución Libre de Enseñanza, Goi-mailako Irakasle Eskola, Irakasleen Barnetegia eta abar sortu ziren.

Hala ere, Frankismoaren gogo-oinarri pedagogikoa ez zen homogenea izan diktaduraren urte luzeetan. Ideario horren ezaugarriak hauek izan ziren:

- Historiaren erabilera egiten zuen ikuspuntu nazional-inperialistatik.
- Eliza katolikoaren ohituekin eta moralarekin lotuta zegoen erabat.
- Pedagogia teoria berriak ukatzen eta ezkututzen zituen.
- Jarrera totalitarioak eta diktatorialak ezartzen zituen.

- Elebitasuna ahalbidetzen zuten arautegiak indargabetzen zituen.
- Hezkidetzak debekatzen zuten eskola maila guztietan.
- Arlo zientifikoaren balioak gutxiesten zituen.

Halaber, hastapenetik, zentsurak paper handia izan zuten ideario horren jarraipenaren garbitasuna ziurtatzeko. Liburuek, eta irakaskuntzan erabilitako baliabide guztiek, Hezkuntza Ministerioaren oniritzia behar zuten. Material horien bidez, jarrerak, sinesmenak eta balioak txertatzen zituzten.

Gogo-oinarri pedagogikoaren garapena hiru alditan bana dezakegu:

- Lehengo aldia (1936-1945): erregimen berriaren helburua izan zen bere jarraibideak, hastapenak eta balioak eskolan txertatzea. Izan ere, garai hartako arautegi guztiak horretara bideratuta zeuden.

- Bigarren aldia (1945-1960): erregimeneko hastapenetan oinarritutako teoria pedagogikoa eraiki zen, eta jendarteko egitura guztietara zabaldu zen.

- Hirugarren aldia (1960-1985): garapen ekonomikoak sozialki eta politikoki irekitasun handia ekarri zion jendarteari. Heziketa arloan gertatu zen irekitasun horren adibiderik argiena 1970eko Legea izan zen.

Elbirak hiru fase horien eragina jasan zuten bere bizitzan eta lanean, baina batez ere, bigarren aldiko ondorioak pairatu zituen.

Isilpeko ikastola

Ikastola isilpekkoa zen, eta ez zuen izenik. Etxea zaharra eta txikia zen; bi balkoi zituen aurrean, bat Gregorio lehengusuaren logelan, eta bestea ikasgela bilakatutako egongelan. Egongela oso txikia zen, eta errezel batek bereizten zuen Elbiraren logelatik. Errezel hori bera erabiltzen zuten antzerkia egiteko.

Egongelan bazen ate bat Gregorioren gelara joateko, ate hori beti erabat itxita egoten zen arren. Atearen azpitik ikusten zituzten pausoak ziren haur askok Gregorior zekukan ezagutza bakarra.

Egongelan kutxa bat zuen, gainean Aralarko Mikel Deunaren irudia zuena. Bestalde, mahai eraigarria ipini zuen horman zintzilik, ikasle zaharrenek idatzi behar zutenean hura lurrera jaitsi, eta lan egin zezaten. Gainerako denbora guztian horman lotuta egoten zen, lurrean jolasteko eta lan egiteko lekua egon zedin. Arbela ere bazuen, baina ez zegoen horman iltzaturik.

Pixkanaka etxe guztia bilakatu zen eskola; egongela, sukaldea... bere irakaspenak egoki egiteko baliagarria zen guztia erabiltzen zuten: sukaldetik egongelara prozesioa egiten zuten etxeko eskaileratik barrena, jarraian, egongelako kutxa aldare bilakatuz, meza irudikatzen. Elbiraren gela iluna izaki, beste goxotasun bat hartzen omen zuen haurrekin zegoenean. Erabat originala zen.



Ikasleak ugaritzen joan zitzaizkion heinean, taldeka banatu zituen. Talde bakoitza hamar-hamaika ikasleka antolatu zuen, etxean ez baitzuen haur gehiagorentzat lekurik.

Eskola eguna, berriz, horrela banatzen zuen: goizeko lehen bi orduetan Migelmari Egiarekin jarraitu zuen. Ondoren, goizeko 11:00etatik eguerdiko ordu bata arte beste hamar neska-mutileko taldearekin egiten zuen lan. Arratsaldean, hiruretatik bostetara beste hamar haur aritzen ziren eskola jasotzen. Iluntzean, berriz, helduen ordua izaten zen. Gau eskola haietan helduek euskara sakontzen zuten, eta, gainera, aberriarenganako maitasuna, erlijioa eta jendartearekiko begirunea, leialtasuna eta aberriarekiko betekizuna irakasten zizkien.

Ikasleen adinari dagokionez, lehen ikasturteetan 3 eta 9 urte bitarteko ikasleak hartzen zituen, adin guztietakoak. Ikasle kopurua handituz joan zen heinean, Elbira 5-9 urte arteko ikasleekin geratu zen. Txikiak, 3-5 urte artekoak, Faustina Carril eta Itziar Arzelusekin aritzen ziren Donostiako kaian. Banaketa horren ondorioz, ez zuen ikasleak bilatzen aritu behar; txikien taldeetan ibili ondoren, bost urterekin beste andereñoek Elbirarengana bideratzen baitzituzten ikasleak.

Bederatzi urte bete ondoren, ikasleek gaztelaniako ikastetxeetan jarraitu behar izaten zituzten beren ikasketak; Elbira arduratzen zen ordu arte ikasketak euskara hutsean egin zituzten ikasle haiek gaztelaniako eskolatan sartzeko azterketarako prestatzeaz. Horretarako, 8 eta 9 urteko ikasleei gaztelaniako eta frantseseko gramatika irakasten zien.

Garai hartan, Elbirak 50 pezeta irabazten zituen ikasleko hilean, urtean hamar hilabetez. Ordaindu ezin zuten ikasleak ere bazituen, eta horiek ez zuten ordaintzen.

Bere usteak betetzen ari ziren. Egun osoa ematen zuen lanean, baina ikusten zuen berak bakarrik ezingo ziola eskaera guztiari erantzun. Beraz, irakasle berriak bilatu behar zituen, eta trebatu, gainera.

Hasieran, ezagunak zituen arzelustarregana jo zuen laguntza bila, 1949an. Bere ikastolara euskara oso ongi menperatu gabe heltzen ziren haurrez arduratzeko eskatu zion Amale Arzelusi. Bide batez, lan hori egin ahal izateko berarekin praktikak egitea gomendatu zion, metodo pedagogikoaz jabetu ondoren agindutako lana egiteko. Gainera, zenbait arratsaldetan Ijini neskameak laguntzen zion haurrekin. Izan ere, Ijini oso iaioa zen haurrekin.

Burutazio horietan ari zela bi neska gazte etorri zitzaizkion: Karmele Esnal eta Jone Forkada ziren. Biak irakasle ikasketak amaitzen ari ziren, eta beren prestakuntza osatzeko nahia agertu zioten. Elbirak onartu zituen, baina ez zen hori gertatu beti; aitzitik, asko izan ziren atzera bota zituen eskaerak.

Ikasturte bakoitzean praktiketako irakasle bat onartzen zuen. Oso zorrotza zen haiekin. Ez zien ezer idatzita ematen, guztia behaketa bidez ikasten zuten. Askotan, irakasle horientzako eskolak gaueko hamar eta erdiak arte luzatzen ziren; guztia ahoz adierazten zien. Hortaz, beste lan ildo bati heldu zion: irakasle berrien prestakuntzari.

Elbirak bere etxean eskaini zituen eskolak 1966. urtera arte. Urte hartan, etxea utzi eta Mari kaleko eta Virgen del Koroko lokaletara joan zen. Han, Felitxu Erasunek frantsesa irakasten zien haurrei; hots, frantsesetik euskarara irakasten zuen hizkuntza.

Ondoren, 1966an, Santa Maria elizaren atzealdeko lokal batzuetara egin zuen, elizaren babesean, parrokiako eskola gisa. Bi urte beranduago, 1968an zehazki, Orixe ikastola sortu zuen, muñoatarren ikastolako lokaletan, hain zuzen ere.

Elbiraren ikastola izan zen zabaldu zen lehena. Beranduago, 50eko hamarkadan, etxe-eskola gehiago irekitzen hasi ziren, Elbirarekin ikasitako andereñoen ardurapean, gehienak. Hala, etxe-eskolen esperientzia gorpuztuz joan zen, eta 1959. urterako Donostian 17 etxe-eskola konta zitezkeen. Ikastola horietan eskolak eman behar zituzten andereñoak behartuta zeuden denbora luze batean andereño esperientziadun batekin jardutera. Eta horrela, estilo bat, lan egiteko modu bat, hitz batez, eskola bat egiten joan zen.

Estilo edo lan egiteko modu horrek bazituen ezaugarri batzuk. Esaterako, hasiera-hasieratik Elbirak jolasa baliatzen zuen irakasteko, libururik gabe aritzen baitzen; *Xabierto* bakarrik zuen. Kutxatilan, berriz, zotzak eta puxtarriak zituen matematika osoa lantzeko. Lurrean eserita egiten zuen lana. Ulermena eta logika lantzeko, berriz, garrantzi handia ematen zion ekintzari eta manipulazioari.

Betidanik ere, arreta berezia eskaini zion aniztasunaren trataerari, hezkuntza premia bereziekiko sentsibilitatea handia erakutsi zuen. Pertsonen arteko



berdintasunean sinesten zuen; heziketa jasotzeko eskubide bera zutela, eta ikasteko gai zirela, gainera.

Sinesmen horiek oso aurrerakoiak ziren garai hartarako. Behar bereziak zituzten haurrak ez baitziren joaten eskolara, etxean edukitzen zituzten. Askoz beranduago arautu zen haur horientzako eskolatzea; gogoratu, Hezkuntza Sailak Hezkuntza Bereziko plana antolatzeko lehen agindua 1982an eman zuela, integrazioan eta sektorizazioan oinarritua. Ordurako, Elbirak 40 urteko aurrerapena zeraman, 1942an hasi baitzen Migelmarirekin lanean.


Migelmari Egia Kareaga, Down sindromea zuen mutila, izan zen gerra ondorengo bere lehen ikaslea. Migelmariri 25 urtez eman zizkion eskolak egunean bi orduz, mutikoaren gurasoen etxean. Mutil honekin burutu zuen lanak erakusten du, gai honetan ere, bere sinesmenak praktikara eramán zituela.

Elbirak kultura orokorreko oinarria emateaz gain, Migelmariri euskara eta frantsesa irakatsi zizkion. Migelmarirekin egin zuen lan gehiena gaztelaniaz egin zuen, hala ere.

Migelmarirekin erabiltzen zituen estrategien artean hauek daude:

- Hainbat adibide erabiltzen zituen gauza berbera azaltzeko.
- Lerrodun bloka onartzen zion.
- Guztiz funtzionalak ziren edukiak lantzen zituen; hots, bizitzan autonomiaz baliatzeko beharrezkoak direnak. Horregatik, erabiltzen zituen materialak hautatuagoak ziren beti.
- Bere buruarekiko autoestimua eta konfiantza lantzeko, oso kontuan zituen ikasle horren zaletasunak, horien artean futbola. Zaletasun hori baliatu zuen, adibidez, Espainiako geografia irakasteko: Migelmariren blokean Espainiako mapa

probintziaka banatuta agertu ordez, futbol ligako lehenengo mailako eta bigarren mailako futbol taldeka banatuta ikus daiteke.



Migelmari Egiaz gain, Elbira Zipitriaren euskal etxe-eskolan ikasi zuten, besteak beste, Antonio Maria Labaienena bi semeek, Egia-Kareagatarren bi semeek, Zumalabatarrenak, Miguel Mari Hernandezenak, Valverdetarrenak, Mendizabaldarrenak... Berak aukeratzen zituen ikasleak; erabiltzen zuen irizpide nagusia ama eta aita euskaldunak izatea zen. Aurrerago, gurasoetako bat euskalduna izanda ere, onartzen zituen. Oso zorrotza zen aukeraketan, eta asko izan ziren kanpoan utzi zituen ikasleak.

Etxe-ikastolan ibili ziren familia horiek denek, Elbiraren lagunak izateaz gain, bat egiten zuten asmo batean: euskal eskola berria nahi zuten.

Euskarazko material didaktikoari dagokionez, hutsaren hurrengoia zen garai hartan; *Xabiartxo* zen euskaraz aurki zitekeen liburu bakarra. Egoera horrek ez zuen Elbira atzeratu. Ezagutu zuten guztiek, jakin-min handiko emakume gisa deskribatu zuten. European pedagogia arloan egiten ziren ikerketen berri edukitzeaz arduratzen zen, eta Frantzian zuen ahizpa mojarren bidez, Frantziako heziketa sistema sakonki ezagutu zuen. Antza, ahizpa mojak lagundu zion bere prestakuntzan. Ezagutza horiek guztiak baliatu zituen euskal etxe-eskola eta ikastola irakasteko eta ikasteko

era berriaz janzteko, era guztiz iraultzailean; 50eko hamarkadan Espainian erabiltzen zen pedagogiarekin alderatzen badugu behintzat.

Andereñoen andereñoa

Lehen aipatu denez, bere etxean egin zuen lan pedagogikoa; lan hori, ordea, ez zuen soilik haurrekin egin. Hainbat andereño hurbildu ziren Elbirarengana euskaraz irakasten ikasteko eta trebatzeko. Horiekin, pedagogia bide berritzaileenak jarraitu zituen.

Munduko Euskal Biltzarra egin zen Parisen 1956ko irailaren 23tik 29ra. Han bildu ziren Euskal Herriaren egoeraz hausnartzeko, erbestean zeuden erakundeak eta diasporako eta Euskal Herriko ordezkari politiko, sindikal eta kultural ugari. Bertan zen Elbira Zipitria ere, beste andereño batzuekin batera: Karmele Esnalekin eta Mari Angeles Garairekin, besteak beste.

Munduko Euskal Biltzarrak irakaskuntza arloari arreta berezia jarri zion. Han- hemenka ernatua zen jada haurrentzako euskarazko irakaskuntza eratu beharraren kezka, eta biltzarrean azaldutakoek kezka hori indartu baino ez zuten egin. Elbira aitzindari ikusten zuten, eta bertan ziren hainbat andereñok bere lana hobeto ezagutzea erabaki zuten.

Bestalde, ikastola berriak ireki nahi zituztenak Elbirarengana joaten ziren ikastera, eta metodo berrian trebatzera.

Beraz, 1956tik 1968ra, bere eskolak emateaz gain, euskal andereño gazteen prestakuntzaz arduratu zen. Besteak beste, hauek izan ziren Elbirarekin praktikak egin, eta ondoren etxe-ikastolak zabaldu zituztenak: Faustina Carril 1953an; Karmele Esnal eta Jone Forkada, 1952-1953. ikasturtean, Karmele Esnal, Santo Tomas lizeoko oinarria izango zena, 1957an; Mari Karmen Mitxelena, 1956an; Mari Karmen Lasarte, 1957an; Kontxi Beitia, ondoren Pasaiaiko ikastola antolatu zuena, 1960an; Arantxa Arrazola, 1961ean; Maritxu Mariezkurrena, Hernaniko Urumea ikastolaren sortzailea, 1962an; Begoña Goia, 1968; eta abar.

Elbirak ezinbestekotzat jotzen zuen urtebetez berarekin praktikak egiten ariteza bere irakasteko metodoa jasotzeko. Bere ustez, hori egin gabe ez zegoen metodoa jasotzerik. Gero, urtebeteko prestakuntzaren ondoren, andereño berriak ikastola zabal zezakeen.

Ez zuen edonor onartzen praktikak egiten bere ondoan. Lehenik eta behin, irakasle tituluduna izan behar zuen, ezinbestez. Halaber, nahikoa zabaldua zeuden zurrumurruen arabera, praktika horietan parte hartzeko ezkongabea izan behar zen. Bere izaerarekin bat zihoan jarrera zen hori, berarentzat haurren heziketan familia oso gune garrantzitsua baitzen, eta amek egun osoa behar zuten egin behar horretarako; ez zuten, beraz, astirik etxetik kanpoko lanetan jarduteko.

Bere metodoaren funtsa jasotzeko baldintza bizitzea zen; ikustea, entzutea, behatzea... horrela jasotzen zen metodoaren logika. Horretaz guztiaz hobeto jabetzeko banaka hartzen zituen praktiketakoak.

Lekukoaren arabera, oso zaila zen agertzen zuen bizitasunari, erritmoari, jarraipenari, eta irmotasunari jarraitzea.

Bestalde, oso zorrotza zen praktiketan ari zirenekin; ikasitakoa ez bazuten erabat ongi egiten, errieta egiten zien. Askotan, azalpenek gaua arte irauten zuten; antza, berak ere haien beharra zuen bere bakardadea nolabait betetzeko. Praktikak Elbirarekin egin zituztenen esanetan, indartsua zen, eta andereño gaiak ez ziren ausartzen ezer esatera.

Praktika horien bidez hainbat andereñoen prestakuntzan zuzenki esku hartu bazuen ere, ez zuen gogoko ikastaroak ematea, eta eskaera formal asko jaso bazituen ere, ez zuen sekula ikastarorik eman.

Andereñoen prestakuntzarako Donostian sortu zen barnetegira sarritan deitu zioten, baina ez zen inoiz joan.

Donostiako Irakasleen Barnetegiaren helburua Elbiraren ondarea jasotzea eta hezitzaile berriei zabaltzea zen. Barnetegi hori, Elkano kalean zabaldu zuten, eta 1964tik 1973ra arte egon zen zabalik. Elbirarekin harremanak zituen irakasle taldeak sortu zuen, eta Elbirari proposatu zioten bertako prestatzailea izatea, baina ez zuen onartu. Beraz, berarengana joan behar izaten zuten.

Emakumeek bakarrik hartzen zuten parte, ez zen edozein sartzen, hautatuak izan behar zuten. Talde zabala osatzen zuten, iritzi asko bilduz. Guztiak oso protagonista sentitzen ziren.

Barnetegia mojen esku zegoen. Elbira horien aurka azaltzen zen espainolistak zirelako, eta, garai hartan, euskal identitatea berreskuratzeko behar handia zegoen.

Barnetegian zeudenek, egunez praktikak egiten zituzten, eta gaez prestakuntza jasotzen zuten. Lantzen ziren gaien artean, euskal gramatika, euskal kultura, pedagogia, psikologia, musika, euskararen erabilera, kataluniarren lan pedagogikoaren jarraipena, irakasleentzako udako ikastaroen antolaketa, pedagogia zentzuduna, irakasleentzako mintegiak eta diziplina zeuden, besteak beste.

Hausnarketa pedagogikorako gune bihurtu zen barnetegia. Arduradun zintzoak eta konprometituak bilatzen zituzten; zentzudunak, diziplina ez autoritarioa erabiltzen zutenak. Gainera, talde bateragile bat zegoen, bailaretako ordezkariak biltzen zituena.

Barnetegian, bestalde, ekintza berriak sortu ziren: euskal udalekuak, udako ikastaroak, kataluniarrekin harreman pedagogikoak eta mintegiak.

Zabalik egon zen garaian, 45 pertsonak jaso zuten prestakuntza. Baliabide gabe geratu zen, eta pertsona partikularren nekeak ekarri zuen itxiera; haien hitzetan, "ezinezkoa izan zen jarraitzea".

Elbiraren lan egiteko moduan trebatutako andereñoak gero eta gehiago ziren. Baina, era berean, gero eta handiagoa zen beren seme-alabak ikastoletan hezi nahi zituztenen kopurua.

Donostian ez ezik, Gipuzkoako hainbat herritan ere ikastolen mugimendua oso zabaldurik zegoen 1963. urterako. Ikastola horien guztien atzean, Elbiraren eragina zegoen. Euskal Herriko gainerako herrialdeetan ere ikastolak sortzen ari ziren herriz herri.

Ikastolak asko ugaritu arren, ideologia abertzalea zuten familia guztiek ez zuten aukerarik euskal etxe-eskolara joateko, eskaera kopurua asko hazi baitzen, eta irtenbide bat eman beharra gero eta beharrezkoagoa bilakatu zen.

Donostian, itxaropenak Orixe ikastolaren sorrerari begira jarri ziren.

Orixe ikastola

Zabalkunde horren haritik, 1968an lau andereño elkartu ziren Donostiako Santa Maria elizako gela batzuetan eskolak emateko; Elbira Zipitria, Mari Karmen Mitxelena, Maria Teresa Aleman eta Koro Aldanondo. Huraxe izan zen, hain zuzen, Orixe ikastolaren sorrera. Elbirak bere izena ipini zuen ikastolako titular izateko, eta gainerakoek, bertan irakasle izateko.

Bitartean, ikastolek legearekiko zuten egoera okertzen ari zen. Garbi ikusten zen “Cartilla de escolaridad” inposatuko zutela, eta argi ikusten zen zerbait egin ezean ikastolak ikaslerik gabe geldituko zirela.

Zenbait ikastolak elizaren babesean legeztatze bideari ekin zioten. Egoera oso zaila bihurtu zen ikastolentzat, izua nagusitu zen ikastolen munduan; legeztatutako hainbat ikastetxetako zuzendariak iruzur egiten zuten ikastolak lagundu asmoz, baina egoera hura jasanezina bilakatu zen.

Ikasturte hartan bertan, 1967-1968 ikasturtean, Eskolatze Liburua derrigorrezko bihurtu zen, 1945eko azaroaren 15eko Lehen Hezkuntzako Legeak ahalbidetutako aginduaren bidez. Alfonso Capitán Diazek horrela dio Historia de la educación en España liburuan:

“La ley de 1945 fue trascendente para la solidez del sistema educativo del franquismo. La letra y el espíritu de la ley enarbolaban la dependencia y el servicio de la escuela a la Iglesia Católica, el aspecto social y patriótico de la educación como necesidad perentoria de la España de entonces y un nuevo modo de enjuiciar la Educación Primaria en la escuela como institución inscrita en el estado, la iglesia y la familia”.

Hurrengo ikasturtean, 1968-1969an, egoera erabat aldatu zen; ikastoletako ikasleek ezinbestekoa zuten liburua ikasketak jarraitu ahal izateko. Ultra-Moltó Gobernadore zibilak ikastolak legeztatze bidea ezarri zuen, eta ikastola guztiak legeztatu egin zituzten, Orixe ikastola barne.

Xabier Aranburu Puentek bere “Hezkuntzaren historia Euskal Herrian” liburuko 50. orrialdean legalizazioaren prozesuari eskainitako atalean, honela jaso zuen Mari Karmen Mitxelenaren testigantza:

“Orixe ikastolaren lokalak konpontzen eta Ikastolaren legeztazioa itxaroten igaro genuen 1968-1969 ikasturtea. Hau bukatzen ari zenean, ekainean, inspektorea etorri zitzaigun, ikastola eta haurrak ikustera, legeztapenaren baimena emateko. Benetan oso gogorra izan zen. Gogoratzen dut lehenik nere klasera etorri zela eta izugarrizko azterketa egin ziela. Nere haurrekin hiru ordu egon zen. Jakintzaren maila aztertzeko proba asko egin zituen, gero garaian “Formación del Espíritu Nacional” zelakoa aztertzeraz igarotzeko. Benetan gogorra gertatu zen azkeneko hau. Nik 9 urte bitarteko neska-mutilak nituen eta han ibili zen galdezka: “¿Cual es tu patria?” eta ikasleek “Mi patria es Euskadi” eta “¿Conoces alguna bandera?”, “¿Conoces el escudo de España?”. Bai, oso gogorra izan zen. Inspektorearen konklusioa zera izan zen: jakintzaren aldetik eta pedagogiaren aldetik umeak oso ondo prestatuak zeudela, baina politikaren aldetik desastre bat zela. Ni, hura gure arazoa ez zela argitzen saiatu nintzen, politika gurasoen gauza zela eta orokorki egoerarena. Pentsa, egun hartan bertan, Ikurriña agertu zen Gazteluaren tontorrean eta haurrak ikastolara etorri baino lehen, gehienak joanak ziren ama edo aitarekin ikustera; noski, arazo guztia testuinguru horretan kokatu behar da. Hurrengo egunean, berriro ere ikastolara etorri zen eta Elbiraren klasean aritu zen; han okerragoa izan zen. Guzti hau eta gero, irakasleok jota bukatu genuen, ondo gogoratzen dut zein nolako negar saioa egin genuen, ikastola itxi egingo zigutela pentsatuz. Berehala, ikastolako gurasoen juntakoak, Xabier Aizarna, Diputatu Nagusia izan dena eta Orixe ikastola sortzen ari zen memento hartako guraso haiek, parrokoarekin bildu ziren eta lehen bait lehen inspektorearengana joatea erabaki zuten, ea ikastola bateko inspektzioa edo poliziaren inspektzioa izan zen galdetzeraz. Badakit ikuskatzaileak berriro ere, neska-mutilak didaktikaren aldetik oso ondo prestatuak zeudela baina politika aldetik desastre bat zela, adierazi ziela. Gurasoek, hori bere ardurapean hartzen zutela erabaki zuten. Eta legeztapena ukatuko zigutela espero genuenean, ikastola zabaltzeko baimena iritsi zitzaigun. Horrela, era honetan, lau andereño hasi ginen Orixe ikastolan 80 bat umerekin.”

Elbirak, ordea, ez zuen begi onez ikusi ikastolek hartu zuten bidea. Ez zitzaion batere gustatzen legalizazioaren kontu hura guztia. Bere iritziz, ikastola eta euskara galeran, kaltetan, suertatuko baitziren; hitz batean, ikastola eta euskara arriskuan ikusten zituen legalizazioaren bidea urratuz gero.

Elbira lanerako bakartia zen, ez zuen talde lanean aritzeko dohainik. Legalizazioaren inguruko kontuek eta ikastola hartzen ari zen bide berrien kontuek lankideekiko harremanak zaildu zituzten, gainera. Ikastolan lanean igaro zituen azken urteak nahikoa gogorrrak suertatu zitzaizkion, eta, azkenik, 1971n, 65 urte zituela, Orixe ikastola utzi zuen.

Hezkuntza ekimena

Elbira Zipitria bokazioz irakaslea izan zen, eta senez guztiz eraberritzailea. Nahiz eta politikan buru-belarri murgilduta egon, denbora nahikoa eskaini zien heziketaren berrikuntzari eta heziketarako estrategiak ezagutzeari. Bete-betean bizitu zuen abertzaletasuna; beraz, ez zen oztopo izan berrikuntzarako eta heziketarako estrategiak gauzatzeko.

Urte haietan, euskararen alde, abertzaletasunaren alde eta emakumeen heziketaren alde egiteko lanbide bakarra hezkuntza zela iritzi zion Elbirak, jaso zuen prestakuntzaren ondorioz, seguruenik. Ez dezagun ahantz teresarretan ikasi zuela 3 urtez gutxi gorabehera, eta bere praktika eta bizitza Teresarrei lotuta egon zela luzaroan.

Zehazki, Elbirak, Pedro Poveda apaiz Teresarraren eta pedagogoaren mezua jaso zuen, hain zuzen: “heziketa izaera soziala duen zeregina da, eta hiru zutabe handiren gainean oinarritzen da: komunikazio printzipioa, askatasun-erantzukizun printzipioa eta berdintasun-desberdintasun printzipioa.”

Pedagogoaren arabera, azken zutabe hori, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko funtsezko berdintasunean oinarritzen da; hori baita, jendearen garapenaren arlo batzuetan berdintasunerako eta beste batzuetan desberdintasunerako eskubidea izateko iturria, emakumearen aukerak mugatu gabe.

Elbirak garatu zuen metodoa, bere euskal etxe-eskolan sortu zuen, eta han burutu eta jarraitu zuen. Ondoren Orixe ikastolan egin zuena, kopia bat besterik ez zen izan.

Haurrekin lanean hasi zenerako finkatuta zuen bere helburu nagusia: haurrek euskara ikastea eta erabiltzea. Lanean egin zuen ibilbideak, berriz, bi zutabe izan zituen: euskara eta berrikuntza pedagogikoa. Ikastolen sortzailea izan zen arren, ez zuen sekula inolako harrotasunik agertu.

Emakumearen berdintasunean sinesten zuen zinez, eta borroka hori ere txertatu zuen bere metodoan. Beraz, etxean bakoitzak bere lanak egitea defendatzen zuen arren, neskak eta mutilak elkarrekin izan zituen gelan. Ez zuen rol bereizketarik egiten, eta denek hartzen zituzten palak, panpinak, erratzak eta erremintak. Hori horrela izanik ere, neskekin eta mutilekin zuen jokaera ez omen zen bera, eta neskekiko jarrera leunagoa agertzen omen zuen.

Orain eskola guztietan neskak eta mutilak nahasturik badaude ere, garai hartan oso ideia berria izan zen, ofizialki Espainiako eskoletan neskek eta mutilek banatuta egon behar zutela araututa egon baitzen 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorra argitaratu zen arte.

Iturri pedagogikoak

XIX. mendearen azken urteetan eta XX. mendearen lehen zatian, irakaskuntza arloan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Espainiako hezkuntza sisteman, eta ondorioz Hego Euskal Herriko eskoletakoan, Europako eta Ipar Amerikako korrante pedagogiko nagusiak lantzen hasi ziren; aldaketa horiek, heziketaren kontzeptualizazioan barneratzen hasi ziren korrante haiek aldarrikatu zituzten, zailtasun handiekin gertatu bazen ere.

Elbira Zipitriak bere bizitza profesionalerako baliagarriak zitzaizkion ideia berritzaileak hartu zituen Espainian, Katalunian eta atzerrian zehar egindako bidaietan; mintegietan, solasaldietan eta mitinetan parte hartuz eskola berriaren aldeko jarrera sortzen lagundu zuen.

Bestalde, bere zeregin pedagogikoa eskolak ordu arte zituen ohiko praktikak deuseztatzea bideratu zuen, eskola euskalduntzeko eta modernizatzeke helburuarekin, hain zuzen.

Elbiraren nahia zen euskal haurrek heziketa beren ama hizkuntzan jaso ahal izatea, jakituria euskaraz landu ahal izatea. Gainera, estilo berri hori gauzatzeko irakasleak birziklatzetik hasi behar zela ohartu zen, eta zeregin horri denbora asko eskaini zion. Esan gabe doa, garai hartarako nahikoa ezohikoak izan zirela ideia horiek guztiak.

Puntako pedagogoen lanen berri izan zuen, eta haien irakaspenak eta teoriak jaso zituen bere metodorako. Eta eragin horiek isla garbia dute bere hezkuntza ekimenean.

Pestalozziren doktrinarekin bat eginez, Elbiraren iritziz ere, kanpoko zein barruko bizipenak dira irakaskuntza eta ikaskuntza jardueren abiapuntuak eta ikasleen eskola. Haien esperientziak oinarritzat harturik, ziurtatu behar da jarduerak ikasleen bizitza errealararekin harremana dutela beti. Ondorioz, Elbirak azaltzen digu hezkuntzaren esku-hartzea ez dela oinarritu behar ahoz transmititutako informazioan, baizik eta bizitzako esperientzietan eta gertaeretan. Halaxe erakusten zuen, behintzat, herriarekiko maitasunean eta irakasbidearen argitasunean.

Era berean, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako diseinatzen zituen jardueren xedea, ikasleek aurreko esperientzietatik zekitena eta eduki berriak erlazionatzen laguntzea zen. Jarduteko modu horri, gaur egun, ikasketa esanguratsuen eraikuntza esaten zaio.

Elbirak bere metodo pedagogikorako beste ideia batzuk Montessoriren iturri oparotik hartu zituen. Montessori pedagogia zientifikoaren korronteko jarraitzailea zen. Bere pedagogiarenean nagusiak, “Casa de Bambini”-etan haur hezkuntzari aplikatutako pedagogia zientifikoaren metodoa azaltzeko liburuan (1909) zehaztu zituen. Horien oinarrian dago, hain zuzen, hezkuntza bizitzako lehenengo urteetatik garatu behar den autoheziketa prozesu gisa ulertzea.

Aipatu beharrekoa da Montessori sistemak garrantzi handia ematen ziola irakasleak ikasketa zuzendari gisa jokatu behar zuen rolari. Aurrerakoi gehienentzat,

Herbatek bultzatutako sistema baino erakargarriagoa eta eraginkorragoa zen, azken horrek haurra menpeko memorizatzaile gisa hartzen baitzuen.

Elbirak Maria Montessorirengandik hauxe erakarri zuen batik bat: logika, hizkuntza, behaketa eta esperimentazioa garatzeko bereziki sortutako materialen eginkizuna, eta, baita ere, irakasleek irakaskuntzan jokatzen duten papera.

Ovidio Décroly pedagogia zientifikoaren beste ordezkariak ere, aztarna ugari utzi zituen Elbiraren metodoan. Décroly, batez ere, irakurtzen eta idazten ikasteko metodo globalaren eta interes guneetako metodo globalaren sortzailea izan zen.

Décrolyren arabera, benetako interesa ezinbesteko behar bati lotuta ageri da, eta interesa aldagai hauen arabera sailkatu zuen: elikatze beharra, arriskuetatik babesteko beharra eta hobetzeko eta atseden hartzeko beharra.


Elbirak Ovidio Décrolyrengandik zera erakarri zuen: etxeko interesak lantzea, ospakizunak, irteeretako arauak eta abar.

Jean Piageten iturri pedagogikoetatik ere edan zuen. Piageten teoriaren arabera, eragiketa zehaztatik hasten da haurraren jardura adimentsua. Elbirak oso ondo baliatu zuen teoria hori. Teoria horren arabera, eragiketak beren abiapuntuetara itzul zitezkeen barneratutako jarduerak ziren, baina itzulgarritasun hori beste jardura batzuekin integratu beharko litzateke. Piageten arabera, eragiketak objektu zehaztetan oinarrituta eramaten dira aurrera.


Piagetek eragiketa hauek aipatu zituen: itzulgarritasuna, konbinazioa, identitatea eta tautologia. Eragiketa-etapa zehatzak eta eskemak, jakintzagai matematikoetan eta logikoetan identifikatutako eragiketa partikularren antzekoak dira.




Konposaketa eta deskonposaketa.




Batekoa.



Hamarrekoa.



Ehunekoa.



Konposaketa eta deskonposaketa.

Elbiraren ikasleak eragiketa-etapa horretan zeuden, eta eragiketa zehatzek eskatzen zuten arrazoiketa adibideekin adierazten zuen gelan, errazteko. Sailkapenari eta seriazioari buruz Inhelderrek eta Piagetek lortutako ondorioen erantzunak ikertzaile horiek lortutako emaitzen

aldekoak izan arren, pertsonen horietako zenbait lan kognitibotan, eta baita haiek menperatzeko eman beharreko urratsetan ere, aldagaiak azaltzen dituzte.

Célestin Freinetengandik, berriz, Elbirak eskola zabaltzen ikasi zuen bizitzari sartzen uzteko. Freinet, beste zenbait pedagogorekin batera, eskola berriaren bultzatzailea izan zen. Eskola berriak hezkuntzari ekarri zizkion berrikuntzen artean, heziketaren indibidualizazioak garrantzi handia izan zuen.

Freineten ekarpen nagusia fitxen erabilera izan zen. Fitxak ziren heziketaren indibidualizazioa ziurtatzeko baliabide bat. Fitxa horiek hiru motakoak ziren: Fitxa dokumentalak, informaziorako balio duten fitxak; fitxa motrizak edo fitxa matrizeak, kontzeptuak lortzeko balio dutenak; eta, azkenik, ariketa fitxak, ariketak edo jarduerak egiteko fitxak. Horiez baliotu zen nagusiki Elbira.

Eskola berria

Hezkuntza Berriaren Elkarteak eratu zen 1921ean. Mundu zabalean hedatu zen, eta bi edo hiru urtez behin hitzaldiak egiten saiatu ziren elkarteak osatzen zuten pedagogoak. Garai hartan, elkarteak hezkuntza aurrerakoiaren helburuak aldarrikatu zituen. Beraz, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran sortutako pedagogi berrikuntzaren aldeko mugimendu berri bat zen.

Sorburuan, joera pedagogiko berriak aplikatzen zituzten eskola askoren obra eta jarduera praktikoak zeuden, eta planteamendu askotan oinarri iraultzaileak proposatu zituen eskola hark; eskola tradizionalan ikasleek zuten pasibotasunaren orde, parte hartzea defendatu zuen; memorismoaren eta errepikapenaren aurrean, metodo naturalen erabilpena proposatu zuen; irakasleen eta ikasleen rola eraldatzea aldarrikatu zuen: lehenengoa transmititzailerik hutsa izatetik gidari, aholkulari eta laguntzaile izatera pasatzea; hau da, irakaslea beste dizipulu bat balitz bezala izatea, beti ikasteko jarrerarekin, ohorezko aulkitik jaitsita, bere ahalegina haurren zerbitzura bideratuz.

Haatik, eskola berria osatzen zuten partaideek desberdintasun handiak zituzten elkarren artean. Hala ere, eskola guztiak ondorengo ezaugarriak betetzen zituzten:

- Puerozentrismoa: haurra da hezkuntzaren ardatza, eta gainerako guztia haren zerbitzura jarri behar da. Oro har, ez da onartzen haurtzaroa heldutasunera iritsi aurreko aldia dela dioen eskola tradizionalaren pentsamendua; aitzitik, bete-betean eta alaitasun handiz bizi behar den aldia dela pentsatzen da. Irakaskuntzaren edukiek haurren premiekin lotura handia izan beharko dute.

- Hezkuntza globalizatzailea: hezkuntza globala dela defendatzen du eskola berriak, pertsonaren alde guztiak, eta ez soilik intelektualak, kontuan hartuko dituena.

- Irakaslearen funtzio gidaria: aldaketa handia gertatzen da ordura arte irakasleek zuten funtzioan; aurrerantzean gidaria, animatzailea eta iradokitzailea izango da, ikasleen banakako desberdintasunak errespetatuko ditu, ez du ezer inposatu behar, ez du irakasten, eta eskatzen zaionean bakarrik esku hartzen du.

Materialak eskaintzen dituen subjektua besterik ez da. Irakaslea ez da, beraz, eskola-bizitzaren ardatza.

- Aktibismoa: ikasleak eskolan eta etxean egiten dituen jarduerak dira abiapuntua. Ondorioz, bat-bateko interesen menpe dauden jarduera horiek ikaskuntza eragingo dute. Benetako garapena jarduera pertsonalaren ondorioa da, emandako materialak erabiliz egin daitezkeen ekintzen bidezkoa, hain zuzen.

- Irakaskuntza banakako prozesua da: erritmo eta sakontasunari begira, gainera, desberdina da subjektu bakoitzarentzat.

Ezaugarri horiei guztiei jarraiki, Elbirak ez zituen hartzen soilik liburuetako gauzak heziketa gaitzat eta ikasgelarako lantzat. Aitzitik, beste edozein gertaera baliatzen zuen: haserreak, ezbeharrak, ospakizunak, heriotzak, herriko gertaerak eta abar.

Bestalde, gai guztiak diziplinartekotu zituen, heziketari koherentzia eta esanguratasuna emanez; hizkuntza zuzena oinarritzat hartuz, eta gai korapilatsuenak ere bide errazetik baina tinko erakutsiz; eta, azkenik, bere papera, irakaslearena, eta ikaslearena eraldatuz.

Adibide gisa, eta Elbirak zuen kultura pedagogikoaren erakusgarri, hona hemen gelako liburutegian zeuzkan zenbait aldizkari, liburu eta txosten:

- Aldred, B.: *Les idées modernes sur les enfants*. Ernest Flammarion. Paris, 1938.
- *La iglesia y los deficientes mentales*. Patronato San Miguel. Donostia.
- *La integración social, profesional y eclesial del insuficiente mental*. Patronato San Miguel. Donostia.
- *Nos travaux et nos jeux*. Studia. 1955.
- Cendrero, O.: *Anatomia y fisiología humanas*. J. Martinez. Santander, 1921.
- D'haëne, M.: *Apprenez-nous*. Jean Ruckert. Paris
- Françoise, L.: *Leur culture physique*. Curial-Archereau. Paris 1945.
- Gasteiz, Ch: *Euskaldunak*. Aintzina. Bordele 1943.
- Goumy, E: *Observons pour connaître*. Bourrelier. Paris 1955.
- Goyeneche, E: *Notre terre Basque*. Ika. Baiona 1961.
- Herbinier-Lebert, S: *Cherche et trouve*. Nathan.
- Iturriotz, P: *Lutelesti*. 1932
- Leterrier, L: *Programmes instructions*. Hachette. Paris 1936.
- *Ley General y financiamiento de la reforma educativa*. Escuela española. Madril 1970.
- Lora Tamayo, M: *Ley de educación Primaria*. Escuela Española. Madril 1936.
- Piroley, E: *L'educatrice chrétienne*. Desclée de Brouwer. Paris 1936.
- Sebilleau, F: *Les gammes de la méthode active*. Lyon.
- Vicent, T: *Pour piqueter et déchiqueter*. Nathan. Paris 1937.

Eskola bizia

Ekar dezagun gogora zein egoera aurkitu zuen Elbirak gerra amaitu eta erbestetik etxera itzuli zenean.

Garai hartan, erregimen garaileak bere sorrera aroari ekin zion. Oinarri ideologiko zaharminduenak, espainiar nazionalistenak, kontserbadoreenak eta totalitarioenak nagusitu ziren.

Urte haietan, Espainian, hezkuntzak kontrol dirigista zurruna eta zorrotza jasaten zuen, hezkuntzaren eta kulturaren arloan nazional-katolizismoa esaten zitzaiona. Horiek guztiak, are eta indar handiagoz ezarri zituzten Hego Euskal Herrian.

Ondorioz, Espainiako hezkuntza sistema, eta bertatik zetozen lege eta araudi guztiak, uniformatu eta gogortu egin ziren; adibidez, 1938ko martxoaren 5eko zirkularra, zeinak ikastetxeetako orientazio pedagogiko berria azaltzen zuen. Horren arabera:

- Ikasleei aberriaren ideia transmititzen zitzaien, Espainiako historia ulertzeko modu berria ezarriz, joera kritikorik eta gaitasun analitikorik gabe.

- Ikasleek mugimenduaren ideiekin derrigor bat egiteko betebeharra zuten.

- Eskola frankistak ez zuen kontuan hartzen gimnasiaren bidezko estimulazio fisikoa intelektualtasunaren osagarri gisa; aitzitik, esanekotasunean, diziplinan eta ordenan oinarritutako balio jakin batzuekiko prestakuntza sustatzen zuen.

- Ohitura erlijiosoak eta aberriaren aldeko jardunak lehenesten ziren, eta oinarritzko ikasgaietarako denbora gutxi geratzen zen.

Neurri horien guztien ondorioz, ikasleengan ahalmen sortzailea eta adimen kritikoa eta analitikoa eratzea galarazten zen.

Eskola berriaren egarri zirenek ez zuten gogoko haien haurrak hezkuntza nazional-katolikoaren printzipioen konfesionaltasunean heztea; edota, neska-mutilek bereizturik ikastea eskolan. Hortaz, eskola nazionalak zekarren zamarekin (irakaskuntzaren alorrean hainbat legetan xedaturiko kontsignak indarrean zeuden), eta ikastetxe pribatuak alternatiba bakar izanik, indartzen ari ziren euskal etxe-eskolak ondorengo ikastolen sorburu bihurtu ziren.

Elbirak bazuen European ziharduten joera aurrerakoienen berri. Hala ere, badirudi autodidakta izan zela; batez ere, pedagogia mamitzeko garaian. Beraz, ondoko ideietan oinarritu zen Elbira Zipitriak gauzatu zuen jardun pedagogikoa:

- Hezkuntzaren ardatz izan behar dute haurren nortasunaren ezagupena eta bere eskubideen errespetua.

- Naturarekin bat eginda bizitzea kultura integralerako oinarri-oinarrizko aldagaia da.

- Osasuna eta sasoi ona nahitaezkoak eta berezko baldintzak dira edozein gaitasun intelektual eskuratzeko.

- Ordutegi mugatua, talde mugatuak eta metodologia egokia ezinbestekoak dira etekin handiagoa ateratzeko.

- Jendeak morala duen heinean, haurraren ardua etengabea eta lehentasunezkoa du.

- Familiako diziplinaren balioa eskolako bizimoduaren oinarria da.

Hala ere, Elbiraren gelan, ikasleek gerrarik izan ez balitz bezala parte hartzen zuten. Espainiak kondenatutako morrontza hartan ikastola sor zitekeela pentsatzeak ere lanak ematen ditu. Frankismoaren urte gogorrenetan izaera horretako egitasmoa abiarazteko adorea eta hezkuntzarako bokazioa behar ziren, zalantzarik gabe; Elbirak, bietatik zuen soberan, hark zioen gisan: "ogibidea jarduna da; ofizioa, berriz, pasioa".

Hezkuntza, Elbirarentzat, aldi berean magia eta logika behar dituen artea zen.

Gehienetan ikasleek bizi zuten gertuko egoeratik abiatzen zen; beti ere, haien interesa pizten baitzuen. Ondoren, arreta bizituko zuten ilustrazioekin atontzen zuen mintzaldia: zenbat eta harrigarriagoa, hobe.

Eskolaren egitura logikari jarraituta prestatzen zuen: sarrera, garapena eta ondorioak.

Gaiak, berriz, elkarrekin lotzen saiatzen zen, kontzeptuak eta ideiak errepikatzen. Esaterako, *Orixek* idatzitako paragrafoetara jotzen zuen; horietan agertutako abstrakzioei buruz gogoeta eginarazten zien ikasleei, iritzia emanarazten zien, eztabaidarazten zituen eta buruz ikasarazten zien, testuen interpretazioan sakon zezaten.

Elbirak eskola bizia egiten zuen. Haren esanetan, garrantzi handia zuen etxeko giroari jarraipena ematea ikastolan. Hala, bere ikastola etxea zen; are gehiago, bere etxean zegoenez, aukera guztiak erabiltzen zituen etxeko gauzak eta lanak egiten irakasteko.

Elbiraren eskola, beraz, bizia zen, eta hurrek gauzak ikusi eta bizi egiten zituzten; inguruko egoerak ikasgai bihurtzen zituen.

Gainera, irakasleak gelan zuen papera eraldatu zuen Elbirak. Besteak beste, hauek ziren egiten zituen lanak: bizitzarako ikasgaiak proposatu, elkarriketa arinak, gramatika, irakurketa-idazketa, otoitza, gai erlijiosoak jorratu, jolas eta abesti gidatuak bideratu, aberriari buruzko gaiak landu, zenbaki lanak eta matematika, jolas eta abesti libreak ahalbidetu, haurrak praktiketako andereñoekin bakarrik utzi, haurrak bere gisara utzi norbaitekin hitz egiten ari zen bitartean, lanen zuzenketak eta txangoak prestatu. Ikasketa prozesua oso globala eta eraginkorra zen, inguruarekin lotua eta bizitzarako lagungarria. Jarduteko modu horrek ezinezkoa egiten zuen denbora zehatz-mehatz banatzea, baina bloketako lanek erakusten digute erlijioari eta hizkuntzari eskaintzen ziela denbora gehiena.



Gelan haurrak lurrean esertzen ziren, eta idazketa egin behar zutenean mahaia jaitsi eta zabaltzen zuten. Eskola ez zen han amaitzen, ordea; sarri ateratzen ziren inguruak behatzera azokara, mendira, kalera eta abar.

Ostegun arratsaldero, berriz, ikasleekin Urgulleko gaztelurantz igotzen zen. Ibili eta haizea hartzeaz gain, ikastera joaten ziren.

Bestalde, Donostiako azokara ere sarri joaten ziren, irakaskuntzarako bitartekotzat baitzuen. Ekintza horiek aurretik ongi programatu ondoren burutzen zituzten. Bidean, gainera, kantari joaten ziren. Haurrek bidean aurkitzen zuten guztia biltzen zuten: gaztainak, hostoak, goroldioa, huntza, loreak eta abar.

Ondoren, eskolan, haietaz guztietaz baliatzen ziren behaketak eta azterketak egiteko. Beraz, eskolaz kanpoko irteera bat egin ondoren, gaiari buruzko lantxoak egiten zuten.

Elbirarentzat behaketa ezinbestekoa zen kontzeptuak eta gaiak barneratzeko, buruz ikasitakoa gutxiagertatzen zen.



Elbirak ikasleen bloketan idatzitako zenbait ohar.

Jakintza zientifikoa eta teoria pedagogikoa eskolan praktikan erabili ahal izateko moldaketak egin zituen, eta natur zientzien irakaskuntza berritu zuen.

Matematika arloan ere, konkretutik abiatzen zen gero abstrakziora pasatzeko: zotzak, puxtariak, goxokiak, saguak eta beste ziren erabiltzen zituen materialak, eta kantuen eta jolasen bidez lantzen zituen.

Hizkuntzari, berriz, garrantzi handia ematen zion. Bere ustez, hizkuntzaren aberastasuna abesti eta olerki ederretan aurkitzen zen. Horregatik, bere ikasleek 100 abesti baino gehiago zekizkiten. Kanta horiek oso ongi aztertuak eta sailkatuak zituen; lehenengo mailako ikasleei abesti batzuk irakasten zizkien eta helduagoei beste batzuk.

Erlijioa beste arlo garrantzitsua bat zen Elbirarentzat. Eskola konfesionala zen, baina Elbirak ez zuen gustukoa garai hartan irakasten zen erlijioa. Arlo horretan ere berritzailea izan zen, beste modu batera irakatsi baitzuen erlijioa; kristau formazio modernoa eskaini zien bere ikasleei.

Bere ustetan, heziketa osoa izateko, erlijioa ere irakatsi beharra zegoen. Ez zuen gune berezirik erlijioa irakasteko, familien inguruko egoerak baliatuz bizi egiten zen erlijioa ikastolan: heriotzak, bataioak, ospakizunak, jaunartzeak, guztiak zitzaizkion baliagarri.

Elbirak zioen otoitza ez zela Aitagurea esatea bakarrik; baizik eta gaztelura igo eta handik ikusten ziren gauza ederregatik Jaungoikoari eskerrak ematea ere otoitz egitea zela. Arlo horretan ez zetorren bat garaiko pentsakerarekin. Urgulleko gaztelura joaten zirenean adibidez, lehen geldidunea Santa Teresako elizan izaten zen. Han Elbirak otoitz bat asmatzen zuen, Euskal Herriaren egoerarekin lotua eta egunerokotasuna zuena gehienetan; ondoren, ikasleek otoitz bera errepikatzen zuten. Ez zuen egituratutako otoitzik erabiltzen, orduan ohi zen modura.

Erabili zuen materiala, berriz, hauxe da: *Xabiartxo* irakurtzen ikasteko, zotzak idazten ikasteko, potokak zenbakiak lantzeko, irteeretan jasotako hostoak, harriak, loreak behaketak egiteko eta datuak lortzeko, eta abar.

Elbira Zipitriak, bere metodoa mamitzerakoan autodidakta izan arren, ekarpen handia egin zion irakaskuntzaren metodologiari. Inguruan sistema guztiz atzeratuak eta autoritarioak erabiltzen ziren garaian, bera Europako joera modernoak erabiltzen saiatu zen, matematikaren, hizkuntzaren eta esperientzien arloan, batik bat.

Urte haietan, 40ko hamarkadan, Espainian ez zegoen hezkuntza berrizatzeko mugimendu aurrerakoirik. Elbirak, beraz, liburuetatik jaso zituen ideiak. Gainera, jarduera horien bitartez, intereseko eta jakin-mineko jarrerak, eta behaketarako eta esperientziarako zaletasuna sustatu zituen. Jarrera horiek zorroztasun mailakatua eskatzen zuten errealitatearen azterketari eta errealitate horrekiko harremani dagokionez. Halaber, ikasleak mentalitate zientifikora eta horren metodoetara hurbiltzeko lagungarri ziren. Horretarako, adibidez, Elbirak astelehenetan gurasoei galdetu egiten zien asteburuko mendi bueltan ikusi zutenari buruz eta nola ikusi zuten: ea gartzainei moskola kendu ote zieten, ea desberdintasunez ohartu ote ziren eta abar.


Hezkuntza ekimenaren ezaugarri nagusiak

Elbira ez zetorren bat ezagutzak gaztelaniaz jasotzea bultzatzen zutenekin; aitzitik, ama hizkuntzan heztea aldarrikapen pedagogiko gisa hartu zuen.

Elbirarentzat hauek ziren heziketarako helburu garrantzitsuenak:

- Haurrek euskara ikas zezatela: hizkuntzaren bidez, euskal kultura, identitatea eta abertzaletasuna transmititzen zituen. Lehentasuna, ingurune soziokulturalean eta familiakoan egoera diglosikoaren ondorioz euskara ikasterakoan sortzen ziren gabeziak konpentsatzea zen. Bere pedagogia eginbehar horretara makurtzen zuen.

- Heziketa morala: Elbirak pertsona osotasunean ikusten zuen. Horregatik, saiatzzen zen lotura estua eramaten ikastolaren eta familiarean artean. Garrantzi handia ematen zien etxeko jarrerari eta ospakizunei: bataioak, heriotzak, meza entzuteak eta abar.



Bloketako lehen orrialdean agertzen den oharra: "zaharra bukatu gabe ez da berria hasten."

Neurri zuzentzaileei ere garrantzi handia ematen zien, ikasleek beren izaera bideratzen ikas zezaten. Ez zen besterik gabe andereñoaren hitza onartu behar izaten, baizik eta txikitatik garatzen hasten zen kritiko izaten ikasteko oinarriak. Hala ere, Elbiraren hitzek pisu handia zuten ikasleen eta familien aurrean.

- Ikaskuntza guztiak logikaz egitea: logika bera baliabide bihurtzen zuen ikasitakoaren erabilerarako. Hori oso argi ikus liteke bloketan, eta batez ere matematika lantzeko erabiltzen zituen adibideetan.

- Taldearen balioa, ni-ren orde gu: ondorioz, ikasleen erreferentzia ez da soilik andereñoa; beste kideak ere erreferente garrantzitsuak dira.

Elbiraren xedea zen helburuei ikuspegi globalizatzailea ematea. Horrek, hurrei elkarren artean lotura duten ikasketa errealak proposatzea esan nahi du; diziplinen arteko egitasmoak garatzea; eta arazoak bideratu ahal izateko konponbideak

proposatzea, hainbat ikasketa eremutako edukiak aplikatuz. Ikuspegi hori oso urrun zegoen garai hartan indarrean zegoen errealitatetik eta kanpoko ikasketen planteamenduetatik.

Finean, era honetako pertsonak lortzea zen helburua: euskaldunak, abertzaleak, zentzudunak, alaiak eta eleanitzak; egungo hezkuntzan punta-puntako erronka dugun eleaniztasuna, hain zuzen ere.

Elbirarentzat hizkuntzak bihotza ziren; gauza guztiak transmititzeko ezinbesteko tresna: sentimenduak, izaera, abertzaletasuna, kultura, nortasuna, tradizioak, jakituria... Horregatik, bere metodoan garrantzi handia eman zien berak ongi menperatzen zituen hizkuntzei: euskarari, gaztelaniari eta frantsesari. Hurrei bloketan adierazten zizkien oharrak nagusiki euskaraz idazten bazituen ere, gaztelaniaz eta frantsesez ere idazten zizkien. Haatik, ez zuen hori egiten geroko ikastetxeetan pentsatuz, baizik eta berak hizkuntzak asko maite zituelako. Hala, hizkuntzak irakasterakoan ere, helburu horiek indartu zituen berriz.



Oharrak ikasten ari ziren hizkuntzan idazten zituen.

Hizkuntzaren irakaspenean ikuspegi berri bat ekarri zuen bere ekarpenak. Gure ustez, eta horiek guztiak kontuan izanik, hauxe da Elbira Zipitriak ondorengo euskal irakaskuntzari, eta, bide batez, arlo horretan Euskal Hezkuntza Sistemari egin dion ekarria:

- Eskolak hizkuntzen erabilera bultzatzeko duen grina; metodologia berriak ikertzeko egiten duen etengabeko ahalegina; gogoeta; hobekuntzak bultzatzeko

LA ORACION

Cuando somos pequeños en nuestros días lo que aprendemos
 mucho antes nuestros primeros escritos sobre los árboles
 nuestra vida, cuando tenemos tres o cuatro años ya fuimos
 más allá los primeros y nos enseñan todos los palabras
 de los frutos que dicen abundantemente lo que aprendemos, sentamos
 o pensamos, se llama nuestra personalidad. Quiero aprender
 mucho, es una emoción. Me gustan los números, es otra cosa
 que me gusta, también es emoción. Pero saber
 hacer bien las cosas, hay que estudiar el lenguaje.



XOMORO ONEKI IZEN ASKO DITV EVSKERAZ

MITXELETA MITXIRIKA XIPIRITONA INGUMA TXIMURNU-TXAKUN

JAVNOIKOAREN MANDATAIA PINPILINFAVA APEA

ORÉGATIK EZ DEGV BEIN ERE ESAN BEAR

"MARIPOSA"

Hizkuntza, ingurunea, hiztegia eta abar lantzen.

ebaluazioa tresna gisa erabiltzea; eta, zer esanik ez, euskarak aurrera egin ahal izateko erabilerari eman dion lehentasuna.

- Lehenago adierazi dugun legez, eskola barruan hizkuntza ez izatea ikasgai hutsa; aitzitik, irakaskuntza-ikaskuntza jardueraren funtsezko euskarria izatea. Beraz, arlo guztietako irakasleak azken batean hizkuntzako irakasleak dira ere, memento oro erabilera eredu jakin batzuk erabiltzen dituztelako. Ikaslea horren eraginpean dago, irakasleak hizkuntzaren balioa eta garrantzia transmititzen baitio.

- Gainera, hizkuntza eskolako jardueraren euskarria denez gero, haren erabilera hobetu ahala, ikasleak aurrera egingo du errealitatearen irudikatze prozesuetan, pentsamendu abstraktu gero eta konplexuagoen garapenean, eta norbere ezagutzaren eraikuntzan. Ikasleek gelan erabilitako bloketan argi eta garbi ikusten da eraikuntza hori aurrera eramateko jarraitzen zuten bidea: matematikan eginiko ariketetan, jardueretan eta ekintzetan, batik bat.

AZTUNTASUNA

Ori bat luñetika jaso nai degunean, ikusirik
degu betit zerhaiteka eusteri bañha bezela sail
egiten saingula jasotzean.

Ori ori, beste gausa guzaiak bezela, astunada
Oriaren astuntasunak egiten du jasotzean
in guk sailtasun ori arkitzean.

Gausa guzian astuntasuna ez da berdina
bunian, lastoa bañha astunagoa da.
Astuntasuna neurtsako, asta-neurkia ena
biltzen degu.

Zenbaki berdinak biltzeko ba-da bide lasterak batubeta
laburia deritza. Batarako ikasi ditugu buruz talab.

Amarikoa bañha zenbaki aundiagoak ez dabigu
lasterka buruz biltzen.

Amar zenbaki bañha geingo ez dabigu lasterka buruz
biltzen.

Amarikoa bañha zenbaki aundiagoak biltzeko leengo ba-
tubeta biltzen dira gero amarikoa gero eunboak eta eta.

Batek biltzen amarikorik sortzen ba-da amarikori urasteo gero

Amarikoa biltzen eunboak sortzen ba-da eunboari erasteo gero

Amar zenbaki bañha geingo biltzeko Artak bezela sailha egiten degu
batubeta eta gero bi sakab biltze. Amar zenbaki bañha geingo
eta amarikoa bañha zenbaki aundiagoak biltzeko Artak bezela
sailha egiten degu batubeta ta sail biltzen leengo batek
eta gero amarikoa biltze ta gero bi sakab biltze.

- Bestalde, ikasleak hizkuntzaren bidez erakutsi beharko du bere ikaskuntza prozesuan aurrera egiten ari dela, ahozko testuetan nahiz testu idatzietan islatua agertzen baita; lanak, fitxak, eztabaidak, azterketak, aurkezpenak... Ondorioz, begibistakoa da hizkuntza menderatzeak, bat izan ala gehiago, eskolan arrakasta izatearekin edo porrota izatearekin daukan erlazioa. Elbirak kontzientzia handia zuen gai horrekiko, eta hori ere berak erakutsi zigun.

$4650 = 3825 \times 2 = 2550 \times 3 = 1912 \times 4 = 1530 \times 5 = 1275 \times 6 = 1092 \times 7 = 950 \times 8 = 850 \times 9$

$4650 \div 2 = 2325$ $2325 \div 3 = 775$ $775 \div 5 = 155$ $155 \div 11 = 14$ $14 \div 7 = 2$	$4650 \div 3 = 1550$ $1550 \div 5 = 310$ $310 \div 10 = 31$ $31 \div 11 = 2$	$4650 \div 4 = 1162$ $1162 \div 2 = 581$ $581 \div 7 = 83$ $83 \div 11 = 7$	$4650 \div 5 = 930$ $930 \div 10 = 93$ $93 \div 11 = 8$	$4650 \div 6 = 775$ $775 \div 5 = 155$ $155 \div 11 = 14$ $14 \div 7 = 2$	$4650 \div 7 = 664$ $664 \div 8 = 83$ $83 \div 11 = 7$	$4650 \div 8 = 581$ $581 \div 7 = 83$ $83 \div 11 = 7$	$4650 \div 9 = 516$ $516 \div 12 = 43$ $43 \div 11 = 3$
--	---	--	---	--	--	--	---

$8064 \div 2 = 4032$ $4032 \div 3 = 1344$ $1344 \div 4 = 336$ $336 \div 6 = 56$ $56 \div 7 = 8$	$8064 \div 3 = 2688$ $2688 \div 4 = 672$ $672 \div 6 = 112$ $112 \div 8 = 14$	$8064 \div 4 = 2016$ $2016 \div 6 = 336$ $336 \div 7 = 48$ $48 \div 8 = 6$	$8064 \div 5 = 1612$ $1612 \div 4 = 403$ $403 \div 11 = 36$	$8064 \div 6 = 1344$ $1344 \div 7 = 192$ $192 \div 8 = 24$	$8064 \div 7 = 1152$ $1152 \div 8 = 144$ $144 \div 9 = 16$	$8064 \div 8 = 1008$ $1008 \div 9 = 112$ $112 \div 11 = 10$	$8064 \div 9 = 896$ $896 \div 11 = 81$ $81 \div 12 = 6$
---	--	---	---	--	--	---	---

Anderenok ez au idaztasi du Berria
 Aurten gure triskin
 unentzat dira.
 unneak. Aurten
 gure maha-
 atrean-atre
 Ola ere gure maha-
 di guztiaren bostan maha.
 Biografia hiru unneen giza.

350 libelak Biografia
 Aurten ere dira inter gura
 ere dira agertu gura balaketa
 mutillak jaiatza eskutan
 Berri - Ora sabatzen.
 gura Eriaron maha-
 di guztiaren bostan maha.

- Azkenik, hizkuntzen ikasketa eskolan amaitzen ez den gisan, ikasketa horren onura ez da eskolara mugatzen. Hizkuntzaren garapena oso lotuta dago pertsonaren garapenari, haren pentsamendu abstraktuaren garapenari, jendarte talde batean integratzeari, bere sentimenduen eta emozioen adierazpenari eta abar. Halaber,

prozesu horiek guztiak ez dira eskolako garaia amaitzean eteten, eta ez dira soilik ikasgeletan garatzen.

Edukiei dagokionez, eta egungo terminologia erabiliz, hiru motako edukiak lantzen zituen gelan: prozedurazkoak, ezagutzazkoak eta jarrerazkoak. Erabiltzen zituen gaiak oso garbi ikusten dira ikasleen bloketan: ura, basoa, izarrak, eguzkia, ilargia, eguna, gaua, tximista, mendia, baserria, nekazaritza, zomorroak, burdina, Donostiako kosta Urgulletik ikusia, uraren beharra, haizea, garbiketa, zaintza, landareak, janariak, asmakizunak, auzoak, mundua... hitz batean, ingurua maitatzen irakasten zien.

Elbirak ekintzetan, jazoeretan, behaketetan eta abarretan oinarrituta lantzen zituen jarrerak eta kontzeptuak; hots, zentzumenen bidez eskuratutako guztian oinarrituta. Gaur egungo ikuspegitik begiratuta, horiei guztiei kontzeptuak esaten diegu. Hark haurren adina kontuan hartuta irakasten zuen, haurren garapen psikologikoa oraindik ezagutza abstraktuaren mailara iritsi gabea baitzen. Ikaslea kontuan hartzen zuen, egin zituen irakurketen bidez oso ondo ezagutzen baitzituen Piagetek deskribatzen zituen haurren garapenaldiak.

Argi eta garbi ikusten da azaldukoia ikasleen bloketatik jasotako adibide honetan:

GAIA: JANARIAK

Kontzeptuak:

- Zer dira?
- Nondik datoz janariak?
- Janarien ezaugarriak.

Prozedurak:

- Buruketak: salmentak, sukaldeko errezetak, kopuruak, neurriak.
- Irteerak: La Bretxa merkatura.
- Marrazkiak: maiz agertzen dira bloketan janariekin egindako ariketak eta marrazkiak.

Jarrerak: aipatu behar da urte haiek gosete urteak zirela.

- Mahaian jateko ohiturak.
- Helduekiko begirunea: nola jan, nola edan...

Ikasle izan zituen 6 urteko haurren blokak aztertu ondoren, guztietan komuna ikusi duguna aipatu nahi genuke: zein ongi idazten zuten. Beraz, kaligrafiari garrantzi handia ematen zion. Berdin jokatzeko ortografia eta sintaxiarekin.

Jarrerari dagokionez, ohikoa ikusi dugu ohartuak idaztea, ez bakarrik kontzeptuei buruzkoak, baita gerraren kontrako jarrerak, bakearen aldeko jarrerak, lana egitearen aldeko jarrerak eta abar azpimarratuz ere. Hona hemen zenbait adibide:

Asi ta...
 Narats beriz.
 Lana polikiago egin bear da.
 Ez zan au. Bigarëna zan.
 Korika eta gaizki gainera.
 Hemen zan potoka lana. Andereñok itz egitean arëtaaz entzun.
 Lan au ez zan emen, bere zenbaki azpian baizik.
 Ongi
 Blok beria aitaren idatzia ekari bear.
 Polita oria!!
 Emen orelako tartea eta bean?
 Oso ongi
 Xabiertxo irudia zan emen.
 Argi asko esan nun ba. Beste guztiek entzun zuten.
 Ez al zun ba Andereñok erëdua egin?
 Txikiak baino gaizkiago.
 Ik ez dakik au egiten.
 Nondik atera zatiketa auek?
 Obeto idatzi bear.
 Gelditu egin gabekoa egiten.
 Bigarënez gorria.
 Ederki.
 Lan gutxi eta ura egin ez.
 Non dira irudiak. Eta eskuz idatzia? Ez ba esan bearëz.
 Txukunagoa beriz. Goikoa bezelatsu.
 Oritan zenbakiak jartzeko bigarënez esan eta...
 Bada esana egiten ikasteko garaia. Asiera polita.
 Au al da bi sail berdinetan idaztea?
 Au naskeria!
 Leño osoa ondo egitera noiz iritsiko?
 Beste blokan bear zuen onek. Aurekoan.
 Zara bukatu gabe ez da beria asten.
 Gaur uts gabe egin bear zan marëtan asteko.
 Au lan kaxkara.
 Len ondo egin. Gero eta gaizkiago.
 Blok bila etxera joan eta etori bitartean ezin zuzendu.
 Txanda pasa egiten ikasteko zan lan au.
 Dos días para trabajar y sin hacer nada.
 Campeón sin perder el mallot amarillo con apretón de manos de Elvira y el ramillete de flores.
 Esto es para Elvira más que ganar la vuelta a España.
 Todo, todo, todo bien: letra, espacios,... de maravilla.

EKARI ÓRIAL DEA
 VTSIK IKASTO LYRA
 MARARKIAK ÓREN EDER
 KI EGITEN RITYLA ESA-
 TEN GENVN ETA...
 ARTV? EZIN. *Irakurri det gora huj*

Ikasle baten gurasoentzako oharra.



Baliabide eskasiaren aurrean, irudimena

Elbirak haur eta talde bakoitzaren ezaugarriak hartzen zituen kontuan. Ondorioz, estrategiak eta baliabideak bakoitzaren arabera moldatzen zituen, eta bakoitzaren arabera erabiltzen zituen behar zituen bitartekoak. Zehazki, horrela jokatu zuen Down sindromea zuen Migelmari Egiarekin, eta beste ikasle guztiekin ere, bakoitzarengan bere berezitasuna ikusten zuelako, hain zuzen ere.

Elkar onartzeko eta elkarri laguntzeko giroa sortzen zuen gelan. Gainera, lan taldeak eratzen zituen, eta bakoitzaren gaitasunen arabera, zereginak eta ardurak banatzen zituen. Ondorioz, taldearen kontzientzia suspertzea ere lortzen zuen. Bide horretatik, hasierako ikastoletako filosofiari jarraituz, ikastolek eutsi egin diete harremanak sendotzeari.

Elbiraren etxe-eskolan dena haurraren inguruan zebilen; andereñoa gidaria zen, ez irakaslea, lagundu egiten zuen, ez zuen zuzentzen; materialak zentzumenen mundua suspertzeko bereziki diseinatuta zeuden, hori zelako, haren iritziz, zentzumenaren eta arrazoimenaren funtsa eta oinarria; saiatzen zen eskolako altzariak, mahaiak, aulkiak, armairuak, apalak, eserlekuak, konketak eta komunak haurren neurrira egokitzen. Horrek guztiak askatasuna eta bat-bateko giroa sortzen laguntzen zuen, eta ikaslea bere kabuz mugitu eta ibil zitekeen, helduen esku-hartzerik gabe.

Jolasen, poesien eta kantuen bidez altzarien eta eskolako baliabideen eskasia orekatzen saiatu zen. Hain zuzen, horregatik ziren jarduera proposamen batzuk hain erakargarriak eta irudimentsuak. Ikasleak gustura aritzen ziren, neke gutxi sumatzen zuten. Beraz, berebiziko garrantzia zuen Elbiraren irudimenak eta fantasiak.

Arloak lantzeko berriz, zenbait ekintza proposatzen zituen, hark zituen hastapen pedagogikoetan oinarritutakoak. Proposatutako ekintzak globalak, manipulatioak, biziak, arinak, entretenigarriak (edozein gairi sarrera ematen zion abesti batekin), esperientzien bidez eta ez buruz ikasteko modukoak ziren, eta gela horren arabera zeukan antolatuta.


Arlo guztietako ekintzen bidez lantzen zituen hizkuntzaren gaitasunik garrantzitsuenak: ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia eta irakurmena.

Hiztegia, berriz, mimikaz, doinuz, gorputzaren mugimenduz eta abarren bidez lantzen aparta zen. Gai guztiak lantzeko olerkiak, aho-korapiloak, bertsoak, kantak eta poemak erabiltzen zituen.

Bere gelako liburutegian, *Oxobi*, *Lizardi*, *Iratzeder* eta batez ere asko maite zuen *Orixeren* liburuak zituen: liburu horiek guztiak oso erabiliak daude, orriak higatuta ageri dira; haatik arrazoia ez da argitalpenaren kalitatea, jasotako igurtziak baizik.

Zotzak irakurtzen eta idazten ikasteko

Irakurtzen eta idazten irakasteko hitz klabeak aukeratu zituen. Aldi berean eramaten ziren bi prozesuak, nahastu gabe, metodo silabikoan oinarritzen baitzen. Lehenengo lurrean zotzekin egiten zuen lan, eta gero lerro gabeko blokean jarduten zuten.



Erabiltzen zituen hitzetako batzuk hauek ziren: gelako lagun-en izen-abizenak, agurtu, ahuntza, aita, ama, andereño, atea, balkoia, belarra, burua, etxea, gela, goxokia, hautsa, igeltsua, iloba, jangela, kaiola, kalea, Kristo, kutxa, kutxatila, lastoa, lorontzia, lurra, mahaia, oporra, orria, poxpolina, soka, sudurra, teilatua, tela, tilin-talan, txabola, txakurra, zorroa, zuloa...

Hitz klabe horietatik abiatuta, ondorengo urratsak jarraitzen zituen:

1. Bokal bakoitza mugimendu batekin identifikatu.
2. Zotzen bidez grafikoki adierazi, letra larriz.
3. Hitzen hasierako kontsonanteak marrazkiekin lotu.
4. Kontsonantea bokalarekin lotu aukeratutako hitzen bidez.

Prozesuaren lehen urratsak haurrek 5 eta 7 urte bitartean ziztuztenean hasten zituen.

5 urterekin, urte amaieran letra larria erabiltzen zuten blokean: etenez idaztea esaten zion.

7 urterekin, letra xehez hasten ziren: eskuz idaztea esaten zion. Adin honetan gaztelaniaz idazten hasten ziren ere.

Irakurketa eta idazketa irakasteko erabiltzen zuen metodologiaren ezaugarri nagusiak arrazonomendua, logika eta ulermena ziren.

Irakurketari dagokionez, hurrek lehendabizi *Martin Txilibitu*, *Xabiartxo* eta osagarri moduan *Txomin Arlote* irakurtzen zuten.

Elbirak lan garrantzitsua egin zuen euskal grafiaren arloan ere. Hilobi zaharretako grafia aztertuz, euskal grafia bildu zuen eta ikasleei irakatsi zien.

Intonazioari, berriz, berebiziko garrantzia ematen zion. Intonazioa lantzeko, banaka irakurtzeaz gain, asko bultzatzen zuen taldean ozenki irakurtzea. Liburu guztiak jatorrizko euskalkian idatzita zeuden: bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz... eta ez Euskara Batuaz.

Elbira Zipitriak ez zuen begi onez ikusten Euskara Batuaren kontu hori. Bere ustez, euskara jatorraren kalterako asmakizun bat besterik ez zen. Ez zuen inondik inora pentsatzen euskara biziberritu eta indartzeko modua izango zenik; aldiz, euskara galtzeko bide egokiena zela pentsatzen zuen. Ondorioz, Euskara Batuaren arerio porrokatua agertu zen, eta bere indar guztiakin egin zuen Euskara Batuaren kontra.

Ikastoletan Euskara Batuaren aldeko iritzia nagusitu bazen ere, Elbirak tinko jarraitu zuen berean. Baina azkenean bakarrik geratu zen. Gaur egungo egoera ezagutuko balu berdin pentsatzen jarraituko ote luke?

Garaiko jendarteko ohiturekin bat eginez, garrantzia eman zion erlijioaren irakaskuntzari. Gai horretan ere aurkezten zuen jendartearekiko kezka eta Santa Mariako elizako apaizei eskatzen zien bere etxe-eskolan ematen zuen ikuspegia





kontuan izan zezatela koherentziaz jokatzeko: gerraren kontra, Aljeriaren liberazioaren aldeko jarrera, apaiz langileen aldeko jarrera...

Elbirak ongi bereizten zituen otoitza eta erlijio gaiak. Oso argi zuen zer zegokion bakoitzari. Egunero egiten zuten otoitz, goizez eta arratsalde. Erlijio gaiak ez zituen aurrez prestatzen, ikusitakotik, gertatutakotik, entzundakotik, eta ospakizunetatik ateratzen zituzten. Gehienetan, Elbirak azalpena eman ondoren, haurrek marrazkia egiten zuten; irudimenetik sortua edo beste liburu batetik hartua.

Sakramentuak antzetzuz ikasten zituzten, Elbirak asko zaintzen zituen antzerki horiek eta ongi egin behar izaten ziren.

Jarduera horiek egiteko behar zituen materialak Ipar Euskal Herrira egindako bidaietatik ekartzen zituen, eta euskaraz idatzita zeuden. Erlijio gaiak beste gaiekin tartekatzen zituen.

Ikasleak jaunartzea euskaraz egiteko prestatzen zituen. Santa Maria eliza atzeko klausuran egiten zuten jaunartzea, han elizkizunak euskaraz egiten baitzituzten.


Hastapenean, esperientzia matematikoei izaera guztiz intuitiboa zuten, eta objektu jakin batzuen manipulazioarekin eta egoera berezi batzuen aurrean izandako jokamoldearekin zerikusia zuten. Adibideek frogatzen dute Elbirak oso garbi zuela matematikari buruzko ideia hori.

Elbirarentzat, ezagutza matematikoak ahalmen handia zuten logika garatzeko, zientzia zehatza zen heinean.

MIKEL'EK ZORTZI VRTE GAVR.VRTE MYGA OSFA
 TZEKO GOXOKIAK EKARÍ DITV IKASTOLARA




Gaxoki bozunua da orú. Ez dabilgu senbat gaxoki dau
 den ez bai ditugu senbatu.




Batekoa bozunuari alderatzea da senbatua. Batekoa bozun
 uari alderatu diegu eta 53 senbakiá sortu da.

Buruketaren errepresentazioa..



Sagari bat bi rati berdir eginam



30

Sagari bat iru rati berdir eginam



Sagari bat lau rati berdir eginam



Sagari bat bost rati berdir eginam



8



Bakartak erosi ditu Anderenok bakaltzeka.

Bi amaliko erosi ditu tikiak lau rian. ^{amaliko bakaltza} Partsi lauak ~~ba~~ ordaindu du. Zenbat lauakoz ordaindu ditubi amalikoak.

Bi zenbaki eman ditute. amaliko bakaltzaren ordaindu. Bi zenbaki eiek bildu ta zenbaki bakaltzaren beaz degu. Batuketan ~~haintza~~ egingo degu beaz.

$$8 + 8 = 2$$

$$8 + 8 = 16$$

Amasii lauakoz ordaindu ditu Anderenok ~~ba~~ bakaltzak ^{Bi amalikoak}



BATVKETA. Bi zenbaki bildu ta zenbaki bakari
egitea da batuketa.

KENDVKETA. Bi zatia osatutako zenbakia eman.
Zati aietako bat ere bai eta beste zatia hilatzea
da kenduketa.

BATVKETA LABURRA. Bi zenbaki eman ta iun-
garina hilatu bear. Lenengo zenbakia batekoarekiko
dana isan bear du iungarima bigarénakiko.

ZATIKETA. Zenbaki bat eman. Bateko osatia da
gon esan eta zenbat sate diran hilatzea da zatiketa
edo. Zenbaki bat eman. Zenbat zatia ^{osatu} gon esan eta
zatiak zenbatekoak diran, hilatzea da zatiketa.


Jokamolde horrek ez zuen kontuan hartzen pedagogiaren ikuspegitik alde handia dagoela jakintza matematikoaren ezaugarrien eta ezagutza matematikoaren eraikuntza prozesuaren artean. Horren aurrean, Elbirak ikaskuntzaren edukiak aukeratzeko, antolatzeko eta sekuentzializatzeko erreferentzi puntu bakartzat jakintza matematikoaren barne egitura hautatzeak ez dirudi oso erabaki egokia izan zenik. Hala ere, ariketetan ikusi dugu beste irizpide batzuk ere erabiltzen zituela: kontzeptu bera hainbat zailtasun mailatako adibideekin eta ariketekin lantzen zuen, haurraren maila logikora hurbiltzeko. Erabiltzen zituen baliabideak, berriz, jokoak, hizkuntza bitan gauza bera lantzea... izan ziren.

Eragiketa matematikoa bi hizkuntzatan adierazita erabiltzen zuen: zifraz eta marrakiz. Lehenengo kopurua, batekoa, bikoa, hirukoa... gauza arruntekin egiten zuen: txirlak, katuak, txakurrak, arrainak, saguak, goxokiak, izarrak.

Elbirak bi bide jorratzen zituen matematika irakasteko: bata iturri epistemologikoa eta, bestea, didaktikatik zetorrena. Buruketen adibideetan zein zenbakien deskonposaketan manipulaziotik abiatzen zen, baina betiko sekuentzializazioa erabiliz.

Lantzen ziren kontzeptuak ugariak ziren: itzulgarritasuna, deskonposaketa eta hizkuntza matematikoaren adierazpena.

Elbiraren metodoan ingurumenaren irakaskuntzak garrantzi handia zuen. Faustina Carrilek, Elbirarekin praktikak egindakoak, zera adierazi zigun: "Elbira Zipitriaren bigarren gela Urgull mendia zen, lehena bere etxea baitzen". Urgullera




abiatzen zen bere ikasleekin ahal zuen guztietan; han, loreak eta txoriak kontatzen eta behatzen ikasten zituzten haurrek beren lehen zenbakiak; udaberri edo gabon kantak; inguruko mendien izenak...

Arlo honetan ere begi-bistakoa da eskola berriaren eragina, bereziki Montessori eta Freinetena.

Elbiraren lana ezazugarri hauetan oinarritu zen: aktiboa, manipulatioa, esperimentazioa oinarritua, irteeren aberasgarritasuna kontuan hartzea, behaketa abiapuntutzat hartzea; laburbilduz, motibazioa oinarritua.

Elbiraren ustez, bere ikasleen adinean behaketak eta esperimentazioak garrantzi handia zuten; bi zutabe horietan oinarrituta abiatzen baita hezkuntzaren esku-hartzea.

Udaran antza tariak Dasara aagin zuten aste leste
 Sarimilo loreak antze zuten anabareko bedardetan ta
 2000 Teke lot Anderarari shoki amara ale botolan
 la diskio ~~zenbat~~ ale ~~guzuz~~ ^{agur ta amara aguntan antean} antean
 Ogei ta amara zenbaki eman dirigute Anderarari sarimiloak
 antean dituzten. Ogei ta amara zenbaki suk leste
 ta zenbaki finkara aagin leste degu. Butuketa aagin leste
 degu. Zenbaki leste dirak leste butuketa leste aagin degu.
 3000 = 2 3000 = 300
 300 sarimilo lota dirak ogei ta amara aguntan
 11500 = 11500 11500 = 11500



Itzigok Urgull menditik ikusita Donostia marraztu zuen.

Behaketak egitearekin bat, datuen erregistro sistematikoa egiteko prozedura garatu zuen; bildutako informazioa antolatzeke era asmatu zuen; neurketa hobetzeko tresnak erabili zituen; eta abar.

Elbirak oso zehatz egiten zuen haur bakoitzaren jarrera. Haur batek bere marrazkian kolore desberdinetako loreak margotu zituen ohar hau ipini zion:



Elbira asko saiatu zen esperimentazioa eta behaketa erabiltzen, aberastasun pedagogiko handia baitzuten. Bere ikasleekin, gaztetxoak izan arren, batez ere behaketa erabili zuen. Prozedura horretan atal hauek antzematen dira: gaia planteatu, behaketa gauzatu, emaitzak frogatu eta aztertutakoaren ondorioak atera. Prozesu horretan garrantzi handia ematen zion lanabesak eta materialak erabiltzeari eta zaintzeari; haurrak horiek errespetatzera behartzen zituen.

Erabiltzen zituen materialak xumeak ziren, eta behaketaren datuak haurrek blokean jasotzen zituzten.

Behaketarako dohaina zuten familiak gorai patzen zituen miresgarritasunez.

Garaian garaiko gaiak lantzen zituen, egoerak berak proposatuak.

Ikus litekeen bezala, jakintza zientifikoa eta teoria pedagogikoak eskolako praktikan erabili ahal izateko moldatu zituen, eta natur zientzien irakaskuntza berritu zuen.

Euskal kultura ikasleen eskura

Elbira bera zen ezinbesteko baliabidea; hots, haren nortasuna, alaitasuna, zorroztasuna, ardura, jakinduria, maitasuna...

Erabiltzen zituen beste baliabideak kantuak, bloken jarraipen zorrotza, oso lan bideratuak, gurasoei adierazpenak eta zuzenketak eta ongi egindako gauzen gorai pamera ziren, batez ere.

Noizbehinka erabiltzen zituen zigorrak ere: arratsaldez ikastolara etorraztea, lanak errepikatzea, gurasoak jakinaren gainean jartzea, ironiazko oharrak...

Asko zaintzen zuen gelako giroa haurrak motibatzeko; guztiengana eta bakoitzarengana heltzen zen. Jarraipen hori zehatz-mehatz egiten zuen, eta eguneroko ariketak zuzentzen zituen: ongi egindakoak azpimarratzen zituen eta gaizki egindakoak ahoz adierazten zizkien eta blokean idatziz adierazten zizkien.

Etixerako bidaltzen zituen lanak mota honetakoak ziren: bukatugabeko lanak bukatzea; ikastolan landutako gaien marrazkiak egitea; ikastolan emandako ereduak jarraituz hainbat ariketa berriak egitea; eta ingurunearen behaketa: natura, ohiturak, tradizioak (oso gogor jokatzeko gai horietan ezagupenik ez zuten gurasoekin).

Beharrezko elementuak antolatu ahal izateko berezko sormena eta estrategiak aurkitzen lagunduko zuten bitartekoak eta baliabideak erabiltzen zituen ikasleekin: datuak, kausak, ondorioak, erlazioak, hausnarketak, zigorrak... eta arazoak konpontzeko beste hainbat estrategia. Ez soilik eskolako arloan topa daitezkeen arazoak, baita bizitzak aurkezten dizkigun gatazketatik onik ateratzeko arazoak ere.

Elbirak erabiltzen zituen baliabideen artean kanta eta olerkiek aipamen berezia merezi dute.

1) ANGERU BATOK	22) GOAZEN MENDIZ	49) IÑAKI	21
2) AMA MAITE MARIA	23) GURE ETxean	50) IRUTEN ARINUZU	
3) ARANTZAZUKO AMA BIRDINA	24) KANTAJARDURI	51) ILUH ABARRA	
4) AGUR JESUSEN AMA	25) KRISTO GURE ERREE	52) IXILIK GILIK	
5) AI RU GABAREN	26) KATO ZAR BAT DEGU	53) BIASAUNTZAK VORN	
6) AGUR XUBEROK	27) JAUNA NERE BIOTZA	54) BELENA	
7) AITAK EMANDU DOTEA	28) JAINKOARE BILDOTSA	55) BELEA TA AXERIA	
8) ATOR ATOR	29) JESUS GURE JAUN MAITEA	56) PELO JOKEPE	
9) ARIHARIN HORA OA	30) JEIKI JEIKI	57) MARITXU NORZOA	
10) AIAI ARDO GORI HARRE	31) EUSKAL MAKIA	58) MARITXU MARITXU	
11) AINTZA DEZAGU	32) ENE BIOTZ GAXOK	59) MOTIL TXALEKO	
12) AI ZE GIZON ZURU	33) DAMUDET JAUNA	60) MOKOA GALODU	
13) AITA SAN MIGUEL	34) TORIZU	61) METEGIKO	
14) ALKI DANTZA	35) OGIA JARDON		
15) AGUR JAUNA	36) OSTLAN BIZUZERA		
16) ANTON BATEA ANTON	37) ONA BILDOTS		
17) ALA KINKRINERA	38) ORZAUDE JESUS		
18) AMA ENE ANIAK	39) OI BETLEEN		
19) GURTU ZAGUN BETI	40) ORA OR GOIRO		
20) GOAZEN GOAZEI	41) O PELO PELO		
21) GORA TA GORA	42) NERA ARMATX		
	43) URUTI NERE		
	44) SARTO SANTOA		
	45) SINISTEN DEI		
	46) ZURE ARGIA		
	47) ZUK ZER DEGU		
	48) IZAN ZALTE BAT		

- Ipuinak eta abestiak: arlo guztietako oinarri bilakatu zituen. Ikasteko benetako tresna gisa erabiltzen zituen, eta ez apaingarri gisa soilik.

- Olerkiak: olerki asko eta asko irakurri eta ikasarazten zizkien hurrei, batez ere Orixerenak.

- Antzerkia: ohorezko lekua zuen Elbiraren gelan. Hainbat ipuinez gain, aditza ere eszenategira eraman zuen; keinuak, gorputz adierazpena eta abar asko lantzen zituen.

- Zotzak: letrak osatzeko, zenbakiak adierazteko eta marrazkiak egiteko erabiltzen zituen.

- Bloka: urtean blok bat osatzen zuten ikasleek. Egunero begiratzen zituen, eta oharrak ere egiten zizkien. Oharrak idazteko beste kolore bat erabiltzen zuen, lanari buruzko oharrak gorritz egiten zituen. Oharrak hiru hizkuntzetan egiten zituen, adibidez: “pas de guerre”, “pas de tuerie”.

Gurasoei deiak bloken bidez egiten zizkien, eta haien erantzunak euskarri berean jasotzen zituen.

Blokak oso ongi zainduak eta zuzenduak ageri dira. Letra larriz hasten zen, ondoren letra xehera pasatzeko. Blokak lerro gabeak ziren.

Bere ikasleen bloketan aurkitutako oharrak honela sailka genitzake:

Behaketa zuzena egiteko oharrak

Auek al dira elur izarak?

Gizabizia ez da gizabidea.

Gorozti-oriak,

Doneak nola ospatzen? Lengoan ez al genion Doneari otoitz egin?

Abendak margoan ez dira ba bereizten?

Au al dek izki txikia eta goien?

Apaingarí orde z goría.

Soina luzeegi.

Iruditan ongi egin eta ala ere zenbakitan gaizki.

Zuaitz goririk ez gazteluan.

Margo guzitako loreak zuaitz berean?

Gaua ez da oréla margotzen.

Batean jaiok ezin orélaño alderik,

Ankaz gora! Asiera polita.

Lau aitz al dira etxe ondoko oriek? Irudi kaxkara.

Auek lore kaxkarak,

Beñiz ontzi berdinak eta luréz beteak,

Ordulari borobila egin al zan.

Ardiak al dituk auek? Muturéan adara?

Bi zuaitz eta arestia?

Abestiari ez dagokio irudi au. Ontziak ixil ixilik emen?

Zuzenketa oharrak

Batekoak ez dira biko.

Handixeago uréna izkia.

Ez zen onela.
 Ez apaindu, ez dago ongi ta.
 Au oñaldea!
 Las abreviaturas siempre llevan...
 ¿Pronombre por qué?
 Falta el trabajo de la conjunción.
 Que letra!!

Aipamen berezia merezi dute jolasaldiek ere. Elbirak ikasleak egunean bi orduz hartzen bazituen ere, bazuten jolas garaia, eta gaur egun ikasleek dituzten eskola ordu kopuruak kontuan izanik, biziki harritu gaitu horrek. Horrek esan nahi du, gure ustez, Elbirarentzat gela ez zela ikasteko espazio bakarra, jolaslekua ere ikasteko bitartekoa zela. Jolas garaian askatasuna, sozializazioa eta hizkuntza ludikoa lantzen zituen, besteren artean.

Jolas garaian Elbira beti haurrekin murgiltzen zen jolasean. Bere ustez, hori urrezko legea zen. Bazuen beste urrezko lege bat, gainera: gauza guztiak zentzu handiz irakasten zituen, gaur egun ikaskuntza esanguratsua esaten dena, hain zuzen.



Eskola bizitzara irekia

Elbirak taxutu zuen eskolan gurasoek berebiziko garrantzia zuten. Haurrak sozializatzeko zuen lehen gunea familia zen. Horregatik, familiako gorabeherei garrantzi handia ematen zien. Izan ere, hurrek horien bidez gauzatzen baitituzte lehenengo ikasketak eta horien bitartez zehazten baitituzte lehendabiziko harreman eta jokaera emozionalak. Bide batez, jendarteko ohiturak bereganatzen dituzte.

Elbirak bere ikasleen familiarekin zeuzkan harremanak oso sendoak ziren, orobat. Gai asko partekatzen zituzten: mendi irteerak, ikasleen heziketa osoa, euskarekiko sentimenduak... adiskideak ziren. Halaber, zenbait kasutan, harreman horiek oso sakonak ziren, afektibotasunari dagokionez. Zenbaitetan, Elbirak familiarekin zuen harremanak isla zuzena izaten zuen familia horretako haurrarekin zuenarekin.

Elbira egoera horretaz baliatu zen familiako gorabeherak hobeto integrazteko ikasleekiko bere jardunean.

Oso nabarmena da Elbirak garrantzi handia ematen ziela familiei. Lehenago aipatu dugunez, hurrek eskolan igarotzen zuten denbora oso laburra zen etxeokokin igarotzen zutenarekin alderatuz gero. Gurasoek maila desberdinetan, baina hurbiletik, hartzen zuten parte beren seme-alaben hezte prozesuan, ikaste prozesuaren jarraipen osoa egiten zuten; bloka erabiltzen zuen oharrak idazteko, eta horiek gurasoak arduratzeko idazten zituen. Jarraian zenbait adibide aipatuko ditugu:

Bi lanak gaizki Jose Marí eta ez ez zekizkizulako. Áholagabekeriz.

- Gurasoek; Irákurri det anderéno.

Anderénók ória kendu eta beŕiz egina.

Mirent́xoren et́xera joan eta egin al itukanak egiteko esan nikan

Zuzendu gabe

Ikaskizuna ikasi ez. Lana erdi egina. Pozik bukatu bear genula ikastaroa eta au da Jose Mari. Zigortua gaur aratsaldean ta bakarik.

- Irákurri det eta oso aseŕe nago Jose Maríkin.

Aríkúa ta... gelditu nintzan joan dan ostiralean, Maritxu. Berandu nun, ikastaldia bainun eta trolebusa artzera noala Jose Mari eta Íñigo jostatzen eliza-ondoko lorategian.

- Irákurri det anderéno.

Anderénók lanak ikusi ez gaur. K. I. Irákurri ere ez Jose Marí,

Margotzeko astirik ez?

Egunero esaten laguntzeko Íñigo eta alperik.

- Irákurri det anderéno.

‘Ekarri orrialdea utsik ikastolara. Marazkiak oren ederki egiten zitula esaten genuen eta!... aztu’ Ezin.

- Irakurri det.

Zabartzen asi da beriz Iñigo. Ikaskizunak oso kaxkar jakiten ditu.

- Irakurri det andereño.

Ikastolan ongi egin eta...

‘Beste guztiak ongi ekari dute lana Iñigo. Nun engon andereño izketan ari zenien?’

‘Ama ikusi nolaiko ederki dakin egiten eta etxean edonola egiten lanak. Au, besteak joan eta amar minutuan egin du.’

‘Ara egin pixka bat gogor etxean.’

‘Bein ere gotri gabe ikusiko Iñigoren lana.’

‘Andereño alperik zuzentzen ala?’

‘Iñigok marazkiak egingo zitula uste ta...’

‘Ea amari poza emateko lanak ongi egiten dituen.’

‘Aratsaldean bostetan lan au ondo egina ekari.’

‘Biar guk abesti ta dantza egin bitartean lan au egingo Iñigok.’

‘Egunero zerbait azten. Andereñoek naiko lan badu txikiekjin aratsaldean eta ezin beriz ekarazi.’

‘Marazki au ez dirudi Iñigok egin duenik.’

‘Joxe Mari ain biuria da, ezin egon leikela ikastol batian. Esan eta esan baño bein ezer ez nau entzuten.’

‘Andereño zurekin egoteko gogo andia daukat. Nora joango nintzake zure etxera edo ikastolara?’

‘Elbira: ikastolara nai badezu etori, ostiralean, bazkaldu eta bereala.’

‘No se que poner tan admirable me parece el trabajo de la página anterior.’

Gurasoek, ohar horiek sinatu eta jarrera zuzenarazteko ardura zuten; eskolan egindako lanak etxean zuzentzen zituzten gurasoen laguntzarekin; eta Elbirari ordaintzen zioten, gero irakasleei, eta ikastolako gastuei aurre egiten zieten ere.

Gurasoen parte hartze horretatik sortu zen Batzarra. Batzarra ikastolako guraso guztiek osatzen zuten. Haren ardura nagusienak lokalak aurkitzea, haien mantenua eta kudeaketa ekonomikoa ziren. Etxerako lanei, zigorrei eta diziplinari buruz iritzia ematen zuten; haatik, ez dago arrastorik adierazten duenik metodoan edo prozeduretan, hau da, gelan egiten zen lanean esku hartzen zutenik.

Gurasoek erabateko konfiantza eta segurtasuna zuten ikastola horretan egiten zenarekin. Haurra behar bezala gara zedin, ezinbestekoak dira giro atsegina eta segurua eta harreman pertsonal maitagarriak izatea.

Begiratu bat, ebaluazio gisa

Lortu ote zuen Elbirak nahi zuena?, bete ote zituen helburuak?, azaldutako metodologia ote zen hoberena helburuak lantzeko?

Elbirak ez zuen ezer idatzi bere metodoari buruz. Bere metodoaren xehetasunak harekin praktiketara aritu zirenek soilik jaso zituzten.

Elbiraren metodoaren originaltasuna ikasleen adimenaren maila kontuan hartzean datza, aniztasunean, globaltasunean, manipulazioan, hizkuntzaren erabilera landuan, naturarekiko harreman estuan, hizkuntzen trataera bateratuan, etxeko heziketan, neska eta mutilak gelan elkarrekin izatean, gurasoekiko harremanetan, irakaslea aholkularia eta material egokien prestaketaren ardura duena bilakatzean, eta ikaslea, berriz, bere ikasketaren protagonista bilakatzean, eskolako heziketa etxean osatzean eta abar.

Gaur egungo eskolan ezaugarri horiek ohiko bilakatu dira, baina Elbira erbestetik itzuli zenean, 1942. urte inguruan, Donostian aurkitu zuen irakaskuntza zaharkitua eta oso zuzendua zen. Gainera, hizkuntza bat ezabatuta zegoen eskolatik: euskara.

Baina zer gertatu zen berak asmatu zuen metodoarekin?, hark lan egiteko zuen moduarekin?, zer gertatu zen Orixe ikastolan?, zer gertatu zen Urumea ikastolan?, eta Euskal Herriko gainerako eskoletan?, bere metodoak izan al du islarik Euskal Herritik kanpora?

Euskal irakaskuntza osoan oso zabaldurik daude Elbirak erabili zituen baliabideak (zotzak, puxtarriak, ipuinak, kantak, dantzak); azaldu zuen berrikuntzarako grina; eleaniztasunaren aldeko jarrera; aniztasunaren trataera; euskal kultura, eta honen trataera: tradizioak; indartzeko neurriak eskaintzea ama hizkuntza euskara ez dutenei; irteerak; irakasleen ahalegina; ikasleen lanaren erakusketak; heziketa lanaren garrantzia. Horiek guztiak, era batera edo bestera, txertaturik daude gaur egungo irakaskuntzan.

Bestalde, irakasleek betidanik parte hartu dute berrikuntzetan. Asko, jada 60ko hamarkadan Bartzelonara joaten hasiak ziren, Rosa Sensateko Udako Eskoletara.

Prestakuntzak indar handia hartu zuen irakasle bakoitzarengan, eta jada eskola guztietan dago zabaldurik. Elbira Zipitria izan da Euskal Herrian euskarazko irakaskuntza berrizatzeko argia piztu zuenetariko bat.

Elbirak adin desberdinetako ikasleekin egiten zuen lan. Beraz, aipagarria da mailakako estrategiak eta sekuentzializatuak erabiltzeko plangintza bati jarraitzen ziola, kontzeptuak, edukiak eta prozedurak ulertuz barneratzen zirela ziurtatzeko. Haren ikasleen bloketan, behintzat, horixe antzematen da.

Bestalde, ahalegindu zen bere ikasleek esparru instrumentalak, irakurketa-idazketa, kode matematikoa, mapen irakurketa eta abar ezagutzeko interesa izan zezaten. Elbira jakitun zen, ikasleek ulermen zailtasun handiak zituztela ikasgai horiek barneratzeko; ulermen hori errazteko abestiak, jolasak, olerkiak eta bestelakoak erabiltzen zituen.

Halaber, ikasleek ikasgaiak barneratzeko zituzten zailtasunak aurreikustea eta jarduerak zailtasunaren arabera sailkatzea beharrezkotzat zeukan. Horren ondorioz, adinaren eta ikasgaiaren arabera sailkatzen zituen antzezlanak, kantuak, olerkiak, jolasak eta irakurgaiak, besteak beste.

Elbirak azterketak eta taldeko eztabaidak baliatzen zituen informazioa eta ikuspegiak trukatzeko eta ezagutzaren eskemak berrantolatzeko. Era berean, ikasleen artean interesak koordinatzea bultzatzen zuen, eta erabakiak taldean hartzea, elkarri laguntzea eta gatazkak elkarriketaren bidez konpontzea. Xede hauetarako zeukan antolatua gela: ikasleen lankidetzaz ahalbidetzeko, jendarteko gertaerei eta eraginei buruzko gogoeta elkarrekin egiteko; gatazkak gainditzeko aukerak irekitzeko, azken batean. Ondorioz, gelak itxura desberdinak hartzen zituen landu nahi zuen gaiaren arabera.

Beste modu batera esanda, Elbiraren iritziz, ikasleei ikertzeko eta beren kasa konponbideak bilatzeko gaitasunari lehentasuna eman behar zitzaion, haien autonomia pertsonala eta morala indartzeko bidea baitzen. Horretarako, adibidez, ikasleak egunean bi orduz joaten ziren eskolara, baina ikasitakoa aplikatzeko beste zenbait jarduera egiten zituzten; esaterako, etxerako lanak: bakarkakoak edo taldean egindakoak.

Elbira Zipitria, lehenik eta behin, herriko maistra izan zen; hori dela eta, hurbiletik ezagutu zituen bitarteko desegokiak, bakardadea, ulertu ezina eta bakartzea. Era berean, harremanak izan zituen pertsonengandik, naturarekin izandako harremanetatik, eta herriaren aldeko borrokatik asko ikasi zuen.

Haren lehen urratsa eskola desberdina egitea izan zen; horretarako, teorizazio pedagogiko sakonetatik abiatu beharrean, hizkuntzak, kulturak eta tradizioaren aldeko konpromisoak eta eguneroko jarduerak planteatzen zizkieten hainbat arazori aurre egiteko erantzun praktikoa ematen saiatu zen. Ondorioz, bere pedagogia estrategiez, teknikez eta baliabidez beterik dago. Beraz, garatutako pedagogia errealista eta praktikoa da: oinarrizko maistraren pedagogia.

Hala ere, Zipitriaren pedagogia ez da tekniken eta aholkuen errezeta-liburu soila. Hastapenean, hezkuntza eta hezkuntza prozesua ulertzeko modu bat dago: hezkuntzaren eta hizkuntzaren arteko lotura, heziketaren eta bizitzaren zentzua, herriarekiko maitasuna, eta ekinaren ekinez ikasteko eta irakasteko dohaina. Teknikak baliagarri izango dira filosofia hori instrumentalizatzeko, baina ezin dira besterik gabe nahasi.

Hortaz, Elbirarena ikuspegi dinamikoa zen, pedagogo zaharrek gorai patzen zituzten gelditasunetik eta pasibotasunetik urruntzen zena, gainera. Ondorioz, haurtzaroaren ahalmenetan, premietan eta desioetan oinarritzen den pedagogia.

Bestalde, eskola berriaren beharra aurrean zuela, alternatiba metodologiko bat bilatu behar izan zuen tresna gisa hizkuntza bat hartuta.

Haurtzaroari buruz zuen ikuspegi dinamikoaren arabera, haurraren gaitasuna eta haren lorpenetara bideratu zuen hezkuntzaren indar guztia: lehenik eta behin, zenbait eskuratze prozesu desintelektualizatu egin behar ziren; gero, ikasteko

metodo natural bat bilatu behar zen, haurrari eskolan bizitzan bezala ikasteko aukera emango zion metodo bat, alegia. Horretarako, behin eta berriro saiatu zen metodo natural bat bilatzen.

Teknika eta baliabide didaktiko horiek egin zioten ekarpenik handienetako bat, hain zuzen, eskola aldatzeko prozesuari: haur bakoitzaren ahalmenen arabera egokitzen ziren lanak eta errespetatzen ziren lan erritmoak nahiz banatzen ardurak: lankidetzan aritzen ziren, beste pertsonekin harremanak izaten eta beren lanez arduratzen ikasten zuten, besteak beste.

Zipitriaren pedagogia indibidualismoaren, norberaren lorpenen eta pertsonalismoaren kontrakoa zen. Pedagogo euskaldunaren helburua gelako jarduerak antolatzeko eran ez ezik, geroago irakaskuntzan aritu zirenei eman zizkien praktiketako eskoletan eta bere jardunaren funtsean ere agertzen zen. Zipitriak irakaspen horien bidez antolatu zuen eskola eraldatzeko bere metodoa.

Bestalde, metodo hori oso zorrotz garatu zuen. Maistrei ikasleei adina exijitu zien, praktiketako klase horiek baliagarri izan baitzituen bere berrikuntza metodologikoak hedatzeko; behin eta berriro esan dugunez, didaktikaz zuen ikuspegiaren ondorioz, ez zituen bere pedagogiaren ildo programatikoak idatzi nahi izan, eta beti ahozko transmisioaz baliatu zen metodoaren azalpen lanerako.


Elbira Zipitriak ez zituen bere printzipio pedagogikoak eta metodologikoak idatzi. Horren ondorio da, hein handi batean bederen, eta jorratu zituen beste hainbat arlotan gertatutakoaren kontra, gaur egun hezkuntza arloan aditu gisa ezaguna ez izana, eta zor zaiona aitortu ez izana. Berarekin praktikak egin zituzten ikasle haien ikastoletan izan ezik; han, ezagutu eta zabaldu ahal izan baitute zuzenean Elbirarengandik jasotakoa.



Elbiraren Sarako ikasleak, Prefetenean.



Pilar Sansinenea, Elbira eta Inaxita Munita.



Elbirak Parisen argitaratutako liburua.



Nikolas Ormaetxea, Orixe.



Elbira ikasleekin.



Atzehitzak

VIET-MAN

00203

Generosa ALKAIN

Elbiraren lehengusina

To Elvira,

Wherever it is you are, I hope you have found inner peace.

Elbirarentzat:

Zauden lekuan zaudela, zure baitan bakea aurkituko zenuela espero dut.

* (Jatorrizko testutik itzulia)

Luis Mari BEREZIARTUA

Elbiraren ikaslea

A MI ANDEREÑO ELBIRA ZIPITRIA

En la Subida al Castillo, que ya suena a alturas... Calle misteriosa y sinuosa de Donostia, que sube y se pierde en lo alto del monte Urgull, calle de las más estrechas de la Parte Vieja, aún con los mismos viejas adoquines que ella tantas veces pisara; un Convento de Monjas, donde también ella rezaba y hoy la rezan; junto a una sociedad, Gaztelubide, la más singular y representativa de la Ciudad; calle resguardada por los muros zagueros de nuestra iglesia de la Virgen del Coro, a quien ella visitaba y nos llevara...

Subida al Castillo, calle llena de sombras y estrechuras, viejas casas donde siempre se ve ropa tendida, colgaduras que son como florones y galladetes que la adornan. Paraje de gran solera donde hoy se aprecia el nombre que el Ayuntamiento en Pleno dedicó... "Andereño Elbira Zipitria Bidea" por acuerdo de fecha 10 de Mayo de 1984, "...dada la gran labor realizada durante toda su vida, en favor del euskera y de una Donostia euskalduna...".

Existe un antiguo letrado, en un ángulo del anterior, escrito en trilingüe: castellano, inglés y francés, y no en euskera, "Route de la Forteresse", fortaleza y castillo que, como lema, mantuvo juntos Zipitria en la enseñanza del euskera.

Fui alumno de Andereño Elbira, de los primeros, allá por los años 1930 y pico, corto pico. Yo de dos ó tres años y cuatro, lo sumo, en un local bajo de la calle Juan de Bilbao. Ella vivió en esta misma calle y tuvo, después una habitación cercana donde dio clases clandestinamente.

La recuerdo, sin acordarme de datos precisos, pero sí que la veo pequeña y limpia, de ojos claros, azules o verdes, afable, seria, como una amona.

Fueron años que quisimos olvidar sin llegar a olvidarlos y que, por comentarios de algún compañerito de entonces, nuestra enseñanza consistió en cantar, contar, rezar y bailar, como se hace en toda Guardería-Escuela.

Estaba la verdadera ikastola, la de Muñoa, en la calle Campanario, a cuya Capilla nos llevaba, como de paseo, nuestra andereño Elbira. Recuerdo las funciones de teatro de los Poxpoliñas, en el Kursaal, que quizás sembraran en mí aficiones al teatro, María Dolores Aguirre de Lasheras, directora de la Escuela de la lengua y Declamación Vasca del Ayuntamiento de SS., de quien también fui alumno, identificada con Elbira Zipitria en pensamiento, palabra y obra. Fueron ambas muy amigas, andereños las dos y colaboradoras, permaneciendo Elbira entre sombras por su carácter sobrio en las que se escondía.

Recuerdo mi primera canción que aprendí con Elbira, “Beatz punta ori, lenengotxu ori, beste guztien artean txikia det ori...” el “Andre Madalen” como baile, así como el “Catón”, con el M-A=MA; el librito Martin Txilibitu, hasta llegar a leer y escribir mi nombre “Koldobika” que, por las prohibiciones del uso del euskera, por la guerra de 1936, se me cambiara por el simil de LUIS. Fueron años de miedos, recelo, exilio y separación de familias, en los que la propia Elbira tuvo que destruir su propio archivo, datos, historia, domicilios y documentación que pudieran comprometerle por posibles consecuencias ó represalias.

Pasaron los años, ausente muchos ella y yo en mis correrías familiares; la vi, al tiempo. Yo ya adulto y siempre igual ella. Se cortó el moño de un tiempo, pero no se cortó la coleta... Solía tocarse con boina y también usaba mantilla, mantilla de iglesia, no de toros y otras fiestas.

Era prudente, observadora y seria, recelosa, escudriñadora, precisa.

No me reconocía, y llegó el momento de presentarme y hablar despacio con ella. Le dije mi nombre, soy Luis y mis dos hermosos apellidos.

Sorprendida me contestó... “Luis, Luis... ez zera zu Koldobika izango...!”

Yo ya no era aquel niño, pero sí su alumno de siempre, portador de la semilla que sembraran mis padres y ancestros y que ella cultivó con tanto cariño: el euskera.

Eskerrikasko, Elbira...!!

Ikusi arte.

Elbira Zipitria andereñoaren lehenengotako ikaslea izan nintzen, 1930 urte inguruan, Juan de Bilbao kalean.

Nik 2 edo 3 urte nituen, 4 gehienez. Txikia eta garbia zela gogoratzen dut, begi argiak zeuzkan: urdinak edo berdeak. Atsegina zen, serioa; amona baten antzekoa.

Elbirarekin abesten, zenbatzen, erreztatzen eta dantzatzten ikasi genuen, edozein haurtzaindegian edo eskolan egiten zen gisan.

Oroitzen dut Elbirarekin ikasi nuen lehen kantua: “Beatz punta ori, lenengotxu ori, beste guztien artean txikia det ori”...; “Andre Madalen”, ikasi nuen lehen dantza; “Catón” hura, M-A=MA zena; *Martin Txilibitu* liburuxka. Guztiak, “Koldobika” nire izena irakurtzen eta idazten ikasteko, 36ko gerrak ekarri zuen euskararen inguruko debekuen ondorioz, LUIS izenagatik aldatua izan zena.

Beldur, errezero, erbeste eta familia sakabanatze urteak izan ziren haiek. Elbirak berak bere artxiboa suntsitu behar izan zuen: datuak, historia, helbideak eta nahastu zezakeen dokumentazioa; ondorioen eta zigorren beldur zen.

Urteak igaro ziren, haietako batzuk kanpoan egin zituen Elbirak. Ikusi nuen, ni heldua eta hura betiko moduan. Garai bateko mototsa kendu zuen, baina ez zuen ilemototsa moztu... Txapela erabiltzen zuen, eta mantelina —elizakoa, ez zezenetara edo beste festetara joatekoa—.

Zuhurra zen, behatzailea eta serioa, mesfidatia, arakatzaila, eta zehatza.

Egun hartan ez ninduen ezagutu. Nire izena esan nion: Luis naiz. Ondoren, nire bi abizen ederrak esan nizkion.

Harrituta erantzun zidan:

— Luis, Luis... ez zera zu Koldobika izango...!

Ni, jada, ez nintzen haur hura, baina bai haren betiko ikaslea. Nire gurasoek eta arbasoek erein zuten eta Elbirak hainbeste maitasunez landu zuen haziaren eramailea: euskara.

Eskerrikasko, Elbira!

Ikusi arte.

* (Jatorrizko testutik itzulia)

Mari Karmen MITXELENA

Orixe ikastolako irakasle ohia

“Andereño Elvira Zipitria” entzutearekin batera burutazio asko datozkit gogora.

Hitz gutxitan saiatu naiz ni, 14 urtetan, bere ondoan ikusi eta ikasitakoa laburbiltzen.

Ikastolan (bere etxeko gelatxoan), ezagutu nuen benetako irakaskuntza zer zen. Magisteritza eskolan ikasi ez nuen guztia bere ondoan aurkitu nuen: pedagogi aurrerakoia, eskola bizia, haurrak dakitenetik hasi eta pixkanaka eraikitzen joatea eta hori guztia jolas giroan egiten.

Oso zehatza zen klaseak ematen, dena ondo prestatuta izaten zuen: gaia, materiala, testua...

Guretzat ordu arte ikastaldiak eskola barruan ematen baziren, berak erakutsi zidan zein aberatsa den gelatik atera eta mendian, kaian, azokan edo sukaldean ikastea eta irakastea.

Abestiak, olerkiak, dantzak, jokuak, irteerak eta abar zein garrantzitsuak ziren irakaskuntzan.

Beti bide berriak aurkitzen zebilen, neska-mutilak zituen gogoan eta bere helburua ahalik eta errazen eta egokien irakastea zen. Horrek bultzatzen zuen

ikertzera, atzerriko pedagogoen irakatsiak ondo aztertzea eta gero berak horretarako zuen trebezia euskal kutsuaz txertatzea.

Gaur egungo ikastolek zor handia diote Elvira andereñoari. Daudenera iritsi badira, bere lan bikainari esker izan da; berak urratu zituen bideak eta Euskal Herri osoan ikastolak irekiko zituzten hainbat irakasle prestatu zituen.

Nik nire miresentza adierazi nahi dut; hark ikastola ezagutu eta maitatzeko aukera eskaini zidalako, eta 45 urte irakaskuntzan igaro ondoren, ikastola eta ikasleak nire bizitzako zati garrantzitsua izan direlako.

Marta MATA I GARRIGA

Pedagoga. Espainiako Eskola Kontseiluko lehendakaria

UNA DURA Y DULCE LEYENDA

En febrero de 1967, mi madre, Angels Garriga, moría tras un rápido agravamiento de la parálisis que la había dejado sentada en una silla de ruedas durante veinte años, pero que no había podido terminar con su alegría de maestra ante el crecimiento de los niños, ni con su capacidad de contar, inventar y escribir cuentos para ellos.

Moría en una de las habitaciones que en aquel segundo curso de la Escola de Mestres Rosa Sensat servían de dormitorio para quienes trabajábamos allí, lejos de nuestras casas. Poco tiempo después, una jovencísima y ya muy juiciosa andereño, creo recordar que se llamaba Itziar Idiazabal, vino a pasar con nosotros unas semanas, para conocer lo que hacíamos en Rosa Sensat y alguna de las escuelas que le daban soporte. Yo estaba en cama con una hepatitis aflorada a la semana siguiente de la muerte de mi madre, y hablamos largos ratos con Itziar.

En cuanto salí del trance, hice el primer viaje al extranjero de Rosa Sensat, visité la Nuffield Foundation en Sheffield, para conocer su material de enseñanza de una segunda lengua a partir de los 8 años; Itziar vino también. En Sheffield nos esperaba Imma Colomer, otra joven maestra del primer curso de Rosa Sensat, que había ido a conocer el tratamiento del galés en los parvularios de Gales. En aquellas fechas, era una gozada la vivencia de la libertad por las calles y escuelas de pueblos y ciudades inglesas y galesas, y poder hablar con maestros, inspectores e investigadores de algo que estaba vetado y perseguido en España.

Personalmente, para mí el gozo era doble o triple: además de la novedad de la libertad, compartía la experiencia con maestras de una nueva generación que se formaba y liberaba trabajando a nuestro lado y preguntando por nuestros maestros, y sentía también cómo todo ello era la reivindicación de un tipo de escuela y de

unos maestros, nuestra escuela catalana y los maestros que la habían hecho en tiempo de la República, que empezaban a morir sin verla rehacerse. Sólo unos pocos, como mi madre, conocieron aquellos maestros jóvenes que trabajaban para rehacer la historia, bajo el nombre de Rosa Sensat, maestra que había sido de mi madre.

Fue hablando de estos maestros, y de sus lecciones tanto más vigentes cuanto más silenciadas, que Itziar nos explicó su paso por la escuela de Elvira Zipitria, la maestra del y en euskara. A la vuelta del exilio, desde los primeros 40, Elvira había formado niños y andereños, que en los 50 habían producido una primera floración de ikastolas y en los 60 las primeras formas de colaboración, una librería, unas jornadas de verano, como las que, junto con otra maestra de 1r. Curso de Rosa Sensat, Mercé Pou, había conocido en Getaria, después de remontar el Ebro en un 2CV, en 1966.

Situé enseguida a Elvira entre Rosa Sensat, mi madre y otros maestros de la misma generación y de la misma vocación de hacer una escuela nueva y en la lengua de los niños y del pueblo. Pero Elvira, (la llamé “Doña Elvira”, como mi madre llamaba a su maestra Rosa Sensat, “Doña Rosa”), aparecía como una maestra única y sola y ya casi retirada a aquellas alturas de los 60. Itziar era la última discípula. Elvira, única, sola con su pedagogía y su lengua.

Los maestros de su promoción, la que iniciaba una prometedora madurez a los treinta años en 1936, vieron cortados su magisterio y su escuela por la derrota en una guerra civil. En Catalunya, de los que sobrevivieron, algunos dejaron la profesión, otros aceptaron de buen grado el modelo escolar que se les imponía, otros, sin aceptarlo, se adaptaron más o menos a él. Poquísimos, hicieron en los 40 una actuación de resistencia limitada. En Euskadi, Elvira no hizo concesión alguna para trabajar en una escuela, simplemente había convertido su casa en escuela, en ikastola.

Única y sola, pero decisiva en la historia de la escuela y del país. Porque seguro que los centenares de niños y niñas que pasaron por su casa-escuela, y sus padres, y las docenas de andereños que se formaron a su lado y educaron a millares de niños y niñas que aprendieron a escribir con los palillos y cómo se construye la frase con los verbos del euskara, seguro que todos ellos están en la base humana y pedagógica de la actual escuela de Euskadi.

Creo que conocerlo y reconocerlo a fondo es el verdadero objetivo y la verdadera utilidad de un libro como éste. Elvira Zipitria es un personaje único, una dura leyenda, que se constituyó ella sola un eslabón en la historia de la ikastola durante más de una década y que contribuyó a la floración de las ikastolas de las siguientes.

Quizás la música popular tradicional en la que formó a sus alumnos, dejase en su interior un poso de dulzura que suavizara su decadencia humana. Y seguro que ahora nos permite explicar su dura leyenda con la ternura que conviene a la historia de la escuela.

Àngels Garriga, nire ama, 1967ko otsailan hil zen, 20 urtez gorpildun aulki batera lotu zuen paralisiaren okertze azkar baten ondorioz. Escola de Mestres Rosa Sensateko logela batean hil zen.

Handik gutxira, andereño gazte bat etorri zen gurekin zenbait aste igarotzera; Itziar Idiazabal izena zuen, gogoratzen dudanez. Rosa Sensaten egiten genuen lana ezagutzera etorri zen. Gaixorik nengoenez, luze hitz egiteko aukera izan genuen.

Rosa Sensaten atzerriko lehen bidaia egin nuen, ondoren. Nuffield Foundation ikusi nuen, Sheffield-en. Itziar nirekin etorri zen.

Itziarrek Elbira Zipitriaren etxe-eskolan ikasitakoa azaldu zigun. Erbestetik itzuli zenean Elbirak haurrak eta andereñoak hezi zituen; 50eko hamarkadan ikastolen lehen loraldia sortu zutenak, hain zuzen, eta 60ko hamarkadan lehen elkarlaneko ahaleginak, liburutegi bat eta udako topaketa batzuk antolatuta zituztenak.

Berehala kokatu nuen Elbira Rosa Sensat, nire ama eta beste irakasle batzuen artean, belaunaldi eta bokazio berekoak: eskola berri bat egin nahi zuten, haurren eta herriaren hizkuntzan. Baina Elbira andereño bakarra eta bakartua bezala ageri zen, ia erretiratua 60ko urte haietan. Itziar zen haren azken ikaslea. Elbira, bakarra eta bakarrik bere pedagogia eta bere hizkuntzarekin.

Bakarra eta bakarrik, baina eskolaren eta herriaren historian erabakiorra. Ziur bere etxe-eskolatik igaro ziren ehunka haur haiek, eta haien gurasoak, eta haren ondoan prestatu ziren eta milaka haurrei zotzekin idazten irakatsi zieten eta euskal aditzarekin esaldiak osatzen trebatu zituzten dozenaka andereñoak Euskal Herriko egungo eskolaren oinarrietan daudela.

Uste dut hori ezagutzea eta aitortzea dela gisa honetako liburu baten helburua. Elbira Zipitria pertsonaia bakarra da, mito gogor bat. Hamarkada luze batean ikastolaren historian katemaila izan zen bera bakarrik, eta hurrengo hamarkadetan sortu ziren ikastolen loraldian lagundu zuen.

* (Jatorrizko testutik itzulia)

Xabier GARAGORRI

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko aholkulari pedagogikoa

HAZIA HILTZEN EZ BADA EZ DU EMATEN FRUITURIK

Elbira Zipitriak euskal hezkuntzan duen lekua nabarmena da eta utzitako arrastoa sakona, ezbairik gabe. Bera da, 36ko gerra aurretik eta 60ko hamarkada bitartean, euskal irakaskuntzaren zubi lana eta kate begi funtzioa betetzen dutenen artean, aipagarriena. Bera ez zen izan garai zail haietan bidegile bakarra, baina bai bere inguruan talde bat sortzeko, prestatzeko eta horien bidez euskal irakaskuntzaren jarraipena eta hedapena ziurtatzeko ikuspegia izan zuena. Hori da niretzat, nire garaitik eta nire ikuspegitik begiraturaz, bere ekarpen eta meriturik handiena.

Berak jaso eta bereganatu zituen munduaren, hizkuntzaren, hezkuntzaren eta curriculumaren ikuskerek talka egin zuten, bereziki bere bizitzako azken urteetan, 60ko hamarkadako euskal gizarte berrian nagusitu ziren ikuspegiekin eta baloreekin, eta ondorioz, lekuz kanpo geratu zen. Deserrotze horren hiru adibide besterik ez ditut aipatuko.

Lehenengo adibideak, nolabait esateko, hezkuntza eta eskola politikarekin zerikusia du. 1942tik 1960ko hamarkada bitartean Elbirak eman dituen eskolak, ezkutuka, klase partikularrak balira moduan, etxez etxe, talde txikitik, euskotarrentzat, ordutegi murriztuan, Batxilergoko ingresoak egin arte (9 urte) eta isilpeko giroko estrategiak erabiliz ematen ditu. Egiten duen lana ikusgarria da, baina hezkuntza osoari begira, oso marjinala. 60ko hamarkadako euskal gizarte berriak, nahiz eta diktadurako garaia izan eta legez kontra joan, erdaraz erakusten zuten eskolen alternatiba izango ziren ikastolak amesten zituen; hau da, beste era bateko hezkuntza politika ausartagoa eta osoagoa eskatzen zuen. Euskal irakaskuntza ezkutuko etxe zuloetatik kalera eta plazara atera nahi zituzten, ikastolak beste eskolak bezain ikusgarriak eta normalizatuak izan zitezten. Gauza bat da, ordea, nahi izatea eta bestea ahal izatea: ba al zegoen horretarako giza-baliabiderik eta baliabide materialik?

Elbiraren egiteko era eta ikastola berriena ez zetozen bat, bi ikuspegi eta bi antolaketa era oso desberdinetan oinarritzen ziren. Titulurik gabeko eta prestakuntza berezirik gabeko irakaslerik ere ez zuen onartzen. Baldintza horietan bi egitasmoek elkarren artean topo egitea ez da batere harritzekoa.

Bigarren adibidea, curriculumaren gaiarekin lotzen da. Zer erakusten zuen? Arantxa Mendizabalek, 1965-66. ikasturtean, Elbira Zipitriarekin andereño izateko egindako praktketan, ikasturte guztiko eta eguneroko lan-egutegia jaso zuen. Aipatzen dituen gaiak hauek dira: 1) Bizitzarekiko ikasgaiak. 2) Elkarriketa arinak. 3) Gramatika. 4) Irakurketa-idazketa. 5) Otoitza. 6) Erlijio gaiak. 7) Abesti eta jolas gidatuak eta libreak. 8) Zenbaki lanak eta matematika.

Ez da hau lekua Elbira Zipitriak egiten duen curriculumaren hautaketaren azterketa egiteko, baina azaletik besterik ez bada gai guztien artetik otoitza eta erlijio-gaiak aztertuko ditut bizi izan zuen bi mundu ikuspegien arteko gatazka argitzeko. Azilean (azaroan), adibidez, erlijioa erakusteko eta otoitz egiteko 26 ordu eta 58 saio inguru agertzen dira, hau da, hilabete horretan ikasteko denboraren %21,85 eta saio kopuruen %26,01; epailan (martxoan), 29 ordu (%23,38) eta 85 saio (%32,44). Elbira elizkoia eta fede handiko emakumea zen, eta erlijioaren irakaskuntzak eta otoitzak toki berezia hartzen zuten berak zuzendutako eskolako orduetan. Laikotasuna nagusitzen ari zen euskal gizarte berrian ezin begi onez ikusi curriculumaren ia denboraren laurdena erlijio gaietan aritzea eta bizitzarekiko ikasgaiei eta matematikari erlijioari eskaintzen zitzaion denbora baino gutxiago eskaintzea.

Hirugarren adibideak hizkuntarekin, euskararekin, du zerikusia. Ezaguna da euskara izan zela Elbiraren zaletasun eta gaitasun nagusia, euskararekin beti ere antzerkiaren eta abestiaren mundua lotuz. Ikastola orduetz beste, helduentzako euskarazko klaseak ematen zituen ilunabarretan. Atzeratuentzako ikastetxe berezi batean lana egiteko aukera izan zuen, baina ezezkoa eman zuen ez zuelako euskararen irakaskuntza utzi nahi. Ikastolako orduetan ere, gramatika gaia zen gai guztien artean denbora gehien eskaintzen ziona. Lehen aipatutako Arantxa Mendizabalen lanean oinarrituz, alde batera utziz euskararen irakaskuntzarekin lotura duten irakurketa-idazketa eta abesti eta jolasa gaiak, gramatikari, azaroan, 34 ordu (%28,57) eta 36 saio (%16,14) eskaintzen dizkio; martxoan, 34 ordu (%27,4) eta 42 saio (%16,03). Denboraren laurdena baino gehiago gramatikari. Gai honetan ere, ez ziren bat etorri bere ikuspegiak eta Euskaltzaindiak 1968an euskara batuaren alde hartutako bideak. Bere bizitza profesionalaren azkeneko urteak ziren horiek, baina horretan ere euskal gizarteak hautatutako bidea eta berea ez ziren bat etorri.

Elbira Zipitriaren drama pertsonala belaunaldi batetik bestera maiztasunez gertatzen direnen antzekoa izan zen. Drama horren neurria aldaketaren tamainak eta bere izaera tinkoak eta zorrotzak areagotu zuten, izan ere belaunaldien arteko aldaketa eta gatazka handia bizitzea egokitu zitzaion, eta Elbiraren izakera ezagutu zutenek, oso zuzena baina gogorra, tinkoa eta aldagaitza zela diote. Hainbeste dedikazioz eta maitasunez landu zuen etxe-eskola eredia, euskal gizarteak gainditu egin zuen eta zaharkituta geratu zen. Erlijioan sustraitzen zen bere mundu ikuskera ere aldatu egin zen eta ikuspegi laikoa nagusitu. Amesten zuen euskararen eredia bera ere hankaz gora joan zitzaion. Horrela esanda badirudi galtzaile baten biografiaren aurrean gaudela, izan ere bere bizitzako hiru zutabe nagusietan ez du asmatzen. Hala ere, galtzaile izatearen eta balizko bere sentimendu pertsonalen interpretazioak alde batera utziz, denborarekin bere lana guztiz emankorra izan dela jabetzen gara:

- Batetik, 1926. urtetik 1970. urte arteko (36ko gerraren parentesia barne), bere ekarpen pertsonala eta profesionala ezinbesteko erreferentzia da gerra aurretikako eta ondorengo belaunaldien arteko euskal irakaskuntzaren zubi lana egiteko.

- Bestetik, irakasle modura zituen dohainak, ezagutu zutenek diotenez, apartekoak omen ziren eta bere garairako oso berritzaileak. Prestakuntza teorikoa eta gaitasun praktikoa uztartzen jakin zuen. Prestakuntza teorikoaren lekuko dira erabiltzen zuen bibliografia eta Frantziako eta Kataluniako beste pedagogoeekin izan zituen harreman profesionalak. Irakasle ona izateko oinarri teoriko sendoaz gainera, gaitasun eta eskarmentu handiak behar dira eta eskarmentu aberasgarrienen artean, oraingo ikusoegitik begiraturaz, ikasteko zailtasunak zituzten haur atzeratuekin izan zuen esperientzia azpimarratuko nuke.

- Eta gauza guztien gaineratik, Elbiraren lana ez zen bakarlariarena izan. Ez zituen zekizkien metodologia berritzaileak beretzat gode, alderantziz, bere inguruan andereño gazteak formatuz zabaldu eta horrela bere lanaren jarraipena ziurtatu zuen. Jarraipen hori ez zen egin agian berak nahi izango zukeen bidetik, baina horrek, gure garaitik begiraturaz, ez du garrantzi handirik. Dakiguna da berak egindako lana emankorra izan dela. Andereño horiek izango dira, berarekin ikasitako garai berrietara egokituz, Donostiako Antiguako irakasle eskolaren eta Euskal Herri osoan zabalduko diren ikastola berrien legamia.

Gure ustez, Elbira Zipitriak, euskal irakaskuntzaren historian, oso leku berezia dauka, eta oso garai zailetan irabazitako lekua gainera. Kontraesana dirudi, baina bizitzaren legean sarritan gertatzen dena gertatu zitzaion Elbirari ere: hazia hiltzen ez bada ez du ematen fruiturik.

Pilar ETXANIZ KORTABARRIA

Antzuolako Herri Eskolako irakaslea

Orri hauetan ikusiko dugun Elbira bere garaiko emakume-ereduarekin apurtzen duen emakumea da: erronkei aurre egiten diena, oso argi dituen bere helburuak, eta berauek lortzera bizitza dedikatzen duena; emakume indartsua, adoretsua, ausarta, inizatiba handikoa, berekoia eta, batez ere, oso independentea, bakardadean murgiltzerainokoa.

Irakasle bezala, balio handiko ezaugarriak erakusten dizkigu orriz orriko bidai honetan: maistra arduratsua, bere funtzioa eta jarduerak hausnartzeko joera eta gaitasuna dituen, jakin-mina, hobetzeko ahaleginak eta esfortzua. Ingurua, ezagupen-iturri gisa erabiltzen zuen heziketan, besteen ekarpenak bereganatu, bere praktika berrituz, umeen partaidetza eta motibazioa bultzatu... Baina guztien

gainetik bi gauza azpimarratu nahi ditut duten garrantzia eta egunerokotasunagatik: ikasleak maite zituen, Migel Marirengan eta bere eskubide eta gaitasunetan sinesteraino. Eta bere profesioaren jabe zen, orduko egoera aldatzeko ahalmena zuela sinesteraino.

Balio handiko emakumea dugu, bada: baliotsua eta emakumea, diot. Eta, agian, horrexegatik, emakume izateagatik, geratu zaigu ezkutuan bere izena.

Mundu zabalean, han eta hemen, emakume baliotsu gehienekin gertatu den bezala, Elbiraren ekarpenak ere, historiaren gauean geratu dira, argirik ikusi gabe. Euskararen eta Euskal Kulturaren alde hainbeste egin zuen arren, gure herria zordun da berarekin, ez dizkio eta bere meritoak aitortu eta merezitako ohorea eskaini.

Azkenik, bi emakume izan dira Elbira Zipitriaren obraz eta bizitzaz interesaturik eta bere neurrian baloraturik, liburu honetan jaso eta euskal gizarteari zuzentzen diotenak. Irakasle eta emakume naizen aldetik badituzte pozteko bi arrazoi. Eskerrikasko Resu eta Juana.

Nerea ALZOLA MAIZTEGI

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea

Nire esker ona Resu Abasolori eta Juana López de Munaini hitzaurre hau eskatuz eman didaten konfiantzagatik, eta, batez ere, Euskal Kulturaren Elbira Zipitriaren pertsonaiaren inguruan egin duten ikerketagatik.

Idazteko aukera aprobetxatuz, eta idazleen testuaren irakurketak berak sortarazi dizkidan gogoetan eta sentimenduetan oinarrituz, hezkuntza lerro batzuk azpimarratu nahi ditut labur-labur, nire ustez garrantzitsuak direnak etorkizunera begira.

- Bere buruaz haratago doan edo bere burua transzenditzen duen neurrian errealizatzen da gizakia; kausa baten zerbitzura, nahiz beste pertsona batenganako maitasunean. Frankl-en hitzetan oinarrituko naiz esateko, hezkuntzaren erronka nagusia delako eszeptizismoaren aurka bizitzaren zentzua aurkitzen laguntzea.

- Hezitzaileak maitasunaren eta diziplinaren arteko oreka lortu behar du; hurrek bata eta bestea behar baitituzte.

Zaila egingo zaio haurri bere nortasuna eta bizitzaren zentzua aurkitzea, bere alboan ez badauka maitasunez laztantzen duen hezitzailearik eta bere egotik askatzen laguntzen dion pertsona heldurik.

- Barneko sentimenduak adierazteko gaitasuna landu beharra daukagu, horrek konfiantzazko harremanak sortzen baititu.

Eguneroko esperientziak erakusten digunez, “bakoitzak bereari” bihurtu da gizon-emakume eta herrialde askoren lema, eta, badirudi, bakoitzak bizirik irautea dela guk guztiok ulertzen eta asimilatzen dugun logika bakarra alde guztietan. Abiapuntu horretatik, ez da balioesten bestea aintzat hartzearen, elkarrizketatzearen eta hitzartzearen bertutea eta onura. Desitxuratu egiten da bestea entzutea, bestearekiko lankidetzatza.

Egoera hori garesti ari gara ordaintzen. Giza bakardadea, mundu garatua delakoan behintzat, errealtate bihurtzen ari da.

Zergatik ote diogu elkarrizketaren horrenbesteko beldurra? Eszeptizismoa orokortzen ari da, baita gazteen artean ere. Badirudi ezinezkoa zaigula pentsatzea besteek gurekin begirunez, eskuzabaltasunez, adiskidetasunez, laguntzeko prestutasunez, eta elkarrekin bizitzeko eta gauzak egiteko borondatez ere joka dezaketela.

Bakardadeak, babesik gabe sentitzeak, bakarrik eraman gaitzake totalitarioak eta pertsonen eta proiektu pertsonalen suntsitzaile izan daitekeen pertsonen, taldeen edo gauzen mende jartzera; gizaki guztiok behar dugulako maitasuna, lankidetzatza, aintzat hartuak izatea, segurtasuna, harreman loturak... Bakardadeak eta bakartuta bizitzeak hauskor eta zaugarri bihurtzen gaitu, abusu askotarako prest.

- Kultur eta moralezko tradizioetatik irauarazi nahi diren alderdiak transmititu behar zaizkie belaunaldi berriei. Gaur egun, askok uste dugu gizakiek zenbait tradizio, ohitura, balore, eta abar bazter uzten badituzte, pobretu egingo direla bere giza dimentsioan.

Hanna Arendt-ek (1996, 202) duela mende-erdi honako hau idazten zuen, gaur egun nire ustez bete-betean indarrean dagoena: “Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanik egokienean, irakasleak onartu egin behar du gure gizarteaz eta bere iraganaz ikasleari irakasteko eginkizuna. Eginbehar hori bere gain hartu nahi ez izateak esan nahi du, heldua ez dela sentitzen gazteari egokituko zaion munduaren erantzule; eta hori, ekarpen txarra litzateke gaztearen gizarteratze prozesurako”.

- Hainbat belaunaldiren eta ikuspegiren arteko elkarrizketa lantzea behar-beharrezkoa zaigu une honetan.

Horretarako landu behar ditugun bi balore nagusiak hauek dira: umiltasuna (gure humus-a ezagutaraziko digun umiltasuna, gure lan egiteko erak eta gure ikuspegiak ez direla bakarrak eta ez onenak jakiteko eta onartzeko) eta besteekiko errespetua eta begirunea (gazteek nagusiekiko, boterea daukatenek oinarrian daudenekiko eta abar).

Eskuartearen duzun liburu hau lagungarria eta atsegina izan dakizula!

Anjeles IZTUETA AZKUE

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

IRMOTASUN, KEMEN ETA SENDOTASUNAREN ADIBIDE BAT

Badira parekorik ez duten historia eta testigantza ordezkaezinak. Badira irmotasun, kemen, eskuzabaltasun eta sendotasunaren adibide diren bizitza eta pertsonak. Pertsona horiek historia egiten dute eta gizakiaren alderik onena eta duinena adierazten dute.


Elvira Zipitria gizaki miresgarria da, pertsonarentzat eta herri eta kulturetarako batere askatasunik ez zegoen garai ilun horietan bidea irekitzera ausartu eta haren bizitza beste pertsoneri eskaini ziena, euskaraz irakatsiz eta heziz.

Etorkizunari aurrea hartzen jakin zuen emakumea da, bizitzea suertatu zitzaion garaitik harantz ikusi zuen; emakume ausarta, irudimen handikoa izan zen, bere herriko, Euskal Herriko, kulturaren, hizkuntzaren, ohituren, orainaren eta geroaren aldeko konpromisoa hartu zuena. Elvira Zipitriaren historia emakume zuzen eta sentikor batena da, duintasunaren zentzu handia zuen eta irmotasun, adore eta apaltasunez aurrera eramaten zituen bizitzeko gogoia eta ilusioa.

Sakonki maite zuen Euskal Herria eta, eguneroko irmotasun eta praktikaren bidez, Euskadik eta euskarak bizitzeko zuten eskubidea defenditzen jakin zuen. Ikustezintasunak ekiditen saiatu zen beti, itxaropenari bideak ireki zizkion, pertsonak, herriak, hizkuntzak eta kultura garatu, hazi eta beren destinoaren jabe izan daitezen nekerik gabe egin zuen lana, askatasunean sutsuki eta lasaitasunez sinetsiz eta erabateko konfiantza jarritz, elkarrekin bizitzen, partekatzen eta elkarri ulertzen lagunduko digun askatasun batean.

Elvira Zipitria emakume jakintsua izan zen eta gure herriko historian itzal eder eta sakona utzi du. Gure sustraiak ohoratu behar ditugula guztiz sinestuta bizi izan zen, gure arbasoak izan zirena, gu garena eta, batez ere, izan nahi duguna gogoratu behar ditugula. Izatera ausartzea, existitzera eta erabakitzea ausatzera, konplexutasuna oso ideia eta helburu argiekin administratzea, baina betiere tolerantzia eta malgutasunetik abiatuz, hezkuntzatik, fede onetik eta gogo eraikitzailetik.

Genealogia



Kronologia

	ELBIRA	IRAKASKUNTZA	GARAIKO ADITUAK	GIZARTEA
1906	Maiatzaren 28an jaio zen, Zumaian.	Julene Azpeitiak irakasle ikasketak amaitu zituen.		
1907				Pilar Primo de Rivera jaio zen, Madrilen.
1908		Bilboko Plaza Berriko eskola ireki zuten.		<i>Euskal-Esnalea</i> aldizkaria argitaratu zen.
1909		<i>Boletines de la Escuela Moderna</i> -ren egilea, Ferrer i Guardia hil zen, Bartzelonan.		
1914		Migel Muñoak Koruko Andre Mariaren ikastetxea sortu zuen, Donostian. Irakaskuntza euskaraz eskaintzen zuen. Colon de Larreategiko euskal eskola ireki zuten, Bilbon.		I. Mundu Gerra hasi zen. Soledad Casilda Hernáez Vargas ijitoa eta ekintzaile anarkista jaio zen, Donostian.
1915			Koldo Mitxelena jaio zen, Errenteria-Oreretan.	
1916		Maria de Maeztu irakaslea <i>Residencia de Señoritas</i> -en zuzendaria izendatu zuten.		<i>Euzko Deya</i> argitaratu zen.
1917		Euskal Ikastetxea ikastola sortu zuen Migel Muñoak, Donostian.		
1918		Eusko Ikaskuntzak Oñatiko Batzarrean euskal irakaskuntza aldarrikatu zuen.	Euskaltzaindia sortu zen.	I. Mundu Gerra amaitu zen. Dolores Ibarruri Gómez-ek <i>Hipocresía religiosa</i> artikulua argitaratu zuen, lehen aldiz <i>Pasionaria</i> goitizenaren erabiliz.
1919		Maria de Maeztuk eta Julene Azpeitiak <i>Bizkaya</i> -ren auzo ikastolak sortu zituzten.		

1922	Magisteritza ikasketak hasi zituen, Donostian.	<i>Revista de pedagogia</i> aldizkaria sortu zen.		Emakume Abertzale Batza (EAB) sortu zen.
1923		<i>Xabierto</i> argitaratu zen, umeei euskaraz irakurtzen irakasteko idaztia.		Primo de Riverak EAB debekatu zuen.
1924		Ikatz kaleko, Udal plazako eta Zubigaineko ikastolak ireki zituzten, Donostian.		
1926	Irakasle lanetan hasi zen Muñoatarren ikastolan, Donostian. Generosa Alkain eta haren bi neba bikiak, Tony eta Franky, Baltimor-etik Donostiara etorri ziren bizitzera, amonarenera.	Maria de Maeztu Lyceum Club Femenino-ko zuzendaria izendatu zuten, Carmen Baroja Nessi idazlearekin batera sortzaileetako bat izan zen.		
1927	Aita Jacinto hil zitzaion abenduan 20an, Donostian.			
1928		Karmele Alzueta Pedagogoa jaio zen.		Euskal Bazkunen Alkartasuna sortu zen, Donostian.
1929				Euskal Aur Eguna ospatu zen lehen aldiz.
1930	Ama, Maria Irasortza hil zitzaion urriaren 2an, Donostian. Geno Alkain bi bikiak eta haien amona, bere izeba, Fermin Kalbetoneko bere etxera joan ziren bizitzera.			
1931	EABko idazkaria izendatu zuten.	Espainiar errepublikako konstituzioak Lehen Hezkuntzaren derrigorrezkotasuna eta dohaintasuna ezarri zituen.	Consuelo Larruzea filologoa jaio zen, Gasteizen.	

1932		<p>Eusko Ikastola Batza sortu zen.</p> <p>Euzko Ikasle Batza sortu zen.</p> <p>Portugaletoko eta Algortako euskal eskolak sortu ziren.</p> <p>Ovidio Décroly pedagogo eta sendagilea hil zen.</p>		<p>Emakumeei botoa emateko eskubidea onartu zitzaien.</p> <p><i>Euzko</i> aldizkari jeltzalea argitaratu zen, Donostian.</p>
1933	EABko idazkaritza utzi zuen.	<p>Ondarreta, Barakaldo, Errotatxueta eta Bergarako euskal eskolak sortu ziren.</p> <p>Euzko Irakasle Bazkuna sortu zen.</p>	Jose Maria Agirre, <i>Lizardi</i> , hil zen, Tolosan.	<p>Euzko Pizkundea kultur zentroa zabaldu zen, Donostian.</p> <p>Carmen Baroja Nessik <i>Encaje en España</i> argitaratu zuen.</p>
1934		<i>Hacia la nueva escuela</i> argitaratu zuen Rosa Sensatek.		“Sección Femenina de Falange” sortu zuen Pilar Primo de Riverak.
1936	Donostiako kaiko arrantzale batzuen itsasontzian ihes egin zuen.	<p>Lehendakariak Euskal Unibertsitatea edo Ikastola Nagusia sortu zuen Bilbon.</p> <p>Bizkaya-ko auzo ikastolak itxi egin ziren.</p> <p>Euskal eskola guztiak itxi ziren.</p> <p>Gipuzkoan, 27-30 auzo-ikastola zeuden.</p> <p>Pedro Poveda teresar erakundearen sortzailea hil zen.</p>		<p>Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu zuten alkateek Gernikan.</p> <p><i>Euzko Deya-La voz de Euzkadi-La voix des Basques</i> argitaratu zen, Parisen.</p> <p>Dolores Ibarrurik <i>Mujeres</i> aldizkaria sortu zuen.</p> <p>Espainiako Gerra Zibila hasi zen.</p>
1937		Gipuzkoako auzo-ikastolak itxi zituzten.	Esteban Urkiaga, <i>Lauaxeta</i> , fusilatu zuten, Bilbon	Frankoren aliatuek Durango eta Gernika bonbardatu zituzten, ehundaka jende hil zuten.
1939	Donostiara itzuli zen, Irungo Santiago zubia gurutzatuz.			<p>Espainiako guda amaitu zen.</p> <p>II. Mundu Gerra hasi zen.</p>
1940				Pilar Primo de Riverak “Servicio Social” sortu zuen.

1942	Donostian eskolak ematen hasi zen, etxe-ikastolen esperientziaren hasiera.			
1945				II. Mundu Gerra amaitu zen.
1946	Bere etxean eskolak ematen hasi zen.			
1947	Geno eta bere bi nebak Estatu Batuetara itzuli ziren.			
1948	<i>Leoi-kumea</i> argitaratu zuen Parisen, <i>Orixen</i> itzulpenarekin eta Ylla-ren argazkiekin.	Maria de Maeztu hil zen, Buenos Airesen.		
1949	Etxalarko Ijini neskame hartu zuen etxean.	Julene Azpeitia zigortuta bidali zuten Anzora (Burgos). Han zortzi urte egin zituen.		
1951		Etxe-ikastola gehiago irekitzen hasi ziren Elbirarekin ikasitako andereñoen ardurapean; adibidez, Jone Forkadarena.		
1952		Karmele Esnalek bere etxe-eskola ireki zuen. Maria Montessori hil zen, Italian.		
1954			Carmen Errazti Perez de Saratxo idazlea eta EABko kidea hil zen, Pau-n.	
1956	Munduko Euskal Biltzarrean parte hartu zuen, Parisen.			Euskaltzaindiak Gerra zibilaren osteko lehen kongresu irekia egin zuen, Arantzazun.
1957		Mari Karmen Lasartek Angel kaleko bere etxean ikastola zabaldu zuen.		
1958				ETA erakundea sortu zen.
1959		Donostian 17 etxe-ikastola zeuden.		

1960		Kontxi Beitiak Pasaiaiko ikastola sortu zuen. Santo Tomas lizeoa sortu zen jendearen artean bonuak salduta lortutako diruarekin.		Jose Antonio Agirre Lehendakaria hil zen, Parisen. Dolores Ibarruri Alderdi Komunistako presidente izendatu zuten. Espainiako ministerietzak <i>Zeruko Argia</i> debekatu zuten.
1961		Arantxa Arrazolak ikastola sortu zuen Campanario kalean. Rosa Sensat hil zen.	Nikolas Ormaetxea, <i>Orix</i> e, hil zen, Donostian.	ETAko zazpi kideren aurkako I. Epaiketa militarra egin zuten.
1962	Lehenego Aberri Egunean parte hartu zuen.	Julia Fernandez Zabaleta irakasle eta pedagogo berritzailea hil zen, Iruñean. Maritxu Mariezkurrenak Urumea ikastola sortu zuen, Hernanin.		Gerren osteko I. Aberri Eguna ospatu zen Itsasun, Enbatak antolatuta.
1963	Euskaraz ez zekiten haurrek hartzen hasi zen. Prestakuntza berezia ematen zien.	Izaskun Bustok ikastola sortu zuen Azpeitia kalea 7, 4.ean.		<i>Zeruko Argia</i> astekaria berrituta argitaratu zen.
1964		Koro Aldanondok ikastola sortu zuen Konstituzio plazan. Miren Terese Alemanek Antigua eta Añorgan ikastolak sortu zituen.		
1965		Arantxa Mendizabalek Lasarteko ikastola sortu zuen. Orereta ikastola zabaldu zen, eta baita Izarraizpe, Salbatore Mitxelena eta Amasorrain ikastolak ere.		
1966		Herri-Ametsa, Almen, Urnieta, Urretxu-Zumarraga eta Hautzaro ikastolak zabaldu ziren. Landaberri ikastola sortu zuten.		

1967		Ikasturte horretan "Cartilla de Escolaridad" derrigorrezkoa bihurtu zen. Txantxiku, Zurriola, Haztegi, Laskorain, Aitor, Anoeta eta San Franzisko ikastolak sortu ziren. Angels Garriga hil zen, Rosa Sensat udako eskolaren sortzailea.		<i>Ez Dok Hamairu</i> taldeak arrakasta handia lortu zuen Bartzelonan.
1968	Orixe ikastola eratu zuten 4 andereñoek: Miren Teresa Alemanek, Koro Aldanondok, Mari Karmen Mitxelenak eta Elbirak berak Santa Maria elizako lokaletan.	Manuel Valencia Remón Gipuzkoako Gobernadore Zibilak abuztuaren 11n irailak 15erako legeztatu gabe zeudekeen ikastolak ixteko agindua eman zuen. Elizaren babes eskatu zuten, eta honek eman egin zien: 78 ikastolatik 53k- %68- elizaren babespean geratu ziren. Benita Assas Manterola irakaslea eta feminista hil zen, Bilbon.		Euskaltzaindiak Euskara Batua eta Batasuneko Hiztegia aurkeztu zituen Arantzazuko Biltzarrean. Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta ETako kidea hil zuen. ETAk Meliton Manzanas polizia inspektorea hil zuen.
1969		Ikastolek Batzar Nagusia egin zuten, eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza sortu zen.	Ricardo Arregi hil zen.	
1970		Villar Palasi Hezkuntza ministroa zelarik "Hezkuntza lege berria" onartu zen. Derrigorrezko irakaskuntza 9 urtetik 14 urte arte luzatu zen. Legeztapen ofiziala eskatu zuen Orixe ikastolak.		Abenduan Burgosko prozesua abian jarri zen.
1971	65 urterekin ikastola utzi zuen.			Euskaltzaindiak Idatz-arauak argitaratu zituen.
1973		Ikastolek Getarian egindako Batzar Nagusian gehiengo handiz erabaki zuten Euskaltzaindiak proposatu zuen Euskara Batua bidetik jotzea.	Jacques Maritain filosofo frantsesa hil zen.	Espainiako Gobernuko presidente Carrero Blanco hil zuen ETak. Euskaltzaindiak aditzlaguntzaile batua aurkeztu zuen.

1974		Euskal testugintzari eman zitzaion hasiera.		ETA bitan banatu zen: militarra eta politiko-militarra.
1975		Ikastolen autorizazioa, legalizazioa eta finantza-zioa lortu zen Madriletik.		Angel Otaegi eta Juan Paredes <i>Txiki</i> fusilatu zituzten. Franco hil zen.
1976		Ikastolek Elebitasunari buruzko symposiuma antolatu zuten.		24 ordu euskaraz jaialdia egin zen Donostian. Poliziak bost langile hil zituen. Gasteizen.
1977		Euskal Herriko herrialde guztietako ordezkariak bilera egin zuten Gasteizen. Euskal Herriko Konfederazioa sortzea zen helburua. Lehenengo Kilometroak egin ziren, Beasainen.		Ikurriña legeztatu zen Hego Euskal Herrian, eta gerra osteko lehen Aberri Eguna egin zen. Amnistiaren legea ezarri zen Hego Euskal Herrian. Euskaltzaindiak aditz-sintetikoak aurkeztu zituen.
1978		Maiatzaren 7an Hego Euskal Herriko federazioek Batzar Nagusia egin zuten Etxarri-Aranatzen. Ikastolek euskal hezkuntzaren hutsunea betetzen zutela aldarrikatu zuten. Espainiako konstituzioak denek hezkuntzarako eskubidea dutela ezarri zuen.		Hego Euskal Herriak ezezkoa eman zion Espainiako konstituzioari. Batallón Vasco Españolak Migel Beñaran Argala ETAKo buruzagia hil zuen, Angelun.
1979	Ahizpa moja, Maria, hil zitzaion urtarrilaren 12an, Pin-Balman, Frantzia.	Ikastolen mugimenduak 172 ikastola zituen bere baitan, inoizko kopururik handiena. "Alternativa a la escuela pública" txostena ezaguturazi zen.		Gernikako Autonomia Estatutua onartu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoa sortu zen, Nafarroa kanpoan utzita. Gladys del Estal hil zuen poliziak Tuteran.
1980	Anaia, Jorge, hil zitzaion ekainaren 26an Hondarribian.	Izaera publikoaren aitopena egin zitzaien ikastolei. Julene Azpeitia hil zen, Bilbon. Jean Piaget hil zen, Suitzan.		Martin Zabaleta Everesteko tontorrera igo zen, eta munduaren gailurrean ikurriña jarri zuen.

1981		Karmele Alzueta Eusko Jaurlearitzako Irakaskuntza saileko zuzendari izendatu zuten.	Telesforo Monzon hil zen, Donibane Lohizunen.	Estatu-kolpe saioa izan zen Espainian. Joseba Arregi torturatu eta hil zuen Guardia Zibilak. Jose Maria Ryan Lemoiz zentral nuklearrereko ingeniaria hil zuen ETAk.
1982	Abenduaren 26an Elbira hil egin zen 76 urte zituela, Gipuzkoako ospitalean.	Euskararen erabilpena arautzeko oinarritzko legea plazaratu zen: Euskal Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. EAeko Hezkuntza sailak, Hezkuntza Bereziko plana antolatu zuen, integrazioan eta sektorizazioan oinarritua.		Nafarroan "amejoramientoa" ezarri zen. <i>Anaitasuna</i> euskarazko aldizkaria desagertu zen, hogeita hamar urte eta gero. Lemoizko zentral nuklearra geldiarazi zen, herri ekimenari eta borrokari esker.

Bibliografía

- A. Arrondo eta D. Zubizarreta: *Elvira Zipitriaren bizitza eta lanari buruzko ikerketa*. Donostia, 1984.
- A. Capitán Díaz: *Historia de la educación en España II*. Dykinson. Madril, 1994.
- A. Gimenez Landi: *La Institución libre de Enseñanza y su ambiente*. Complutense. Madril, 1996.
- C. Lerena Alesón: *Escuela, ideología y clases sociales en España*. Ariel. Bartzelona, 1986.
- C. Martínez: *Mujeres en la historia de España*. Planeta. Bartzelona, 2000.
- *Diseño Curricular Base. Educación Primaria*. Madril, 1989.
- *EAEko Hezkuntza-Premia Bereziei emandako erantzuna*. Ararteko. Bilbo, 2001.
- Estornés Lasa: *Enciclopedia Ilustrada del País Vasco*. Auñamendi. Donostia, 1984.
- Gipuzkoako Agintaritz Aldizkaria(1968-07-19). 9. zenbakia. 58. or.
- *Gipuzkoako ikastolen elkarte. 1969- 1994, 25 urte*. Iturriak bilduma 25.
- H. ALMENDROS: *La imprenta en la escuela. La técnica Freinet*. Revista de Pedagogía, Madril, 1932.
- J. Bowen: *Historia de la Educación Occidental*. Herder. Bartzelona, 1992.
- *La investigación pedagógica y la formación del profesorado*. CSIC. Madril, 1980.
- Lorea Agirre: *Ipartargiaren itzal luzea, Joxemi Zumalabe*. Euskaldunon Egunkaria. 2003.
- LUR entziklopedia
- M.C. Zeberio eta M. J. Munduate: *Errepublika garaiko irakaskuntza*. 1985.
- M. Montessori: *El niño, el secreto de la infancia*. Diana. Mexiko, 1991.
- N. Abbragnano y A. Bisalberghi: *Historia de la pedagogía*. Fondo de la cultura económica. Madril, 1992.
- *Oinarrizko Diseinu Kurrikularra. Lehen Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzu orokorra. Vitoria- Gasteiz, 1992.
- P. Poveda: *Itinerario Pedagógico*. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madril, 1965. 81- 88 orr.
- R. Menéndez Pidal: *En torno a la lengua vasca*. Austral 1962.
- Trabajos de la Academia Vasca.
- Xabier Aranburu Puente: *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian*. Cuadernos de sección. Educación 4. Eusko ikaskuntza.
- Y. Turín: *La educación y la escuela en España*. Madril, 1967.
- *Zipitria 'tar Elbire "Andereñoa"*. Omenaldia. Euskarazaintza 1986.
- Z. Morsy: *Pensadores de la educación 2*. Ediciones UNESCO 1995.

Mila esker!

Esku artean duzun liburu hau gauzatzeko lan egin dugun bost urte hauetan asko izan dira jo ditugun ateak, eta laguntza eske joan garen tokiak. Guztietan, gainera, laguntzeko prest agertu diren lagunak topatu ditugu. Zalantzarik gabe, neurri handi batean, horiei guztiei esker gauzatu eta biribildu ahal izan dugu lan hau.

Denen artean bereziki eskertu nahi ditugu: Agate, Joxean Agirre, Juan Mari Aztiria, Pilar Barandiaran, Jose Egia Kareaga, Karmele Esnal, Ramon Labaien, Maria Dolores Lasheras, Aita Juan Jose eta Aita Mauro, Maritxu Mariezkurrena, Meme, Maritxu Mendiola, Mendizabaldarrak, Mari Karmen Mitxelena, Amagoia Mujika, Jokin Mujika, Teresarrak eta Koro Zumalabe.

Bihoakie horiei, eta hemen aipatu ez arren gogoan ditugun gainerako guztiei ere gure eskerrik zintzoena eta adeitsuena. Mila esker denoi!